



# **AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA**

---

**ARLO SOZIAL ETA  
EKONOMIKOARI  
BURUZKO  
DIAGNOSTIKOA**

Behin betiko bertsioa  
2013ko iraila

---

**Laguntza teknikoa:  
ENEA eta IKERTALDE**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN ETA LURRALDE  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y POLÍTICA TERRITORIAL



**udalsarea21**

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea  
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

# **AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA**

---

## **ARLO SOZIAL ETA EKONOMIKOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA**

*2013ko iraila*

### **ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA: Azpeitiko Udala**

**Eneko Etxeberria.** Alkatea  
**Izaskun Ceciaga.** Ingurumen Teknikaria

### **LAGUNTZA TEKNIKOA**

#### **ENEA eta IKERTALDE**

**Ana López.** Nekazal Ingeniaria (Enea)  
**Ainhoa Mitxelena.** Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua (Ikertalde)  
**Ainhoa Gea.** Industri Injenieria (Enea)  
**Susana Torregaray.** Geologian lizentziaduna (Enea)

**Eskertza:** Lan hau Udalsarea 21etik jasotako laguntzari esker egin da.



# AURKIBIDEA

---

## **AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA ARLO SOZIAL ETA EKONOMIKOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA**

*2013ko iraila*

|                                                                   |    |
|-------------------------------------------------------------------|----|
| Igo ATALA: Laburpen exekutiboa                                    | 1  |
| II. ATALA: Diagnostikoa                                           | 9  |
| 1. SARRERA ETA AURREKARIAK                                        | 9  |
| 2. AZPEITIKO ARLO SOZIAL ETA EKONOMIKOARI<br>BURUZKO DIAGNOSTIKOA | 11 |



## Igo ATALA: Laburpen exekutiboa

### AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

Azpeitiak 2025 urtera begirako **Plan Estrategikoa** du. Udalerriko garapen eredu berri baten oinarriak finkatu eta **iraunkortasunaren aldeko apustua** sendotzen duen plana hain zuzen. Bertan, hiri antolamendua, ingurumena, garapen ekonomikoa eta justizia soziala modu integralean jorratzen dira.

Udalerriko sektore ezberdinak ordezkatzeko dituzten eragileekin batera landu da Plana, eta epe luzeko ikuspegi eta **elkarren arteko bide berria** marraztu nahi izan da.

Plana, egungo testuingurua eta **gastu publikoaren euspena** eta baliabideen arrazoizko erabileraren beharra kontuan hartuz egin da. Udal kudeaketan eraginkortasun maila altuagoa lortzea eta eskumenen esleipenean bikoizketak saihestea izan dira planaren oinarri.

Krisi ekonomikoak gogor astindu du Azpeitia, horregatik, udalerriko **garapen ekonomikoari eta enpleguaren bultzadari** pisu eta protagonismo berezia eman zaio. Eszenatoki honetan, egungo egoerari gogor heltzearen, udalak lidergo zuzena izan nahi du.



Lana fase desberdinetan garatu da:

- Hasieran, egoeraren **DIAGNOSTIKOA** egin da, udalerriko egoera ekonomikoa eta soziala ezagutzeko asmoz. Honez gain, kultura, euskera eta kirolarekin erlazionatutako gaiak ere aztertu egin dira. Diagnostikoan, udalerriko egungo gabezi edo ahultasun nagusiak identifikatu dira, gogor heldu beharreko gai zehatzak mahai gainean jarritz.

- Jarraian, Planaren **FORMULAZIO ESTRATEGIKOA** egin da, hau da, 2025 urtera begira ikuspegia definitu, hainbat xede ezarri eta planaren helburu estrategikoak identifikatu dira.
- Ondoren, arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen **EKINTZA PLAN**aren formulazioa egin da eta horretarako, diagnostikoan identifikatutako gabezi edo ahultasunak kontuan hartu dira.
- Azkenik, Ekintza Plan hau eta 2010ean onartu eta indarrean dagoen Agenda 21eko Planarekin batu egin dira, **AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA** osatuz.

## PROZESUAREN GAKO NAGUSIAK

Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa egiteko prozesuak berezitasun edo gako ezberdinak izan ditu, horien artean, ondoko hauek azpimarratu daitezke:

- **Prozesu berritzaile eta eraginkorra.** Prozesua berritzailea izan da eta oso egoera berezi baten neurrira egin da. Honez gain, lana ahalik eta modu eraginkorrenean egin da, aurretik egina eta indarrean zegoen lan guztia aprobetxatuz, eguneratuz eta elementu berriei batuz.
- **Alkatearen lidergoa.** Alkatearen lidergoa eta inplikazio zuzena, prozesuaren gako nagusienetarikoa bat izan da. Hau dela eta, Plana datozen urteetako udalaren estrategia bihurtu da.
- **Indarra hartzen joan da.** Prozesuan zehar indarra hartzen joan den proiektua izan da eta hasiera batean berrikuste partzial bat izan behar zuen proiektuak, udalerriko Plan Estrategikoa izaten amaitu du.
- **Parte-hartze prozesu integratua:** parte-hartze prozesua kudeatzeko hiru mahai sortu dira, non herritarrak, udal eta eskualdeko teknikariak eta politikariak elkartu diren. Hiru mahaiak modu paraleloan egin dute lan prozesu osoan zehar, elkarren artean konexio puntuak lortuz.
- **Eskualdeko ikuspegia.** eskualdeko eragileek parte-hartze zuzena izan dute prozesu osoan zehar. Honek beste ikuspuntu bat eman dio proiektuari eta guztiz aberastu du.
- **Herritarren mahaia.** Herritarren inplikazioa eta erantzuna oso positiboki baloratu da, eta etorkizunera begira, kontuan hartu beharreko , talde eragile bat sortu dela esan daiteke. Parte hartzaileek, udalerria bere osotasunean ikusteko gaitasuna azaldu dute, bakoitzak dituen interes pertsonalak alde batera utzi eta udalerriko ondasun komuna helburu izan dute.

Alkatearen lidergoa eta parte-hartze prozesu integratua prozesu honen gako azpimarragarrienak izan direla aipa daiteke, etorkizunera begira, oinarri sendoak finkatu direlarik.

- **Planaren jarraipen eredua.** Urtero Planaren jarraipena egingo da, planteatutako helburuak zenbateraino betetzen ari diren neurtzeko eta, aldi berean, martxan jartzen ari diren ekintzekin zer nolako emaitzak lortzen ari diren baloratzeko. Honetaz gain, eta ebaluazioaren balorazioan oinarrituz, ondorengo urtean martxan jar daitezkeen jarduerak ere programatuko dira, aurrekontuekin lotzen saiatuz, horrela bakarrik bermatuko baita Planaren gauzatzea.

## PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

Parte-hartze planteamendua udalak jada martxan zituen mekanismoetan oinarrituta egon da. Herritarren parte hartze mekanismoa definitzeko garaian, *Denon Artean* prozesuarekin integratu nahi izan da, mekanismo paraleloak saihesteko.

Gauzak horrela, hiru mekanismo edo mahai sortu dira:



### Herritarren mahaia

Udalerrriaren sektore ezberdinak ordezkatzen dituzten eragile ezberdinez osaturiko taldea da (lehen sektorea, enpresa, hezkuntza,...). Alde batetik, *Denon Artean* prozesuan parte hartzen duten eragileak izan dira, beste eragile batzuk udaletik gonbidapen zuzena jaso dute, arlo desberdinek ordezkapena bermatzeko eta gainera, deialdi guztiak irekiak egin dira udalerriko edonori bertaratzeko aukera emateko.



## Teknikarien mahaia

Udal sail guztietako ordezkariak hartu dute parte, baita eskualdeko garapen ekonomikoaz eta landa garapenaz arduratzen diren erakunde ezberdinen ordezkariak ere.

## Politikarien mahaia

Talde honetan udal gobernu taldeak zein oposizioak parte hartu du. Prozesu osoan zehar, teknikari zein politikarien mahaian landutakoa Mahai honetara ekarri da, proiektuaren une garrantzitsuenen segimendua eginez.

## ARLO SOZIAL ETA EKONOMIKOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA: ONDORIO NAGUSIAK

Prozesu honen lehenengo pausua, udalerriko egoera sozial eta ekonomikoa aztertzea izan da. Horretarako Diagnostiko bat osatu da, gai edo eremu ezberdinen arabera egituratuta.

Jarraian, azterketa honen ondorio nagusiak hiru ataletan azaltzen dira: garapen ekonomikoa eta enplegua, eremu sozialak eta kultura, euskera eta kirolari buruzko eremuak. Bestalde, atal bakoitzeko informazioa balorazioaren arabera sailkatu da: positiboa (aurpegi berdea), erdi mailakoa (aurpegi horia) eta negatiboa (aurpegi gorria).

## Garapen ekonomikoa eta enpleguari dagokienez



- Azpeitian **Industria sektoreak** indar handia du. Herrian sortzen den Balio Erantsiaren %55 inguru industriatik dator, lurralde historikoan bigarren sektoreari dagokion BEGa %32ra baino ez da heltzen.
  - **Eskualdeko Enplegu Planean** etorkizunari begira garapen aukera handiak izan ditzaketen sektore emergenteak identifikatu dira: 3. adinari zuzenduriko zerbitzuak; Ekoteknologia, teknologia berdea eta jasangarritasun arloko jarduerak; Teknologia berriak eta mundu digitala; Gizarte ekonomia; Ekoizpen aurreratua; Nanozientziak eta material berriak.
  - Urola Kosta da Gipuzkoako eskualdeen artean **landa eremuak** pisurik handiena duena da. URKOME landa garapenaren aldeko lan garrantzitsua egiten ari da ekimen ugari martxan jarritz.
  - Azken urteotan, **turismo arloan**, hainbat ekimen jarri dira martxan bailarako gainerako udalerriekin elkarlanean (Ignaziotar Lurraldea, 5 Geltoki Historian...).
  - Biztanleriaren **balore positiboak**, besteak beste lanerako jarrera positiboa, ekintzailetasun kultura... Eta kohesioa eta elkarlanaren alde jada egin den lana.
- 
- Azpeitiko **udalak** ez du **arlo ekonomikoaren garapenaz eta enplegu arloaz** arduratzen den sail propiorik, beraz arlo honetan bailara osorako erreferentziazko erakundeek dihardute lanean (Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea, Loiola Berrikuntza Fundazioa).



- **Langabeziak** ez du arlo guztietan eragin bera izan, **bortitzen eragin dien taldeak**, gizonezkoena, 25-45 urte bitartekoena, erdi-goiko mailako ikasketak dituztenena, gazteena eta aurretiko lan esperientziarik ez dutenena izan dira.
- **Eraikuntza sektoreak**, enpleguari dagokionez, beste sektoreek baino galera txikiagoa izan duen arren, Azpeitiko industria eta zerbitzu sektoreko enpresa asko eta asko eraikuntza sektorearekin oso lotutako jardueretan aritzen dira eta hauek izan duten galera oso nabaria izan da.
- Krisia dela medio **epe luzeko langabetu** kopuruak gora egin badu ere, Gipuzkoako mailaren azpitik kokatzen da Azpeitia.
- Azpeitiak **baliabide turistiko eta erakargarritasun** ugari baditu ere, eskualde mailan egindako lanaz gain, beharrezkoa da **sustapena** egin eta bisitariak bertan geratzeko motibatzea.



- Krisi ekonomikoa hasi zenetik **establezimenduen itxiera** oso esanguratsua izan da. Guztira 209 establezimendu gutxiago daude 2012 urtean (%14,2ko murrizketa).
- **Ekintzailetzak** ere behera egin du krisia hasi zenetik, 2006-2007 aldian mila biztanleko 8-9 establezimendu berri sortzen ziren, egun erdira jaitsi da kopuru hori.
- Enpresen itxierarekin batera **enpleguak** ere beherantz egin du Azpeitian eta 2008 urtetik aurrera enpresetako enplegu galera etengabea izan da (1.034 enplegu galdu dira, %14,1a). Gipuzkoa bere osotasunean hartuta izan den batez besteko galera baino handiagoa da gainera (-%7,9).
- **Langabezia tasaren** igoera etengabea da, 2007an %5,1eko tasa izatetik 2012an %13,1ekoa izatera pasatu da. 2013ko martxoan jada %15,5ekoa da. Era honetan, aldi osoan zehar Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik egon ostean, Gipuzkoako tasa gainditzera iritsi da Azpeitia.
- Azpeitian, oro har, **tamaina oso txikiko enpresak**, familiartekoak asko eta asko, nagusitzen dira, merkatu oso lokaletan dihardutenak eta dinamismo eta teknologia baxukoak. Guzti hori dela medio enpresa hauek globalizazioaren aurrean egoera ahulean daude eta lehiakortasuna galtzen ari dira.
- **Alde Zaharra**, elementu erakargarri berezirik gabe, gainbehera etorri da, bizitasuna galdu du eta mugimendu komertziala murriztu egin da nabarmen.

## Eremu sozialei dagokienez



- Azpeitiko **jaiotza tasak** goranzko joera izan du azken urteetan eta gainera eskualdekoea eta Gipuzkoa mailakoa baino altuagoa da (%12,41).
- Azpeitiko biztanleria Gipuzkoakoa baino apur bat gazteagoa da, non **haur-indize** altuagoa eta **zahartze indize** baxuagoa erregistratzen diren.
- Ezintasunak dituzten pertsonei, osasun mentalari eta osasun zerbitzu orokorreiei dagokienez, baliabideen eskaintza nahiko egokia da Azpeitian.
- Azpeitian erakunde ezberdinetatik gizarte zerbitzuetara egiten den ekarpenak hazkunde oso nabarmena izan du azken urteotan.

|                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Gizarte zerbitzuetatik</b> kolektibo ezberdinetara zuzenduriko hainbat arlotan ekimen ugari jarri dira martxan (Esku-hartze psiko-soziala, emankumenganako indarkeriaren aurkako ekimenak –Arreta protokoloa-, Gizarteratze soziolaborala, 3. adina eta ezinduei zuzenduriko zerbitzuak...).</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Azpeitiko biztanleriak</b> azken urteotan joera gorakorra izan du eta azken hamarkadan, %5,6an hazi da; 2002 urtean baino 766 biztanle gehiago daude egun Azpeitian. Hala ere bailarako udalerrietan baino hazkunde txikiagoa izan du.</li> <li>• <b>3. adineko biztanleriari</b> zuzenduriko plaza kopuruak azken urteetan hazkunde nabarmena izan duen arren, eguneko zentroetako eta erresidentzietako hitzartutako plazen okupazio maila oso altua izan da 2012 arte. Hitzartu gabeko plazetan ordea okupazio maila baxuagoa izan da.</li> <li>• Azken urteotan <b>delitu indizeak</b> gora egin badu ere, Gipuzkoak orokorrean agertzen duena baino baxuagoa da.</li> <li>• <b>Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunari</b> dagokionez gauzak hobetzen doazen arren; emakumezkoen jarduera tasa Gipuzkoako eta EAEko tasen azpitik kokatzen da Azpeitian; eta euren lan baldintzek gizonezkoenak baino kaxkarragoak izaten jarraitzen dute.</li> </ul> |
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azpeitian <b>3. adineko biztanleriari</b> zuzenduriko baliabide eta azpiegiturak ez dira egun dagoen egoerarako egokienak ez filosofia eta ez egitura aldetik.</li> <li>• Ez dago etxebizitza tutelaturik, honek adinekoentzat eta pertsona ezinduentzat dauden aukerak mugatzen ditu.</li> <li>• Azken hamarkadan <b>atzeritarren</b> hazkundera etengabea izan da; Azpeitian 941 atzeritar bizi dira egun, biztanleria osoaren %6,5 osatzen dutenak, duela hamar urte baino 5 aldiz gehiago. Kolektibo honek oro har baliabide ekonomiko urriagoak izan ohi ditu eta hainbat kasutan integrazio arazoak ere bai.</li> <li>• Azken urteetan Azpeitian izandako <b>etorkinen hazkundera</b> eta 2008an sortu zen krisi ekonomikoak, gizarteko talderik ahulenetan laguntza ekonomikoen eskaria areagotzea ekarri dute (Oinarrizko Errenta eta GLL-en eskaria izugarri areagotu da).</li> </ul>                                                                           |

## Kultura, euskara eta kirol eremuei dagokienez

|                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azpeitiko <b>hezkuntza eskaintza</b> nahiko zabala da eta zentro hauetan matrikulatutako ikasleen kopurua %13,2an hazi da duela hamar urtetik hona.</li> <li>• <b>Hezkuntza mailarik</b> gehienetan eskaintza nahikoa izan daiteke eskariari erantzuteko, eta gainera, Azpeitiko ikastetxeak zenbait mailatan eskualdeko erreferente nagusi dira.</li> <li>• Azpeitiarren %85 inguru <b>euskaldunak</b> dira. Urola Kostaldean portzentaje hau ez da %77tik pasatzen eta Gipuzkoan berriz %53an kokatzen da.</li> <li>• Azpeitiko <b>kultura eta aisialdi ekipamenduen eskaintza</b> nabarmen indartu da eta kultur eskaintza ekintza desberdin eta orekatuz osatzen da.</li> <li>• <b>Kultur Mahaia</b>ren bidez, kultur dinamika herritarrean ez ezik, udalerriko kultur programazioan eta antolakuntzan ere aktiboki parte hartzen dute elkarteak.</li> </ul> |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

- Azpeitiarrak oso **kirolzaleak** dira eta kirol jardunean, oro har, parte hartze maila oso altua izaten da.



- **Lehen hezkuntzak**, eta batez ere **haur hezkuntzak**, nabarmen egin dute gora azken hamar urteotan. Lanbide heziketak aldiz beherakada nabarmena jasan du Azpeitiko ikastetxeetan.
- Hainbat arlotan **euskararen erabilera** erabat normalizatuta dagoen arren, badira oraindik hainbat gizarte esparru non oraindik ere euskararen erabilera mugatuagoa den, hala nola arlo sozio-ekonomikoa eta lan mundua.
- Behin behineko irtenbidea eman bazaio ere, **Soreasu antzokia** amaitu arte herriko kultur eta aisialdi arloko elkarteek ezingo dute espazio amankomun batean integraturik lan egin.
- **Kirol baliabideen** eskaintza askotarikoa bada ere, ez dago kirol ekipamendu eskaintza bateratua egiteko aukerarik, espazialki bata bestearengandik urrun baitaude; instalazioak gainera zaharkituta geratu dira.



- **Lanbide Heziketako azpiegiturak** ahulak dira, eskaintza mugatua da eta ez dira egungo enpresa sarearen errealitate eta beharretara ondo egokitzen.
- **Biztanleriaren hezkuntza maila** Azpeitian Gipuzkoan eta EAEn, oro har, dutena baino nabarmen baxuagoa da.
- **Eleaniztasunerako joera** mugatua da.
- Kirol arloko egitura eta organoek ez dute **plangintza zehatz** baten arabera lan egiten, ez dago Kirol Saileko Planik eta intuizio eta eskaeren arabera jartzen dira nagusiki ekimenak.
- **Gazte lokalen erabilera**, indarra hartzen joan da azken urteetan eta hauek arauturik ez daudenez arazoak sortzen dira gazte lokal hauek dauden gune askotan.



## II. ATALA: Diagnostikoa

### 1. SARRERA ETA AURREKARIAK

Azpeitia udalerri aitzindari izan da Euskadi mailan iraunkortasunaren arloan. Hasiera hasieratik, gai hauetan aurreratuago egon diren udalerriekin batera aurrerapausoak eman ditu, gainontzeko beste udalerrientzako eredu eta ispilu izanez.

Plan Estrategiko honen bitartez egungo premia-azko gabeziei erantzun azkarra eta zuzena eman nahi zaie eta, aldi berean, datozen urteetara begira, etorkizunerako norabidea zehaztu.

Iraunkortasunaren aldeko bide hau 2000. urtean egiten hasi zen, **Udaltalde 21 Pilotuaren** barruan. Azpeitia, beste taldekideekin batera, Euskadiko lehenengo Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak garatzen hasi ziren eta ondoren, 2002ko abenduan, **Udalsarea 21**, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, martxan jarri zuten. Azpeitiak, bere Agenda 21eko plana 2002ko urtarilean bukatu zuen, Udalbatzan, 2003ko urtarrilera arte onartu ez bazen ere. Esperientzia Pilotuan oinarrituta eta bertan ikasitakoa aplikatuz, EAEko beste udalerriek euren Agenda 21ak diseinatu eta abian jarri dituzte. Gaur egun 200 udalerri inguru dira Udalsarea 21eko partaide.

Urteak aurrera, Azpeitiko Udala iraunkortasunaren aldeko urratsak ematen joan da. Horrela, 2008an, zaharkituta gelditzen ari zen Ekintza Plana berrikusteko premia antzeman zen. **Bigarren belaunaldiko plana** egiteko apustua egin zen eta bidean ikasitakoa aplikatuz, Euskadi mailan gai honetan murgilduta zeuden beste eragile guztiekin bat eginez kalitatezko plana egiteko apustua egin zuen Azpeitiak. Berritze prozesuan, metodologia berri bat garatzeko eta pilotatzeko sortu zen lan taldean parte hartzeko aukera izan zuen Azpeitiko Udalak. 2008an hasi eta 2010eko otsailean bere **II Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana** onartu zuen. Plana, egun indarrean dago baina esan beharra dago, bigarren belaunaldikoa izan arren ingurumen eta lurralde gaiak bakarrik jorratu dituela.

Azken urteetan, Udalerriko **egoera sozial eta ekonomikoa nabarmen aldatu da**. Langabezia-tasa etengabe gorantz doa, Gipuzkoako batez bestekoa gaituz, eta gero eta familia gehiago dira udalaren laguntza behar dutenak aurrera jarraitzeko eta euren oinarritzko beharrak asetzeko. Garbi dago, beraz, egoera larri honen aurrean, udalak estrategia integral bat izatea derrigorrezkoa duela, udalerriko eragile guztiekin adostutako norabidea finkatuta.

Horretarako, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen berrikuspenetarako metodologian oinarrituta, **udalerriko arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen lehenengo diagnostikoa** egin da. Bertan, egungo egoera zein den aztertu eta ahulezi nagusiak mahai gainean jarri dira. Hortik abiatuta, datozen 8 urteetara begira, izaera estrategikoa duen Plana egin da. Honekin eta

indarrean zegoen Agenda 21eko Ekintza Plana uztartuz, **Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa** eratu da, udalerrria bere osotasunean hartzen duen Plana osatuz.

Plan Estrategiko honek **bi helburu nagusi** ditu, batetik, egungo arazo edo gabeziei erantzun zuzen eta azkarra eman eta, epe ertain eta luzera begira, udalerriko garapenerako iraunkortasun baloreak barneratzen dituzten oinarri sendoak finkatzea, bestetik.

## **2. AZPEITIKO ARLO SOZIAL ETA EKONOMIKOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA**

Diagnostikoa eremu ezberdinen arabera antolatuta dauden 7 fitxetan egituratzen da. Fitxa bakoitzak eremu zehatz baten egoera aztertu eta baloratzen du. Ondoren, balorazioa kontuan hartuta, identifikatutako ahultasun eta gabeziei aurre egiteko proposamenak edo lehentasunezko eremuak zehazten dira. Lehentasun hauek arlo soziala eta ekonomikoari buruzko Ekintza Planaren oinarria izan dira, hain zuzen.

Ondoko hauek dira jarraian azaltzen diren fitxak:

- Biztanleria
- Garapen ekonomikoa
- Lan merkatua
- Gizarte gaiak
- Parekidetasuna
- Etxebizitza
- Hezkuntza, Euskara, Kultura eta Kirola



# BIZTANLERIA

Aalborgeko konpromisoak:

9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA

## LURRALDE KOKAPENA ETA TESTUINGURUA




- Azpeitia, Aizarnazabal, Azkoitia, Beizama eta Errezilekin batera Urola Erdia eskualdean kokatzen da, Donostiatik 43 km ingurura.
- Eskualde honetan 31.000 biztanle inguru biltzen dira guztira, eta Azpeitiak %46-a osatzen du 14.500 biztanle ingururekin; eskualdeko herririk handiena da Azkoitiaren aurretik, zeinak biztanleen %37-a biltzen duen (11.400). Hauek biak dira hain zuzen ere eskualdeko erreferentziatzko bi udalerriak.
- Biztanleria dentsitatea 209,5 biztanle km<sup>2</sup>ko da, Gipuzkoakoa baino dezente baxuagoa (353 km<sup>2</sup>).

## BIZTANLERIAREN BILAKAERA



- Azpeitiko biztanleriak azken urteotan joera gorakorra izan du eta azken hamarkadan, %5,6an hazi da. 2002 urtean baino 766 biztanle gehiago daude egun Azpeitian, guztira 14.500 biztanle inguru.
- Hazkunde hau Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa izan bada ere (azken hamarkadan %4,1), eskualdeko gainerako herrietan, eta batez ere handienetan, joera gorakorra are indartsuagoa izan da; %10,5 Azkoitian eta %14,7 Zestean.




Iturria: INE. Udal Errolda

## MUGIMENDU NATURALA



- Azpeitiko biztanleriaren hazkunde hau neurri batean udalerriko hazkunde naturalak baldintzatzen du. Zentzu honetan, azken urteotan, herrian izan den jaiotza kopurua beti mantendu da heriotza kopuruaren gaineratik eta beraz, **hazkunde tasa begetatiboa** (hau da, jaiotze-tasa gordina eta heriotza-tasa gordinaren arteko diferentzia) **positiboa izan da**, nahiz eta bere gora beherak izan dituen.

- Ondoko grafikoan ikus daitekeen bezala, heriotza tasa nahiko egonkor mantendu bada ere, urtero 8 heriotza inguru mila biztanleko, **jaiotza tasak goranzko joera izan du** (2005eko %10,21etik 2011an %12,41era pasatuz) **eta gainera eskualdekoa eta Gipuzkoa mailakoa baino altuagoa da** (%11,52 eta %9,93 hurrenez hurren) Era honetan, hazkunde naturala dela eta 2010 urtean, batez beste 3 biztanle gehiago izan ziren Azpeitian mila biztanleko.
- Dena dela, aipatzekoa da, 2008-2009 urteak izan zirela jaiotze tasarik altuena erregistratu zutenak, %13 jaiotzarekin eta 2011ko beherakadaren ostean (%11,24) berriro ere errekupekatzen hasi dela.



## MIGRAZIO MUGIMENDUA



- Migrazio mugimendua izaten da biztanleriaren hazkundera eragiten duen beste faktore nagusia. **Azpeitiaren kasuan, bi urte jarraian migrazio mugimenduen ondoriozko saldoa negatiboa izan ostean, 2011 urtean 149 pertsonako saldo positiboa erregistratu da.**
- Balio positibo hau, EAEz kanpoko den biztanleriari zor zaio. Gainera azken 5 urteetan negatiboa edo oso baxua izan da barne saldoa, hau da EAEko biztanleriari dagokiona (jende gehiago joan da Azpeititik EAEko beste herri batzuetara -ziurrenik gehienbat eskualdekoetara bertara- EAEko beste herrietatik etorri dena baino).

### BARNE ZEIN KANPO MIGRAZIO MUGIMENDUEN BILAKAERA (PERTSONA KOPURUA)


| MIGRAZIO MUGIMENDUA       | 2006      | 2007       | 2008      | 2009       | 2010      | 2011       |
|---------------------------|-----------|------------|-----------|------------|-----------|------------|
| Barne saldoa <sup>1</sup> | 24        | -38        | -30       | -66        | -35       | 19         |
| Kanpo saldoa <sup>2</sup> | 44        | 15         | 40        | -16        | 29        | 130        |
| <b>Saldoa guztira</b>     | <b>68</b> | <b>-23</b> | <b>10</b> | <b>-82</b> | <b>-6</b> | <b>149</b> |

Iturria: Eustat

<sup>1</sup>EAEko beste herrietatik Azpeitira etortzen den pertsona kopurua ken Azpeititik EAEko beste herrietara joaten den pertsona kopurua

<sup>2</sup>EAEz kanpoko beste herrietatik Azpeitira etortzen den pertsona kopurua ken Azpeititik EAEz kanpoko beste herrietara joaten den pertsona kopurua

- Azpeitiko biztanleriak jasan duen hazkundera beraz, atzerritarren etorrerak azken urte hauetan izan duen gorakadaren eta jaiotza tasa positiboen ondorio da nagusiki.
- Atzerritar biztanleriaren bilakaerari erreparatzen badiogu, ikus daiteke azken urteotan berebiziko indarra hartzen joan dela; 2003 urtean biztanleriaren %1,83a baino ez zuten osatzen atzerritarrek, 2012 urterako portzentaje hau %6,49raino igo da.
- Era honetan, ia aldi osoan zehar Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik kokatu bada ere, 2012 urterako Gipuzkoako balio bera izatera heldu da (%6,49 Azpeitian eta %6,47 Gipuzkoan).



*Iturria: Udalmap*



- Alabaina, kanpo migrazio saldoa (atzerritik datorren pertsona kopurua mila biztanleko) oraindik ere Azpeitian (%2,02) Gipuzkoan (%3,75) baino zertxobait baxuagoa da.

## EGITURA DEMOGRAFIKOA



- Azpeitiko egitura demografikoa Gipuzkoako biztanleriak oro har duen egituraren oso antzekoa da, non biztanleria helduak (35-54 urte) duen pisurik handiena, baina hirugarren adinak ere (65 urtetik gorakoak) kopuru esanguratsua osatzen duen.


## BIZTANLERIAREN EGITURA DEMOGRAFIKOA 2011



| Adina | Azpeitia (%) |              | Gipuzkoa (%) |              |
|-------|--------------|--------------|--------------|--------------|
|       | Gizonezkoak  | Emakumezkoak | Gizonezkoak  | Emakumezkoak |
| 0-14  | 8,4          | 8,0          | 7,4          | 7,1          |
| 15-24 | 4,9          | 4,8          | 4,3          | 4,1          |
| 25-34 | 7,0          | 6,4          | 6,6          | 6,3          |
| 35-44 | 8,3          | 7,6          | 8,5          | 7,9          |
| 45-54 | 7,2          | 7,2          | 7,6          | 7,6          |
| 55-64 | 6,2          | 6,1          | 6,3          | 6,5          |
| 65-74 | 4,6          | 4,6          | 4,5          | 5,1          |
| 75-84 | 2,9          | 3,5          | 3,0          | 4,4          |
| 85>   | 0,9          | 1,5          | 0,8          | 2,0          |


Iturria: Eustat

- Dena den, indize demografikoak alderatuz zera ondoriozta daiteke, Azpeitiko biztanleria Gipuzkoakoa baino apur bat gazteagoa dela:
  - Azpeitian zahartze zein gain-zahartze indizeak Gipuzkoan baino zertxobait baxuagoak baitira (ehuneko puntu bana inguru); hau da, 65 eta 75 urtetik gorako biztanleriak, arinki bada ere, Azpeitian Gipuzkoan baino presentzia txikiagoa du.
  - Azpeitian 14 urtetik beherako gazteen portzentajea, hau da, haur-indizea, Gipuzkoan baino apur bat altuagoa baita (16,39 Azpeitian eta 14,491 Gipuzkoan).



Iturria: Udalmap

- Indize hauek azken urteetan izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu, bai haur-indizeak eta bai zahartze indizeak joera gorakorra dutela ikus daiteke. Bi kasuetan hazkundera nahiko motela izan bada ere, badirudi zahartze indizearen kasuan apur bat handiagoa izan dela, batez ere azken 3 urteetan.



*Iturria: Udalmap*

### BIZTANLERIAREN LURRALDE BANAKETA



- Azpeitian erdigunetik kanpo 7 auzo ezberdin bereiz daitezke -Aratz Erreka (5 Km); Eizagirre (9 km); Elosiaga (5 km); Izarraitz (3,5 km); Loiola (4 km); Odria (5,5 km); Oñatz (5 km)- eta erdigunea bera beste 15 bat auzo edo gune ezberdinek osatzen dute (Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduko Sailaren arabera).
- INEn eskuratu ahal izan diren datuen arabera, hirigunean bertan bizi da biztanleen %87 inguru; Loiola auzoko erdigunean 364 bat biztanle eta Urrestillan beste 354 bat bizi dira (biztanleriaren %5 inguru); biztanleriaren %8 inguru (1.266 biztanle) barreiaturiko ingurunetan bizi da.

## AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

**Lotutako lerro eta programak** (*Lotutako lerro eta programen kodeari eta izenburuari egindako erreferentziak*)

- Ez dira identifikatu

**Indarrean baina garatzeke dauden ekintza garrantzitsuak**

- Ez dira identifikatu

## LOTUTAKO PLANAK ETA ARAUDIAK

**Udal mailan**

- Ez dira identifikatu

**EAE mailan**

- Ez dira identifikatu

## EKINTZAK EGITEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

**Udalaren eskumenekoak**

- Ez dira identifikatu

**Udalaz gaindiko eskumena**

- Ez dira identifikatu

## GARAPEN EKONOMIKOA


Aalborgeko konpromisoak:

8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA

### EKONOMIAREN EGITURA ETA JARDUERA MAILAREN BILAKAERA




- Azpeitiko enpresa sareak 2008 urtean izan zuen establezimendu gehien. Ondoren krisi ekonomikoa hasi zenetik enpresak ixten joan dira, murrizketa -%14,2koa izan delarik, hau da, **guztira 209 establezimendu gutxiago daude 2012 urtean** (lehen sektorea kontuan hartu gabe). Hala eta guztiz ere, establezimenduen beherakada hau Gipuzkoak izan duena baino txikiagoa izan da (-%15,5).




*Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen bilakaera*

- Beherakada honek ez du esan nahi Azpeitian enpresarik sortu ez denik, baina bai krisia hasi denetik itxi den enpresa kopurua sortu diren enpresa berriena baino handiagoa izan dela. Azpeitiko enpresen demografia azterketak agerian uzten du 2011 urtean esaterako, mila biztanleko 4,5 enpresa sortu zirela udalerrian, hau da, 65 bat enpresa (2007an sortu zen enpresa kopuruaren erdia), itxi zen enpresa kopurua ordea nabarmen altuagoa izan zen, mila biztanleko 8,2 inguru, hots, 117 enpresa.




*Iturria: Udalmap*

- Datu hauek argi uzten dute, **ekintzailtzak behera egun duela krisia hasi denetik** 2006-2007 aldian mila biztanleko 8-9 establezimendu berri sortzen ziren, egun erdira jaitsi da kopuru hori (!).
- **Enpresen itxierarekin batera enpleguak ere beherantz egin du Azpeitian** eta 2008 urtetik aurrera enplegu galera etengabea izan da. Guztira, krisia hasi zenetik  $-\%14,1$  enplegu galdu dira herriko enpresetan, hau da, 1.034 enplegu hain zuzen ere, eta datu honek Gipuzkoa bere osotasunean hartuta izan den batez besteko galera baino handiagoa adierazten du ( $-\%7,9$ ).



*Iturria: Udalmap*

- Enpleguaren urtez urteko bilakaerari erreparatzen badiogu, argi ikusten da ondorengo grafikoan, 2005-2007 aldian izan zen enpleguaren hazkunde garrantzitsuen ostean (non batez beste urtean  $\%4$  inguru hazten zen), 2008tik aurrera balio negatiboak hartzen hasten dela; 2009 eta 2010 urteetan  $\%4,7$  eta  $\%4,8$ ko galera izan zuen hurrenez hurren. Badirudi pixkanaka bada ere, azken urteetan egoerak zertxobait hobera egin duela (enplegu zifraren urte arteko aldakuntza  $-\%2,24$ ra murriztu da).




*Iturria: Udalmap*

- Enpresa kopuruaren galera enplegu kopuruarena baino txikiagoa izateak adierazten du Azpeitian ez direla enpresa oso txikiak soilik itxi, enpresa ertain eta handiak ere arriskuan baitaude krisia dela eta. Horren adierazgarri da esaterako Corrugados enpresak (300 langile dituen) bizi duen ziurgabetasun eta arrisku egoera.

## EREDU EKONOMIKOA: SEKTORE EGITURA ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN MAILA




- Egun Azpeitian, establezimendu kopuruari dagokionez oso nabarmena da zerbitzu sektorearen pisua, Azpeitiko 10 establezimendutatik 7 sektore honetakoak baitira. Eraikuntzak jarraitzen dio establezimenduen %15 ingururekin eta industriak %12arekin. Egitura hau Gipuzkoak duenaren nahikoa antzekoa da, nahiz eta Azpeitian industriak lurralde historikoa bere osotasunean hartuta baino pisu handiagoa duen (%12 Azpeitian eta %8,5 Gipuzkoan).




Iturria: Udalmap

- Balio erantsiari dagokionez ordea, gauzak asko aldatzen dira, Azpeitian sortzen den Balio Erantsiaren %55 inguru industriatik dator, eta zerbitzu sektoreari BEGaren %35 baino ez dagokio. Gipuzkoarekin alderatuz, Azpeitian industria sektoreak konparatiboki duen indarra argiago ikusten da oraindik, lurralde historikoan bigarren sektoreari dagokion BEGa %32an geratzen baita eta zerbitzu sektoreak duen pisuak aldiz ia %60 osatzen baitu.




Iturria: Udalmap

- Sektorekako pisuaren bilakaerari erreparatzen badiogu, nahiko egonkor mantendu da Azpeitiko egoera, gora behera handiegirik gabe. Aipagarriena eraikuntzaren kasua da, zeina oraintsu arte industriak eta zerbitzu sektoreak galdu duten pisua bereganatuz joan den (honek ez du esan nahi eraikuntzak galerarik izan ez duenik, baizik eta gainerako sektoreek galera handiagoa izan dutela). 2012an ordea, badirudi, gainerako zonaldean sektore honek hasi duen dinamikari jarraituz, Azpeitian ere beheranzko joera hartzen duela.



*Iturria: Udalmap*


- Balio erantsiari dagokionez, industria, duela urte batzuk jasan zuen igoera esanguratsuaren ostean, berriro ere 2000 urteko mailan kokatzen da (2005ean BEGaren %61,5 izatetik 2008an %55 izatera pasatzen da berriro ere). Zerbitzu sektorea izan da hala ere prozesu honetan kaltetuen suertatu dena, ehuneko ia 4 puntuko galerarekin; 2000 urtean sortutako BEGaren ia %39 osatzen 2008an %35era jaitsiz (establezimendu kopurua haziz joan bada ere sortzen duten balio erantsia beste sektoreetan baino askoz baxuagoa da). Eraikuntza sektorea aldiz, indarra hartuz joan da aldi osoan zehar, 2008an BEGaren ia %10 osatzera helduz (2000 urtean ez zuen %5,3 baino osatzen).



*Iturria: Udalmap*


- Ohiko sektore edo jardueraz gain, Eskualdeko Enplegu Planean eskualdeko sektore emergente bezala identifikatu dira: Hirugarren adinari zuzenduriko zerbitzuak; Ekoteknologia, teknologia berdea eta jasangarritasun arloko jarduerak; Teknologia berriak, konektibitatea eta mundu digitala; Gizarte ekonomia; Ekoizpen aurreratua; Nanoteknologia, nanozientziak, bioteknologia eta material berriak. Arlo guzti hauek etorkizunari begira garapen aukera handiak izan ditzakete.
- Azpeitiko enpresen ezaugarri orokorreari dagokienez, esan beharra dago, **tamaina oso txikiko enpresak, familiartekoak asko eta asko, direla nagusi**. Enpresen hiru laurdenean 2 langile baino gutxiago dituzte eta hauei 10 langile arteko enpresak gehitzen badizkiegu, 10 enpresatik 9 dira tamaina honetakoak. Azpeitiko enpresen batez besteko tamaina dena den Gipuzkoako batez bestekoaren antzekoa da.

- Eskualdeko Enplegu Plana dela eta burutu den diagnostikoaren arabera, errealitate hau ez da Azpeitira mugatzen, eskualdeko enpresa gehienak Mikropymeak dira, merkatu oso lokaletan dihardutenak eta dinamismo eta teknologia baxukoak. Guzti hori dela medio enpresa hauek globalizazioaren aurrean egoera ahulean daude (kanpora ateratzeko arazoak), lehiakortasuna galtzen ari dira eta deslokalizazioak gertatzeko arriskuan daude. Hauen egoera benetan larria da (!).



*Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen bilakaera*

- Forma juridikoari dagokionez, erdia baino gehiago autonomoak dira (%55), laurden bat inguru (%27,3) baltzu mugatuak dira eta %4,4 baino ez baltzu anonimoak. Gainerakoak beste era batzuetako elkarte eta baltzuak dira. Gipuzkoako enpresen egituraren oso antzekoa.




*Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen bilakaera*

## ONGIZATE EKONOMIKO ETA FAMILIARRAREN MAILA



- Azpeitiarren errenta mailak etengabeko igoera izan du azken urteotan eta 2009 arte gainera jasan duen hazkundera gero eta handiagoa izan da (2003-2006 aldian azpeitiarren errenta %11,5ean hazi zen, 2006-2009 aldian oraindik handiagoa izan zen hazkunde hau, %29,1ekoa hain zuzen ere). Datu eguneratuagorik eskuragarri ez badago ere, zentzuzkoa dirudi, egun, krisia dela medio, hazkunde hau geldotu egin dela pentsatzeak.

- Azpeitiko biztanle bakoitzak batez beste 20.680€-ko errenta zuen 2009 urtean, gipuzkoarren batez bestekoaren oso antzekoa (20.270€). Famili errentari dagokionez, hau 47.456€-raino igotzen zen.



Iturria: EUSTAT

## AZTERKETA SEKTOREZ SEKTORE

### LEHEN SEKTOREA



#### Sektorearen egitura

- Azpeitian guztira 400 baserritik gora daude, Gipuzkoako erregistroan errolatuta dauden datuen arabera 2010ean hauek ziren, jarduera ezberdinen arabera banatuta:

|                    |     |
|--------------------|-----|
| Nekazaritzakoak    | 31  |
| Abeltzaintzakoak   | 211 |
| Bietakoak          | 106 |
| Baso-ustiapenekoak | 55  |

Iturria: URKOME

- Hauen artean, INEk egiten duen nekazal erroldaren arabera 2009an 218 ziren nekazal ustiategi bezala erregistratuta zeudenak eta 2.880,77 Ha-ko azalera betetzen zuten. Ustiategi hauetako gehienetan, nekazaritza zein abeltzaintzako jarduerak burutzen dira (ustiategi guztien %83,5etan).
- Nekazaritzako jardunari dagokionez, eta labore motari buruz ari garelarik, aipatzekoa da ustiategien gehiengoan bere azaleraren zati handi bat larreek betetzen dutela (198 ustiategik dituzte larreak eta udalerriko nekazal azalera osoaren ia erdia estaltzen dute larre hauek, 1.281,5 Ha). Baratza eta Zuhaitzek osatzen duten azalera 31 Ha inguruan kokatzen da.

## USTIATEGI KOPURUA ETA AZALERA LABORE MOTAREN ARABERA

|                                        | Ust. kopurua | Azalera         |
|----------------------------------------|--------------|-----------------|
| Erroldatutako ustiapen kopurua guztira | <b>218</b>   | <b>2.880,77</b> |
| Belarkara (Ha)                         | 110          | 282,24          |
| Baratza (Ha)                           | 127          | 2,19            |
| Zuhaitzak (Ha)                         | 143          | 29,45           |
| Larreak (Ha)                           | 198          | 1.281,50        |
| Bestelako lurak (Ha)                   | 196          | 1.285,39        |

Iturria: INE. Nekazaritza Errolda

- Abeltzaintzari dagokionez, ustiategien gehiengoak hegaztiak, abelgorriak eta ardi-aziendak dituzte, ustiategien %56,4,%47,7 eta %40,8 hurrenez hurren. Ustiategi hauetan dagoen abere kopuruari dagokionez, 33.140 dira guztira, batez beste 150 inguru ustiategi bakoitzeko. Gehiengoak hegaztiak (%71,7), ardi-azienda (%21,1) eta Abelgorriak (%5,6) dira.


## USTIATEGI KOPURUA ABERE MOTAREN ARABERA

|                                        | Ust. kopurua | %    | Abere kop. |
|----------------------------------------|--------------|------|------------|
| Erroldatutako ustiapen kopurua guztira | <b>218</b>   |      | 33.140     |
| Abelgorria                             | 104          | 47,7 | 1.849      |
| Ardi-azienda                           | 89           | 40,8 | 6.980      |
| Ahuntz-azienda                         | 19           | 8,7  | 174        |
| Zaldi-azienda                          | 42           | 19,3 | 253        |
| Txerri-azienda                         | 13           | 6,0  | 42         |
| Hegaztiak                              | 123          | 56,4 | 23.764     |
| Untxi emeak                            | 12           | 5,5  | 72         |
| Erlauntzak                             | 1            | 0,5  | 6          |

Iturria: INE. Nekazaritza Errolda

## Jarduera mailaren bilakaera

- Azpeitian ere lehen sektoreak**, oro har azken urteetan izan duen joerari jarraiki, **bilakaera negatiboa izan du (!)**; 2009ko erroldaren arabera, Azpeitian 218 nekazal ustiategi zeuden guztira, 1999an egindako erroldan jasotako ustiategien erdia inguru (451 ustiategi guztira).
- Ustiategi kopuruak ez ezik, **lehen sektorean lanean ari den pertsona kopuruaren pisuak ere behera egin du apurka apurka**. 2006 urterako jada 58 langile baino ez ziren ari lanean lehen sektorean.



Iturria: Eustat

- Nekazaritzako Lan Unitateei-NLU<sup>1</sup> erreparatzen badiegu, non nekazaritza arloko langile okupatuez gain, nekazal ustiategietan lan egiten duten gainerako pertsonen lan jarduna ere kontuan hartzen den (familia laguntza etab.), zifra hauek nabarmen egiten dute gora. Horrela 2009 urtean 220 NLU inguru kontabilizatu ziren Azpeitian (lanaldi osoan 220 lagun lanean aritzearen baliokidea), eta hauen artean soldatapekoak %1,8 soilik ziren. Zifra hauek argi uzten dute beraz, **nekazaritza jardun hutsean diharduten langile okupatuak eta soldatapeko langileak oso gutxi direla eta nekazal jarduna batez ere familiarteko lanean oinarritzen dela (!).**
- **Jabegoari dagokionez, nabarmena da gizonezkoen nagusitasuna**, ustiategien %30 ingurutan baino ez da titularra emakumezkoa.
- Langabeziari dagokionez ere, eta zifrak oso baxuak diren arren, krisiaren hasieraz geroztik gora egin du sektore honetako langabetu kopuruak (2008an 5 langabetu izatetik 2012an 19 izatera pasatuz).
- Sektoreko kontratazio maila ere oso baxua izan da azken urteotan, 2009-2011 aldian urteko batez beste 15 kontratu sinatzen ziren, 2012 urtean apur bat igo da 22 kontratu sinatu direlarik. Krisia hasi denetik beraz, 68 kontratu baino ez dira sinatu sektore honetan.
- Hori guztia dela eta, Nekazaritza arloarekin erlazionaturiko BEGak ere behera egin du azken urteetan, 2008an sektore honek %0,42ko ekarpena baino ez zuen egin Azpeitian. Dena den aipatzekoa da, Urola Kosta dela Gipuzkoako eskualdeen artean Nekazal arloko BEG-ari ekarpenik handiena egiten diona (2005eko datuen arabera Urola Kostan BEG-aren %2,2 osatzen zuen nekazaritzak, Tolosaldea kenduta, gainerako eskualde gehienetan nekazaritzaren pisua %0,5-%1en artean kokatzen zen bitartean). Azken urteetan galera nabarmena izan badu ere, nekazaritza arloak eskualde honetan oraindik ere garrantzi berezia izaten jarraitzen du.

### Dinamismoa eta ondorengotza

- Ondorengotzari dagokionez, nekazal arloak azken urteetan egoera nahiko zaila bizi du, nahiz eta arlo honetako erakundeetatik zenbait saiakera egin diren gazteak sektore honetara erakartzeko. Azpeitiko nekazal ustiategien %63,8an ustiategiko titularrak 55 urtetik gora ditu (%86ingurutan 45 urtetik gora) eta 7 ustiategitan baino ez ditu titularrak 35 urtez azpitik. Egoerak hobera egiten ez badu, ustiategi jabe hauetako asko nekazal jardunean jarraituko duen ondorengorik gabe geratuko da (!).
- Badira, dena den, Azpeitiaren kasuan zenbait datu aipagarri eta baikor kontuan hartu beharrekoak:
  - Udalerriko 12 ustiategik eraldaketa prozesu propioak dituzte martxan
  - 27 ustiategik ingurumen neurriak hartzen dituzte
  - 2 ustiategik Ekoizpen ekologikoa burutzen dute
  - Idiazabal jatorri-deitura duten ustiategiak 13 dira
  - Eta arlo ezberdinetan Eusko-Labela duten ustiategiak guztira 92 dira

<sup>1</sup> Pertsona batek nekazal jardunean lanordua osoan lanean ariko balitz egingo lukeen lanaren baliokidea

## Lehen sektorean lanean diharduten erakundeak eta euren programak


- URKOME, Urola Kostako landa garapenaren alde lan egiten duen elkarte da, eskualdeko 11 udaletxeek eta landa eremuko 22 elkartek osatutako irabazi asmorik gabeko erakundea da. Urola Kostako herri txiki eta auzoak suspertzera bideratutako ekintzak burutzen ditu, horretarako, dirulaguntza ildo desberdinak jorratuz eta bertako teknikarien aholkularitza, bitartekaritza eta koordinazioa eskeiniz.
- Urkomek buruturiko jarduerak, Landa Garapen Programan onartutako bost garapen ardatzetan oinarritzen dira:
  - Nekazaritza Jardueraren Garapena
  - Landa eremuetako Bizi kalitatearen hobekuntza
  - Aktibitate ekonomikoaren dibertsifikazioa
  - Landa eremuak betetzen dituen funtzioen zehaztapena eta errekonozimendua
  - Landa Garapen Elkarteen egituraren egokitzapena
- Aldian aldiko Europan indarrean dauden Landa garapen programak oinarritzat hartuz, URKOMEk urtero bere kudeaketa plana egiten du. 2007-2013 aldiko programa amaitzeaz gain dago eta 2014-2020 epealdirako Europak zehazten duenaren arabera eskualdeko programazio berria egiteko garaia heldu da (!)
- Orain arte burutu duen programazioaren barne, URKOMEk, diru-laguntza programa ezberdinen inguruko informazioa eskaini eta zenbait kasutan kudeatzeaz gain (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza-EREIN, LEADER eta beste hainbat erakunderen diru-laguntzak), hainbat esparrutan lan egin du proiektu ezberdinak gauzatuz: Lehen sektorea; Dibertsifikazio ekonomikoa; Bizi-kalitatea (azpiegiturak, hornikuntza eta zerbitzuak); Landa eremuen dinamizazioa; Ingurumen jasangarritasuna; Landa Turismoa; Erakundeen arteko lankidetzak; etab.
- Horien artean aipagarriak dira besteak beste: URKOMEk lagunduta martxan jarri den **on line salmenta plataforma** bat, eskualdeko ekoizle txikiei laguntzeko; **Berpiztu Programa** zailtasunak dituzten landa eremuko zonaldeei laguntzeko (Azpeitian garatu da jada); **URKOME Sariak** eskualdeko proiekturik onenak saritzeko (jarraipena egiten zaio, enpresa plana burutzen lagundu...), **Energia berriztagarriak** bultzatzeko proiektua; **Nekazal eta landa turismoaren garapena** (baserrietara bisita gidatuak) Turismo arloarekin elkarlanean...

## INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA



### Sektorearen egitura

- Azpeitian industria eta eraikuntza sektoreko 374 enpresa daude guztira 2012 urtean; 152 dira industria arlokoak eta 187 eraikuntzakoak. Azpeitiko establezimendu guztien %12 eta %14,8 osatzen dute hurrenez hurren.
- Industria enpresei dagokienez, manufaktura industria nagusitzen da guztien artean, ia establezimendu guztiak mota honetakoak dira. Jarduera nagusiak metal-mekanika (enpresa industrialen %38,8), eta egurra eta altzarigintzarekin (%31,8) erlazionaturikoak dira.




*Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen bilakaera*

- Gainontzeko enpresa industrialak elikagaien ekoizpena, papera eta arte grafikoak, metala ez den beste materialen lanketa, ehungintza eta larrugintza etab. bezalako arloetan aritzen dira, guztien artean %30 osatzen dutelarik.
- Arestian aipatu dugu Azpeitiko enpresen tamaina, oro har, oso txikia dela. Dena den, logikoa denez, industria arloko enpresak handiagoak izaten dira eta Azpeitiaren kasuan gainera Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik kokatzen dira (15,8 langile batez beste Azpeitian eta 13,9 Gipuzkoan). Kasu honetan enpresen heren bat inguruk 10 langile baino gehiago ditu eta 12 bat enpresak 50 langiletik gora.
- Enpresa hauek udalerriko industrialde ezberdinetan biltzen dira (guztira 20 bat gune ezberdinetan sakabanatuak). Udalerriko enpresarik garrantzitsuenak egurra eta altzarigintzan (Astigarraga Kitline S.L., Danona, S.Coop., Grumal, S.L., Lan Mobel, S.Coop., etab.) eta metal-mekanika arloan (Biele S.A., Glual Hidráulica, S.L., Sarralle Equipos Siderúrgicos, S.L.) aritzen dira.

#### **Ekonomiaren bizitasuna eta errendimendua (Jarduera mailaren bilakaera)**

- Krisi ekonomiko egoera honetan, baldintzak ez dira xamurrak, eta batez ere gogorra izan da eraikuntza sektorearentzat eta honekin lotutako industria arloko beste hainbat eta hainbat enpresentzat (horien artean egurra eta altzarigintzarekin lotutakoak, zeinak esan bezala Azpeitian pisu berezia duten). 2008az geroztik eraikuntzako 83 enpresa gutxiago daude, eta horrek, %30,7ko beherakada bat suposatzen du. Horrela, guztira, 2012an 187 eraikuntza establezimendu zeuden.
- Industria sektoreari dagokionez ere, enpresen itxiera nabarmena izan da eta esan bezala batez ere altzarigintzan eragin du, 2008az geroztik %9,5eko beherakada izan baita, hots, 16 enpresa gutxiago.

- Aipatzekoa da hain zuzen ere egurra eta altzarigintzarekin lotutako sektorea dela herrian krisiaren eraginik handiena pairatzen ari dena, eraikuntza sektorearekin oso lotutako sektorea izaki, bai enpresa handiek eta bai familiarteko enpresa txikiek ere gogor nozitu dute azken urteotako beherakada. Gainera, azken urteotan, azpisektore honetako eta baita beste arlo batzuetako herriko hainbat enpresa garrantzitsu itxi egin dira edota kinka larrian daude (Azcue y Compañía, S.A. edo Corrugados-en kasuak esaterako) (!).



ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA 2008-2012

|                | Azpeitia   |            |                 | Gipuzkoa        |
|----------------|------------|------------|-----------------|-----------------|
|                | 2008       | 2012       | Δ%<br>2008-2012 | Δ%<br>2008-2012 |
| Industria      | 168        | 152        | -%9,5           | -%10,5          |
| Eraikuntza     | 270        | 187        | -%30,7          | -%31,3          |
| <b>Guztira</b> | <b>438</b> | <b>339</b> | <b>-%22,6</b>   | <b>-%24,9</b>   |

*Iturria: EUSTAT. Jarduera ekonomikoen bilakaera*


- Enpresa txikiak egoera larriagoan daude oraindik, hauen tamaina oztopo bat izaten da kasu askotan bertako merkatuan lehiatzeko eta baita kanpora ateratzeko ere. Dibertsifikazio prozesuetan ere antzeko zailtasunekin egiten dute topo (!).
- Langabeziak ere neurri berean eragin die, %95,5ean hazi da langabetu kopurua industrian (krisia hasi zenean baino 150 langabetu gehiago) eta %79,4an eraikuntzan (kasu honetan oraindik ere langabetu kopurua industrian baino txikiagoa da, guztira 61 langabaturekin).

## ZERBITZUAK



### Sektorearen egitura

- Zerbitzu sektoreak udalerriko enpresen %73 inguru biltzen du, guztira 925 establezimendu 2012 urtean.
- Establezimenduon erdia baino gehiago merkataritza, garraio eta ostalaritzari dagokio (%55,4). Ondoren, baina diferentzia handiarekin, jarduera profesionaleko establezimenduak (%16,4) eta bestelako zerbitzuak (%11,5) kokatzen dira. Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasun establezimenduek, jarraitzen diete, establezimenduen %10,7rekin.



*Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen bilakaera*

#### Ekonomiaren bizitasuna eta errendimendua (Jarduera mailaren bilakaera)

- Establezimenduen bizitasuna kontutan hartzen bada, aipatzekoa da krisia hasi zenetik, sektore honetan ere establezimendu galera garrantzitsua izan dela, 104 establezimendu gutxiago daude egun 2008an baino (-%10,1). Dena den, murrizketa hori Gipuzkoak bere osotasunean jasan duena baino zertxobait txikiagoa da, (-%11,4).

#### ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA 2008-2012

|                                               | Azpeitia     |            |              | Gipuzkoa     |
|-----------------------------------------------|--------------|------------|--------------|--------------|
|                                               | 2008         | 2012       | Δ% 2008-2012 | Δ% 2008-2012 |
| Merkataritza, garraio eta ostalaritza         | 574          | 512        | -10,8        | -12,4        |
| Informazioa eta komunikabideak                | 14           | 10         | -28,6        | -12,2        |
| Finantzak eta seguruak                        | 37           | 34         | -8,1         | -3,8         |
| Higiezin enpresa                              | 28           | 12         | -57,1        | -32,6        |
| Jarduera profesionalak                        | 167          | 152        | -9,0         | -6,6         |
| Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna | 91           | 99         | +8,8         | +4,6         |
| Bestelako zerbitzuak                          | 118          | 106        | -10,2        | -23,0        |
| <b>Guztira</b>                                | <b>1.029</b> | <b>925</b> | <b>-10,1</b> | <b>-11,4</b> |

*Iturria: EUSTAT. Jarduera ekonomikoen bilakaera*

- Establezimendu gehien higiezin enpresen arloan galdu da, %57,1eko murrizketarekin, Gipuzkoan baino murrizketa nabarmen handiagoa (-%32,6). Krisia gehien nozitu duen beste azpisektoreetako bat informazio eta komunikabideena izan da, 28,6ko murrizketarekin (hau ere Gipuzkoakoa baino ehuneko 16,4 puntu altuagoa).

- Azken urte hauetan hazkundea izan duen azpisektore bakarra, administrazio publikoa, hezkuntza eta osasunari dagokiona izan da, %8,8ko hazkundea izan duelarik. Aipatzekoa da, apalago izan arren, Gipuzkoan ere hazi egin dela (+%4,6).
- Langabezi mailari dagokionez, zerbitzuetan, aurreko bi sektoreetan baino indar handiagoz hazi da; krisia hasi zenetik bikoiztu baino gehiago egin da langabetu kopurua sektore honetan.

### Merkataritza

- Hiri ekonomian duen garrantzia dela eta, atal berezi bat eskaini zaio merkataritza arloari. Arlo honetan, Iraurgi Lantzen Eskualdeko Garapen Agentziaz gain, Bertan Azpeitiko Merkataritza Elkartek dihardu lanean eta 110 bazkide ditu egun (guztiak merkataritza). Zerbitzu ugari eskaintzen die elkarte honek bere bazkideei: Informazioa, aholkularitza, asistentzia, web orria, kanpainak (diseinatu eta prestatu), deskontu txartela (Fidelizazio txartela), stock azoka, prestakuntza (eskaeren arabera)... Askotan ordea, baliabide eskasia dela eta gauzak egiteko aukerarik gabe geratzen dira (!)
- Txikizkako merkataritzari dagokionez, esparru desberdinetako establezimenduak aurkitzen dira Azpeitian.
- Nagusienak janaria, edaria eta tabakoa saltzen dituzten establezimenduak dira, guztira 69 saltoki daudelarik eta establezimendu guztien gainean %28,5 suposatzen dutelarik. Jarraian ekipamendu pertsonala saltzen duten establezimenduak dira ugarien, guztira 59 saltoki direlarik (%24,4). Jarraian etxeko ekipamendua dator, 46 establezimendu (%19).

MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK JARDUERAREN ARABERA 2012

| Jarduera                      | Kopurua    | %            |
|-------------------------------|------------|--------------|
| Janariak, edariak eta tabakoa | 69         | 28,5         |
| Ekipamendu pertsonala         | 59         | 24,4         |
| Teknologia eta komunikazioak  | 5          | 2,1          |
| Etxeko ekipamenduak           | 46         | 19,0         |
| Aisialdia eta kultura         | 18         | 7,4          |
| Farmazia eta drogeria         | 22         | 9,1          |
| Bestelako merkataritza        | 23         | 9,5          |
| <b>Guztira</b>                | <b>242</b> | <b>100,0</b> |

Iturria: Eustat

- Krisiak arlo honetan ere gogor eragin du, establezimenduen bilakaerari dagokionez, farmazia eta drogeria establezimenduak izan dira 2008az geroztik kopurua gehitu duten bakarrak (establezimendu bat gehiago). **Gainerako kasu guztietan establezimendu kopuruak behera egin du:** Janari, edari eta tabako salmentan aritzen diren establezimenduak (4 gutxiago), Ekipamendu pertsonala (4 gutxiago), Etxeko ekipamendua (6 gutxiago)...
- Alde Zaharra da problematarik handiena duena, herria handituz joan den heinean, zerbitzu asko erdialdera eta kanpoaldera eraman dira eta lokal komertzial asko hutsik geratu dira, **Alde Zaharra, elementu erakargarri berezirik gabe, gainbehera etorri da, bizitasuna galdu du eta mugimendu komertziala murriztu egin da nabarmen (!)**
- Inguruko merkatal gune handien (Urbil, Garbera...) eta beste herrietako supermerkatu eskaintzaren (Azkoitiko Maxi Eroski, Lidl etab.) eragina ere nabarmena da eta azpeitiar askok kanpoan erosteko joera du (!)


- Merkatarien kolektibo hau zenbait arlotan indartzeko beharra ere sumatzen da: teknologia berrien ezarpena ez da beste zenbait sektoretan adinakoa, kalitate programetan parte hartzea oraindik mugatua da, zenbait kasutan negozio ikuspegia indartu beharra izaten da... (!)

## TURISMOA

### SEKTOREAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK




- Urola Erdia eskualdean kokaturik dago Azpeitia, Izarraitz mendigunearen babesean eta Urola ibaiaren ertzean. Batez ere Loiolako santutegiak egin du ezagun Azpeitia, herriko multzo arkitektonikorik esanguratsuena da, baina natur eta kutur baliabideak ere ugariak dira. Zezen-zaletasuna da bere ezaugarrietako beste bat, Azpeitia zezenen munduari oso lotuta egon da betidanik.
- Ostalaritza sektoreaz ari garelarik, udalerriko ostatu eskaintza 3 hotel, nekazalturismo bat eta mendi aterpe batek osatzen dute. Era honetan, Azpeitian 2010 urtean turismo ostatuko 10,73 plaza zeuden mila biztanleko (150 plaza inguru guztira), Gipuzkoako zifra baino 14,18 plaza gutxiago hain zuzen ere. Azpeitiak mugitzen duen bisitari kopurua kontuan hartuta, ostatu eskaintza nahiko eskasa dela esan daiteke (!).
- Plaza hauen bilakaera nahiko egonkorra izan da azken urteetan, baina, neurri txiki batean bada ere, beheranzko joera hartu du (2005 urtean 11,06 plaza zeuden mila biztanleko).




*Iturria: Udalmap*

- Ostalaritzako gainerako establezimenduei krisi ekonomikoak bortitzago eragin die. Jatetxe eta janari postu eta edaritegi ugari itxi da azken urteotan. Egun 2008an baino 4 jatetxe eta 4 edaritegi gutxiago daude Azpeitian (24 jatetxe eta 44 edaritegi hurrenez hurren) (!)
- Hala eta guztiz ere, edaritegiek Azpeitian izan duten beherakada Gipuzkoak izan duena baino apalagoa izan da (-%8,3 Azpeitian eta -%10,2 Gipuzkoan). Jatetxeen kasuan aldiz, Azpeitian egoera kaxkarragoa da; 2008urteaz geroztik %14,3ko jaitsiera bat izan baitu eta Gipuzkoak aldiz, %2,4koa baino ez.



*Iturria: Eustat*

- Datu hauen arabera, Azpeitian mila biztanleko 5,61 ostalaritza establezimendu eta jatetxe zauden 2011an. Bere bilakaerak gora behera oso txikiak izan dituen arren, joera beherakorra da. Gipuzkoarekin alderatuz, batez bestekoaren azpitik kokatzen da gainera Azpeitia (%6,35 Gipuzkoan).



*Iturria: Udalmap*

## TURISMO BALIABIDEAK ETA ERAKARGARRITASUNA



- Azpeitiko baliabide turistiko eta erakargarritasun iturri nagusiak bi dira, **Loiolako Santutegia eta Trenaren Museoa**.
- Alabaina, **eraikin eta monumentu ikusgarriak** ugari dira Azpeitian:
  - **Loiola** Azpeitian bisitari gehien jasotzen dituen tokia da, baina basilikaz gain badira bertan beste hainbat eraikin ikusgarri (Dorretxe zaharra: 1491n San Inazio jaio zen tokia; Loiolako Egoitza; Errekarte baserria; Izpiritualtasunaren etxea; Egibar baserria...)
  - Soreasuko San Sebastian parrokia eta Bakardadeko Kapera
  - **Olatzko ermita** XII mendeko kapera txiki bezain ikusgarria, Azpeiti inguruetakoa da.
  - Madalenaren ospitalea eta ermita

- **Beste etxe eta eraikin bereziak:** Basozabal etxea, herriko eraikuntza zibilik zaharrena da; Altuna etxea; Enparan Jauregia; Antxieta etxea eta beste hainbat etxe eta eraikin berezi (Udaletxea, Amubeko Zubia, Zezen plaza...)
- **Museoei dagokienez, Euskal Burdinaren Museoaz** gain, non Europako tren bilduma hoberenatarikoa dagoen, mota guztietako ibilgailuekin; **Ingurugiro Etxea** aurki dezakegu, zeinaren helburua bisitariari lur planetaren ingurumen-arazo nagusien berri ematea den.
- **Natur baliabideak ere ugariak dira, leku paregabeak kokatuta**, eskualde mailako hainbat ibilbide tematikorekin: Mendi ibilbide sarea, Bidegorri Sarea (Azpeitia-Legaztia), Urolako Trenbidea, etab.

## PRODUKTUEN EGITURA, SUSTAPENA ETA MERKATURATZEA



- 2010 urtetik aurrera Iraurgi Lantzen Urola Erdiko “Turismo Lankidetzarako Erakunde” izendatu zen. Orduz geroztik erakunde honen Turismo saila da eskualdeko turismo arloa kudeatzeaz arduratzen dena.
- Erakunde honek 2012-2015eko plangintzaldirako 4 lan-ildo nagusitan banatu du bere jarduna eta ekintza ezberdinak burutu ditu:
  - **Lurralde kudeaketarako antolamendu eredua;** non jada sorturiko Turismo Mahaia kontsolidatzea eta Mahai subsektorialak martxan jartzea den helburu nagusia (arlo honetan ez da oraindik ezer formalizatu eta ekintza batzuk burutu diren arren ez da elkarlan dinamika egonkor bat materializatu) (!)
  - **Lehiakortasun Turistikoa:** arlo honetan Kalitaterako jardunbide egokien programa ezarria da Urolan eta egun eskualdeko 20 establezimendu inguruk hartzen dute parte bertan (Azpeitiko parte-hartzaile kopurua nahiko murrizta da). Honen antzeko beste programa batzuk ere garatzen ari dira besteak beste “Anfitriones Programa” eta sektorean IKTen erabilera bultzatzeko programa. Behar beharrezkoak dira era honetako programak sektorea profesionalizatu eta kalitatezko eskaintza bat bideratzeko (!)
  - **Marketing turistikoa:** Produktu turistikoen sorrera eta garapena (produktu kulturala, gastronomikoa eta naturala) eta euren Sustapena eta komunikazioa ditu helburu. Ekainberri eta antzeko baliabide turistikoetara datozen bisitariak ez dira eskualdean geratzen, beharrezkoa da beraz eskualdearen sustapena egin eta bisitariak bertan geratzeko motibatzea (!)
  - **Azpiegiturak eta giza baliabideak:** turismo arloko zerbitzu eskaintzeko beharrezko diren baliabideak ziurtatu (Teknikari kudeatzailea, Eskualdeko turismo bulegoaren zerbitzua bermatu, lehiakortasun programak aurrera eramateko asistentzia teknikoa -azpikontratatu-, etab.)
- Azken urteotan hainbat ekimen jarri dira martxan eta garapen maila ezberdinetan aurkitzen dira. Horien artean aipagarrienak:
  - **“Ignaziotar Lurraldea”:** Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoiena eskualdeek elkarlanean
  - **“5 Geltoki Historian”** ekimen berritzailea (Algorri; Ekainberri; Loiolako Santutegia; Trenaren Museoa eta lau ostalaritzako establezimendu), Urola eskualdeko 7 herriek elkarlanean.

- **“Bisita Gidatu Programa”** Azpeitian eta Azkoitian, herrietako ondarea balorean jarri, eskaintza turistikoa ugaritu eta fluxu turistikoak herrietara bideratzeko. Azpeitiaren kasuan Eliza Nagusia eta Bakardadeko Kaperak 16 bisita jaso zituzten 351 parte-hartzaileekin.
- **“Loiolako Bisitarien Zentruaren Kudeaketa”** eskualdeko turismo informazio bulegoa eta Ignaziotar Lurraldeko Interpretazio Zentroa (25.155 bisitariri egin zien harrera)
- Azpeitiaren kasuan estrategikotzat jotzen da Loiolako Santutegira eta Trenaren Museora hurbiltzen den publiko edo bezero tipologia identifikatu eta segmentatzea eta segmentu bakoitzarentzat herriko baliabideak artikulatuz produktu turistiko desberdinak diseinatu, garatu eta merkaturatzea (produktu erlijiosoa, kulturala, artistikoa, natur baliabideen ingurukoa...). Udalak Iraurgi Lantzenek, Loiolako Santutegiak, Trenaren Museoak, Azpeitiko Elizak eta beharrezkoa ikusten den eragile orok (merkataria, san agustin kulturgunea e.a.) elkarlanean burutu beharreko prozesua da hau (!). **Iraurgi Lantzenek koordinatu eta lideratuko duen lan talde baten sorrera izan daiteke lanerako eredua.**

#### UDALAREN DATU EKONOMIKOAK




- Azpeitiko udaletxeak 2013 urterako 17,5 milioi euroko aurrekontu orokorra du. Udalaren aurrekontu propioa aldiz 16,3 milioi eurokoa da, duela urtebete baino %1,6 baxuagoa.
- Udalaren barne antolaketarako aurrekontua (langileria, zerbitzu orokorrak, ogasuna eta alkatezari dagozkionak) 9,6 milioi eurokoa da, gainerakoa sail ezberdinen artean ondoko taulan jasotzen den eran banatzen delarik:

| BARNE ANTOLAKETA                       |                                          |
|----------------------------------------|------------------------------------------|
| Langileria eta antolakuntza            | 5.260.986 €                              |
| Zerbitzu orokorrak                     | 3.094.050 €                              |
| Ogasuna eta kontuak                    | 1.046.532 €                              |
| Alkatetza                              | 241.000 €                                |
| <b>SAILAK</b>                          |                                          |
| Hirigintza                             | 1.256.700 €                              |
| Ingurumena                             | 177.100 €                                |
| Gizarte zerbitzuak                     | 1.123.120 €                              |
| Kirola                                 | 1.080.916 €                              |
| <i>Kirol patronatuaren aurrekontua</i> | <i>1.094.266 € (435.416 udaletxetik)</i> |
| Hezkuntza eta euskara                  | 836.821 €                                |


|                                          |                                        |
|------------------------------------------|----------------------------------------|
| <i>Euskara patronatuaren aurrekontua</i> | <i>602.628 € (380.128 udaletxetik)</i> |
| Industria, merkataritza eta turismoa     | 536.654 €                              |
| <i>Enplegu sustapena</i>                 | <i>350.000 €</i>                       |
| Kultura                                  | 419.300 €                              |
| Gazteria                                 | 351.500 €                              |
| Festak                                   | 498.000 €                              |
| Parekidetasuna                           | 96.500 €                               |
| Baserriak                                | 285.000 €                              |
| <b>UDAL AURREKONTUA GUZTIRA</b>          | <b>16.304.180 €</b>                    |
| <b>KONTSOLIDATUA GUZTIRA</b>             | <b>17.502.851 €</b>                    |

*Iturria: Azpeitiko Udala.*

- Aurrekontuaren zatirik garrantzitsuenak biltzen duten sailak Hirigintza (%7,7), Gizarte zerbitzuak (%6,9) eta Kirola (%6,6) dira.
- Udalerria bizitzen ari den egoera ekonomiko gogorra dela eta, ekitaldi honetan lehen aldiz, garapen ekonomikorako 500 mila eurotik gorako aurrekontua bideratu da, horien artean 350 mila enplegua sustatzeko.
- Aipatzekoa da, gainera, ondoko udal erakundeek euren aurrekontu propioa dutela:
  - Azpeitia Lantzenek 368.321 euroko aurrekontua du
  - Euskara Patronatuak 602.628 euroko aurrekontua du (horietatik 380.128 euro udaletxeko aurrekontu propioetatik jasotzen ditu)
  - Kirol Patronatuak aldiz, 1.094.266 euroko aurrekontua du (horietatik 435.416 euro udaletxeko aurrekontu propioetatik jasotzen ditu)
- Joan den urteko aurrekontuekin alderatzen baditugu, esan bezala, oro har %1,6ko murrizketa jasan da, sailez sail egoera ez da berdina izan ordea:
  - Aurrekontu igoera nabarmena izan dute Ekonomia arloak (Industria, merkataritza eta turismoa), Gizarte zerbitzuek, Kirolak, Hezkuntzak eta Gazteriak
  - Igoera arinxegoa izan da Ingurumenean eta Kulturean eta Euskara arloan mantendu egin da
  - Gainerako udal sailetan aurrekontuak behera egin du
- Lurraldeko gainerako udalerriekin alderaketa egite aldera, udalmapek eskaintzen dituen hainbat datu jasotzen dira jarraian:
  - Biztanle bakoitzeko kitatutako gastua 1.575 eurokoa izan zen 2010 urtean, Gipuzkoako batez bestekoa baino apur bat altuagoa (1.565 euro), nahiz eta 2008az geroztik beheranzko joera hartu duen.
  - Era berean biztanle bakoitzeko jasotzen duen zerga kopurua ere, lurraldeko batez bestekoa baino altuagoa da (327 euro Azpeitian eta 315,28 Gipuzkoa osoan)



*turria: Udalmap*



## AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

**Lotutako lerro eta programak** (*Lotutako lerro eta programen kodeari eta izenburuari egindako erreferentziak*)

- Ez dira identifikatu

**Indarrean baina garatzeke dauden ekintza garrantzitsuak**

- Ez dira identifikatu

## LOTUTAKO PLANAK ETA ARAUDIAK

### Udal mailan

- Urola Erdia Eskualdeko Enplegu Plana
- Eskualdeko Turismoko Plan Estrategikoa (2015 arte)
- Iraurgi Lantzen eskualdeko Garapen Agentziaren Urteko Kudeaketa Plana (2013)
- Loiola Berrikuntza Fundazioaren Urteko Kudeaketa Plana (2013)
- Urola Kostako Landa Garapenerako Elkartearen (URKOME) Urteroko Kudeaketa Plana (2013)

### EAE mailan

- 7/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Merkataritza Jardueraren Legearen bigarren aldatetarena.
- AGINDUA, 2010eko ekainaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituen.
- AGINDUA, 2009ko abenduaren 10ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, langile autonomoentzako ezohiko laguntzak iragartzen dituen
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 25ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak iragartzen dituen.
- Merkataritza ekipamenduetako Lurraldeko Sektore Plana
- Landa-Garapen Jasangarriaren Plana EAE 2007-2013
- Euskal Autonomi Erkidegoaren Laneko Segurtasun eta Osasun Estrategia 2007-2010
- Euskal Autonomi Erkidegoaren Enplegu Plana 2007-2010
- Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Plana 2006-2009

## EKINTZAK EGITEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

### Udalaren eskumenekoak

#### LEHEN SEKTOREA (URKOMEREkin elkarlanean)

- 2014-2020 Plangintza berria Azpeitiko udalaren parte-hartze aktiboa
- Nekazal jarduera ingurune naturala babestu eta balioan jartzen lagun dezakeen elementu bezala suspertu eta lagundu (ondorengotza sustatu)
- Produktu ekologiko, selektu eta labeldunen sustapenarekin jarraitu, etorkizuneko aukera bezala
- Bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko ekimenak martxan jarri sektore ezberdinen arteko elkarlana bultzatuz (Uztaro haur eskolarekin egiten den bezala)
- Nekazalturismoa bultzatu nekazal jardunaren osagarri bezala

#### INDUSTRIA, ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK (Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea eta Loiola Berrikuntzarekin elkarlanean)

- Herrian krisia gehien pairatzen ari diren sektoreetako enpresei zerbitzu berezia:
  - Egur-altzari sektorea (Kidetuz programaren bidez)
  - Enpresa txikiei (enpresa txikiak bultzatzeko zerbitzua)
- Enpresa haztegi zerbitzu bat eskaini azpeitiarrei, udalaren esku dauden lokal hutsak horretarako gaituz
- Herriko eta eskualdeko enpresen artean lankidetzak eta sareak sortzea bultzatu merkatuan lehiakorrago izateko bide bezala
- Azpeitiko enpresetan, eta batez ere industria arlokoetan, ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze-maila areagotzeko neurriak bultzatu (sentsibilizazioa, informazioa...)
- Ekoefizientziako sistemetan parte-hartzen duten enpresei asistentzia teknikoa eta laguntza eskaini
- Oro har Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea eta Loiola Berrikuntza Fundazioak burutzen dituzten ekimen eta programa ezberdinetan Azpeitiko enpresa eta langileen parte hartzea bultzatu eta lagundu

#### MERKATARITZA (Iraurgi Lantzen eta Bertanekin elkarlanean)

- Herriko jendea sentsibilizatu herrian bertan eros dezan; Bertan Bizi Bertan Erosi! Lemapean
- Industrialdeetan lanean ari diren beste udalerrietako langileek Azpeitian bertan kontsumi dezaten (erosketak, aisia, ...) estimulatzeko neurri ezberdinak aztertu eta abiarazi herriko merkataria eta ostalariekin elkarlanean
- Alde Zaharreko Mahaia indartu eta kontsolidatu
- Alde Zaharreko merkataritza biziberritzeko ekimenak abiarazi:
  - Alde Zaharra erakargarriago egin, hirigintza sustapena eta merkataritza ingurunearen hobekuntzaren bidez (Hiri-altzariak berritu...)
  - Alde Zaharra oinezkoetako aukerak aztertu
  - Lokal hutsak animatzeko ekintzak (herriko artisten obrak lokal hutsen erakusleihoetan)

- Lokal hutsak mobilizatu eta jarduera berriak erakartzeko ekintzak (Lokal hutsak egokitu eta berrerabiltzeko programa)
- ...
- Sektorean asoziazionismoa bultzatu
- Sektorearen modernizazioa eta profesionalizazioan sakondu prestakuntza eta kalitate programen bidez
- Teknologia berrietan, interneten, sare sozialetan eta hauek euren jardunean izan dezaketen eraginaren inguruan merkataria sentsibilizatu eta prestatu
- E-mailaren ezarpena eta Web guneen eguneraketa orokortzeko ahalegin berezia egin (E-commerce edo internet bidezko salmentara jauzia egiteko aurre-baldintza bezala)
- Merkataritza justua sustatu eta babesteko ekimenak bultzatu
- Azpeitia eta Azkoitiko Merkataria Elkartea, Goierriko Dinamizazio bulegoa eta Iraurgi Lantzen arteko koordinazioa eta elkarlana areagotu, baliabideak eta lana partekatu, sinergiak bilatu eta kostuak murrizteko
- Stock azoka, Garagardo azoka, Umeen Gabonetako Parkea eta arrakasta izan duten beste ekimenak gauzatzen jarraitu

#### TURISMOA (Iraurgi Lantzenekin elkarlanean)

- Loiolako Santutegira eta Trenaren Museora hurbiltzen den publiko edo bezero tipologia identifikatu eta segmentatzea eta segmentu bakoitzarentzat herriko baliabideak artikulatuz produktu turistiko desberdinak diseinatu, garatu eta merkaturatzea (produktu erlijiosoak, kulturalak, artistikoak, natur baliabideen ingurukoak...).
- Udaletik turismo berdearekin lotutako azpiegitura eta zerbitzuen aldeko apustua egin: nekazal turismoak, bidegorriak, ibilbideak, ingurunea, ondare arkitektonikoa, bisita gidatuak...
- Etorkizunari begira turismo kulturalaren arloko Plana landu eskualdeko eskaintza integral bat eratuz
- Gainerako sektoreekin elkarlanean eskaintza turistiko integratu bat eratu herri eta eskualde mailan (establezimendu eta baliabide turistikoak, ostalaritza, merkataritza arloa, nekazal mundua...)
- Dagoen turismo arloko ostatuaren hutsunea estaltzera bideratuta ekintzailetza sustatu eta lagundu
- Eskualdeko Turismo Mahaia eta Mahai sektoriala formalizatu eta Azpeitiko udalaren parte hartzea indartu
- Sektorearen modernizazioa eta profesionalizazioan sakondu prestakuntza eta kalitate programen bidez

Ikus Lan Merkatuaren inguruko fitxa

#### Udalaz gairikotako eskumena

- Eskualdeko eragile guztien artean egitura amankomun bat eratzekeo prozesua abiarazi (buruturiko hausnarketan oinarrituz)

## LAN MERKATUA


### Aalborgeko konpromisoak:

- 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
- 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA

### BIZTANLERIA AKTIBOA



- Azpeitian jarduera tasa %47,34an kokatzen zen 2010 urtean, Gipuzkoa eta EAEko tasen parean. Azken urteetan izan duen bilakaera gorakorra izan bada ere, ez du aldaketa handirik jasan (2006an %46,86 2010ean %47,34).
- Gizartean izan diren aldaketak direla medio ordea, sexuen arteko diferentzia murriztuz joan da pixkanaka eta 2001 urtean gizonezkoei eta emakumezkoei zegozkien jarduera tasen artean ehuneko 23 puntuko aldea bazegoen, egun 13 punturaino jaitsi da. Era honetan, emakumezkoen jarduera tasa %41 inguruan kokatzen da eta gizonezkoena %54an.
- Aipatzekoa da hala ere, **emakumezkoen jarduera tasa Gipuzkoa eta EAEko tasen azpitik kokatzen dela Azpeitian** (%42 inguruan Gipuzkoa eta EAE). (!)



*Iturria: Udalmap*

### LANGABEZIA ETA BERE BILAKAERA



- Biztanleria okupatua eta langabetuen analisia, langabezia tasa eta bere bilakaera aztertuz burutuko da<sup>1</sup>.
- **2012 urtean Azpeitian guztira 852 pertsona zeuden langabezian.** Lanbidek emandako datuen arabera, 2007an krisia hasi aurretik 288 lagunekin, langabetu kopurua eta langabezia tasa txikienetakoak izan ziren urtean baino 564 gehiago (hiru aldiz gehiago). Urte horretatik aurrera, krisiaren ondorioz, langabeziaren etengabeko hazkundera hasi zen.


<sup>1</sup> Kontuan hartu okupazio tasa eta langabezia tasa osagarriak direla.

### LANGABETU KOPURUAREN BILAKAERA

|                         | 2001 | 2002  | 2003   | 2004   | 2005  | 2006   | 2007  | 2008   | 2009   | 2010  | 2011   | 2012  |
|-------------------------|------|-------|--------|--------|-------|--------|-------|--------|--------|-------|--------|-------|
| Langabetu kopurua       | 322  | 330   | 271    | 326    | 354   | 314    | 288   | 375    | 665    | 681   | 812    | 852   |
| Urtez urteko aldakuntza | --   | +8    | -59    | +55    | +28   | -40    | -26   | +87    | +290   | +16   | +131   | +40   |
| Δ %                     | --   | +%2,5 | -%17,9 | +%20,3 | +%8,6 | -%11,3 | -%8,3 | +%30,2 | +%77,3 | +%2,4 | +%19,2 | +%4,9 |


Iturria: Lanbide

- Azterketa hau bera langabezia tasan oinarrituz egiten bada, argi ikus daiteke izandako bilakaera. **2007an %5,1eko langabezia tasa izatetik 2012an %13,1ekoa izatera pasatu da.** Era honetan, aldi osoan zehar Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik egon ostean, 2012an Gipuzkoako tasa berdintzera iritsi da Azpeitia.
- Krisiaren eragina oraindik ere nabarmena den arren, langabetu kopuruaren hazkundera apurka bada ere motelduz doa (orain hazkunde tasak duela 3-4 urte baino baxuagoak dira, nahiz eta oraindik ere goranzko joera mantentzen den).



Iturria: Urola Erdiko Enplegu Plana


- Egin dezagun orain langabeziaren profila eta honek krisia hasi zenetik hona izan duen bilakaeraren azterketa, krisiak gehien eragin dien taldeak identifikatuz:
- SEXUAREN ARABERA: gizonezkoen taldea izan da langabeziak gehien eragin dion taldea,** 2008az geroztik talde honetako langabetu kopurua hirukoiztuz (+%228,7). Emakumezkoen taldean ere langabetu kopuruak gora egin du krisia hasi zenetik, baina bere hazkundera ez da hain nabarmena izan.
- Egun Azpeitian langabetu guztien %52,5 gizonezkoak dira eta gainerako %47,5 emakumezkoak (2008an ostera emakumezkoen portzentajea %63,7koa zen). Gipuzkoarekin alderatzen badugu, portzentajeak trukatu egiten dira (%53 emakumezkoak eta %47 gizonezkoak).



|              | 2008 | 2012 | % Δ<br>2008-2012 |
|--------------|------|------|------------------|
| <b>SEXUA</b> |      |      |                  |
| Gizonezkoak  | 136  | 447  | <b>+%228,7</b>   |
| Emakumezkoak | 239  | 405  | +%69,5           |

*Iturria: Lanbide*


- **ADINAREN ARABERA:** langabeziak adin talde guztietan izan du eragin oso nabaria, baina talde gazteagoetan eragina handiagoa izan da (!). Era honetan, pisurik handiena hartu duen taldea 25 eta 45 urte bitarteko langabetuena da, 2008an %49,3a osatzen zuen talde honek, 2012an jada %53,3 osatzen du (4 puntu gehiago).
- Gipuzkoako banaketarekin alderatzen badugu, 25 urtetik beherakoek pisua nabarmen handiagoa da Azpeitian (%12,6 Azpeitian eta %9,8 Gipuzkoan) eta 45 urtetik gorakoena berriz txikiagoa (%34,2 Azpeitian eta %38,9 Gipuzkoan).
- Sexuaren araberako diferentziak nabariak dira ordea kasu honetan ere; emakumezkoen artean batez ere talderik gazteenetan eragin duen bitartean (25 urtetik beherakoak), gizonezkoen artean, 25 urtetik gorakoek nabarmenagoa izan da eragina.
- Bereziki aipatzekoa da 45 urtetik gorakoek egoera, egungo testuinguruan, bereziki zaila egiten baitzaio talde honi lana bilatzea eta 2012 urtean 291 langabetu daude Azpeitian adin honetakoak (!).



|              | 2008 | 2012 | % Δ<br>2008-2012 |
|--------------|------|------|------------------|
| <b>ADINA</b> |      |      |                  |
| < 25urte     | 48   | 107  | <b>+%122,9</b>   |
| 25-45 urte   | 185  | 454  | <b>+%145,4</b>   |
| > 45 urte    | 142  | 291  | +%104,9          |

*Iturria: Lanbide*

- **IKASKETA MAILAREN ARABERA:** Izan den joera orokorrari jarraiki, **langabeziak bereziki erdi-goï mailako ikasketak dituzten taldeei eragin die** (lanbide heziketa, non langabetu kopurua ia hirukoiztu egin den eta unibertsitate ikasketak, non kopurua bikoiztu egin den), azken urte hauetan gainera oso bortizki, nahiz eta oraindik ere talderik adierazgarriena ikasketa mailarik baxuena dutenena den (%63 inguru).
- **Azpeitiko kasuan, krisialdian, langabeziak ikasketa mailarik baxuena duten langileei gainerako zonaldeetan baino bortitzago eragin die.** Egun Azpeitiko langabetuen %62,7 DBH edo ikasketa baxuagoak dituztenek osatzen dute eta Lanbide heziketa egin dutenek %22,1 (2008an baino ia ehuneko 5 puntu gehiago).
- Egoera honek batetik sor daitekeen **talentu ihesaren ekiditeko beharra (ondo prestatutako gazteen kanpora ihesa) eta bestetik, behar adinako prestakuntza edo ikasketarik ez duten biztanleak prestatzeko beharra sortzen du (!)**




|                         | 2008 | 2012 | % Δ<br>2008-2012 |
|-------------------------|------|------|------------------|
| <b>IKASKETAK</b>        |      |      |                  |
| ≤ DBH                   | 246  | 534  | <b>+%117,1</b>   |
| Batzilergoa             | 29   | 56   | +%93,1           |
| Lanbide Heziketa        | 66   | 188  | <b>+%184,8</b>   |
| Unibertsitate ikasketak | 34   | 74   | <b>+%117,6</b>   |

*Iturria: Lanbide*

- **JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA:** Aurretiko lan esperientziarik ez duen taldea izan da bereziki krisia pairatu duena (!), nahiz eta oraindik ere talde nahiko txikia osatzen duen (langabetu guztien %8,9). Talde honen kopurua 2008 eta 2012 urteen artean ia hirukoiztu eginda ordea (+%192,3).
- Hirugarren sektoreak oro har Azpeitiko ekonomian duen pisua kontuan hartuta normala denez, **zerbitzu sektoreko langabetuak dira nagusi Azpeitian (%45,7).** Krisiaren hasieratik jasan duen hazkundera gainera beste sektoreetan baino handiagoa izan da, langabetu kopurua 2,5 aldiz biderkatuz (+%184,8)<sup>2</sup>. (!)

<sup>2</sup> Nekazaritzaren kasuan, igoera oso esanguratsua izan bada ere (+ %280), zifra absolutuak kontuan hartzen baditugu, igoera 14 pertsonakoa soilik izan da.


- **Industriak duen pisua ere oso garrantzitsua da** (langabetu guztien %36 inguru), nahiz eta kasu honetan, krisiaren hasieraz geroztik pairatu duen igoera gainerako sektoreetan baino baxuagoa izan den (hala ere ia bikoiztu egin da langabetu kopurua sektore honetan).
- **Eraikuntzaren kasua berezia da Azpeitian; jakina denez, krisiak gogorren eragin dion sektorea izan da hau lekuri gehienetan, Azpeitian ordea, langabetu kopurua gutxien hazi den sektorea izan da** (ia %80 hau ere) eta 2008an langabetuen %9,2 izatetik 2012an %7,2 soilik izatera igaro da. Kontuan hartu behar da ordea, Azpeitiko industria eta zerbitzu sektoreko enpresa asko eta asko eraikuntza sektorearekin oso lotutako jardueretan aritzen direla eta hauek izan duten galera oso nabaria izan dela.



|                             | 2008 | 2012 | % Δ 2008-2012  |
|-----------------------------|------|------|----------------|
| <b>JARDUERA SEKTOREA</b>    |      |      |                |
| <i>Nekazaritza</i>          | 5    | 19   | <b>+%280,0</b> |
| <i>Industria</i>            | 157  | 307  | <b>+%95,5</b>  |
| <i>Eraikuntza</i>           | 34   | 61   | <b>+%79,4</b>  |
| <i>Zerbitzuak</i>           | 153  | 389  | <b>+%154,2</b> |
| <i>Aurreko lanik gabeak</i> | 26   | 76   | <b>+%192,3</b> |

Iturria: Lanbide

- **Epe luzeko langabetuen portzentajeak gora egin du nabarmen krisiaren eragina dela medio (!).** Egoera honek zenbait arrisku edo arazo ekar ditzake: zenbait taldetan langabezia kroniko bihurtzeko arriskua, langabeziagatiko prestazio ekonomikoen agortze, etab.
- 2010. urterako luzaroan erregistraturiko langabetuek (urte bete baino gehiago daramatenak), 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria osoaren %2,74 osatzen zuten (Gipuzkoako datua baino, %3,34, apur bat baxuagoa).




Iturria: Udalmap

- **Laburbilduz beraz**, langabetu kopuruari dagokionez, talderik esanguratsu edo ugarienak gizonezkoenak, 25-45 urte bitartekoenak, derrigorrezko bigarren hezkuntza edota baxuagoko ikasketak dituztenenak eta zerbitzu sektorekoak dira. Hauek berak izan dira gainera krisiak gehien eragin dien taldeak (2008-2012 urteen artean hazkunderik handiena izan dutenak), erdi-go mailako ikasketak dituztenekin eta aurretiko lan esperientziarik ez dutenekin batera.

## KONTRATAZIOA




- Langabeziak izan duen joerarekin bat etorriz, **kontratazio mailak Azpeitian behera egin du azken urteetan eta nabarmen behera egin ere (!)**.
- Esate baterako, krisiaren aurretik, 2006 urtean 303 kontratu inguru sinatu ziren Azpeitian mila biztanleko, 2011 urtean, zenbait gora beheraren ostean, kopuru hau %199ra jaitsi zen jada (mila laguneko 104 kontratu gutxiago). Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatzen bada, 95 kontratu gutxiago dira mila biztanleko (%294,49).
- Aurrez adierazitako datu horiek ordea ez dira kontratatutako pertsona kopuruaz ari (kontratu kopuruaz baizik), eta zifra hori, askogatik ez bada ere, zertxobait egonkorrago mantendu da, Gipuzkoarekiko aldea ere txikituz. Era honetan 2006 urtean 175 pertsona inguru kontratatu ziren Azpeitian mila biztanleko, 2011an, urtero apur bat gutxituz joan ostean, %89 inguru (86 gutxiago). Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuz ere (%105) Azpeitia azpitik kokatzen da, aldea txikiagoa den arren.




*Iturria: Udalmap*

- Datu hauek adierazten digutena zera da, Azpeitian kontratu errotazioa Gipuzkoan baino txikiagoa dela, hots, pertsona bakoitzak kontratu kopuru txikiagoa sinatzen duela urtean zehar. Horrela, Azpeitian pertsona bakoitzeko 2,3 kontratu sinatzen dira, Gipuzkoan aldiz 2,8.
- Krisia hasi zenetik gainera, kontratu errotazioak gora egin du, hau da, egonkortasuna gutxitu egin da. Gailurra 2010 urtean lortu zen urteko 2,5 kontraturekin, eta badirudi orain beheranzko joera hartu duela berriro ere.




*Iturria: Udalmap*

- Gizonezko eta emakumezkoen arteko konparaketak, diferentziak argiak direla erakusten du. **Emakumezkoen egonkortasun maila gizonezkoenaren aldean murrizta da (!)**, edo beste era batean esanda, errotazio maila handiagoa dute (2,7 kontratu pertsonako emakumezkoen artean eta 1,8 gizonezkoen artean).
- Krisi egoera honen erakusgarri da, errotazio handiagoaz gain, kontratu mugagabeen urritasuna. 2007 urtean sinaturiko kontratu guztien %18 inguru mugagabeak izatetik, portzentaje hau erdira jaitsi da 2011 urtean Azpeitian. Aipatzekoa da hala ere, zifra hau Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik kokatzen dela.




*Iturria: Udalmap*

- Kontratu mugagabe hauen dinamika kontuan hartuz, sexuaren arabera banaketak berriro ere alde handiak egon direla adierazten du; oro har kontratu mugagabe gehienak gizonezkoiei egin zaizkie urteetan zehar.



*Iturria: Udalmap*

- Lehendik ere aipatu denez zerbitzu sektoreak Azpeitian duen pisua kontuan hartuta ez da harritzekoa erregistratutako 10 kontratutik 7 inguru sektore honetakoak izatea. Industria da kontratu kopuruan jarraitzen diona, kontratu guztien %20 ingururekin.



*Iturria: Garapen*

## LAN MUGIKORTASUNA, BERTAKO LANERATZEA ETA AUTOSUFIZIENTZIA



- Ezin izan da datu eguneraturik lortu, baina 2001eko datuen arabera, biztanleriaren %30,7 inguruk herritik kanpo egiten zuen lan. Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuz (%50 inguru) nahiko protzentaje baxua).



- **Azpeitiko udalak ez du Arlo ekonomikoaren garapena eta enplegu arloaz arduratzen den sail propiorik, beraz arlo honetan erreferentziazko erakundea Iraurgi Lantzen, Urola Erdiko Garapen Agentzia da.** Erakunde honen ibilbidea luzea da eta jorratu dituen lan ildo eta egin dituen barne hausnarketa prozesu ezberdinen ondorio bezala sortu zen **Ezagutza Gunea**, bailarako enpresa sarearen lehiakortasuna bultzatzeko eta **Loiola Berrikuntza Fundazioa**, eskualdean identifikatu ziren beharrei erantzunez, arlo teknologikoa landu eta indartzeko. Jarraian Iraurgi Lantzenek berak, Ezagutza Guneak eta Loiola Berrikuntza Fundazioak burutzen dituzten jarduera nagusiak laburbiltzen dira:
- **IRAURGI LANTZEN** agentziak bere kudeaketa planean 5 lan-ildo nagusi lantzen ditu, garapen ekonomikoa eta lan munduarekin erlazionatuta:
  - o **Enpresa sarearen dinamizazioa:** estrategikoak diren jarduerak sustatu, enpresen kokapen konpetitiboa hobetzeko. Horretarako, eskualdeko ehun ekonomikoaren dibertsifikazioa, modernizazioa, dinamizazioa eta eraldaketa bultzatuaz eta eskualdean lanpostu berrien sorrera babestuz.
    1. Prospekzio eta informazio zerbitzua enpresei
    2. Enpresa egitasmo berriei laguntzeko eta babesteko zerbitzua
    3. Txikizkako merkataritza sektorearen dinamizazioa
    4. Enpresen arteko lankidetzeta eta enpresa txikiak bultzatzeko zerbitzua. Bereziki egoera larrian dagoen kolektiboa da hau arestian ere aipatu bezala, enpresa txikiek hainbat ekimen ezin dituzte euren kabuz eraman eta horregatik berrantolatu da zerbitzu hau, enpresei beraien eguneko kudeaketan laguntzeko (diagnostikoa eta ekintza plana eginda daude).
    5. Eskualdeko proiektu estrategikoak: KIDETUZ egitasmoa
    6. Kalitatearen kudeaketa eta barne auditoria
  - o **Ezagutza gunea:** ezagutzaren kudeaketa eta transferentzian oinarrituz eta agente publiko-pribatuen arteko lankidetzaren bidez, kideen eta eskualdearen lehiakortasun eta garapena sustatu. (Ikus informazio gehiago hurrengo puntuan)
  - o **Turismo saila:** eskualdeko turismo alorreko balio katearekin lotuta dauden eragile publiko eta pribatuen elkarlana gauzatuz, Urola Erdia turismo jomuga lehiakorra bihurtu Euskadi turismo jomuga orokorraren barnean, turismo fluxuak sortu eta areagotuz tokiko ekonomian turismo jarduerak inpaktu positiboa izan dezan. (Ikus informazio gehiago turismo atalean)
  - o **Zerbitzu sozioekonomikoak:** eskualdeko biztanleei zuzendutako zenbait zerbitzu publiko eskaintzea edota administrazio publiko eta udalen arteko zubi eta koordinatzaile lanak egitea, zerbitzu horien eraginkortasuna bermatu eta hobetzearen alde.
    1. Logopedia Zerbitzua
    2. KIUB - Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa
    3. Auto-taxi garraio zerbitzuaren araubide bereziko eremua
    4. Urola Erdia eskualdeko Garraio Publikoa
  - o **Munoaundiko herri harresitua:** Munoaundi herri harresitua babestu, ikertu, ezagutzera eman eta, emaitzak aukera ematen badute, aztarnategiaren musealizazioa bideratu.

- Horiez gain, ondoko zerbitzuak eskaintzea aurreikusten da 2013ko kudeaketa planean:
  - o **Enplegurako Laguntza Zerbitzua:** bere helburua Urola Erdian lan bila ari direnak lan munduan txertatzeko informazio-, orientazio- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzea da. Egituratutako baliabideen bidez ondokoa lortu ahal izango dute erabiltzaileek:
    - Lana bilatzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzea
    - Bilaketa hau lagunduko eta bideratuko duen aholkularitza profesionala jasotzea
    - Norbere buruaren hautagaitzak aurkeztea edo dagokion lanbide-profilaren araberrako eskaintzetan sartzea
  - o **Enplegu zentroa:** Urola Erdian enplegu-zentroen zerbitzu gisa, erabiltzaileei banakako arreta espezializatua emango diena. Enplegu-zentroa enplegua bilatzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzea erraztuko duten baliabide material eta teknikoz osatua dagoen gune fisiko moduan egituratzen da; horrez gain, orientatzaile baten laguntza ere izango delarik.
  - o **Lanerako orientazio ekintzak eta zerbitzua:** bere helburua erabiltzaileei ezaguerak, tresnak, estrategiak eta jarrera egokiak lortzen lagundu eta erraztea da, norberaren proiektu profesionala arrakasta eta lorpen hobeagoarekin diseinatu eta kudeatu dezaten. Zerbitzuon artean daude:
    - Lan-merkaturatzeko eta prestakuntza eguneratzeko norbanakoari egokitutako ibilbideak diseinatzea
    - Laguntza emateko ekintzak garatzea, bakarkakoak (hasierako diagnostikoa, eskaintza eguneratzea, informazio profesionala, curriculum, etab.) eta taldekoak (elkarrizketa prestatzea, hautaketa probak, etab.)
    - Enpresa, enplegurako prestakuntza, Helduen Hezkuntza eta bestelako baliabide eta zerbitzu osagarriekin lankidetzatza
    - Lanbide-orientazioa, informazioa, laguntza eta bultzada lan bilaketan
    - Ekintzailetasunerako gaitasunaren garapena eta autoenplegurako laguntza
    - Autoestimua hobetu eta ikasketarako gogoia pizteko motibazio ekintzak
    - Prozesuak: Lanerako motibazioa; Trebetasun sozialak eta komunikazioa; Lan-merkatuaren informazioa; Lana bilatzeko teknikak; Bilaketa-agenda. Berrekin
  - o **Ikasketa bitartekaritza zerbitzua:** doako zerbitzua da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa eta Euskadiko gune zehatz edo eskualde batean martxan jarritako ikasketa ekintzen gaineko informazioa ematen duena. Aholkularitza eta orientazioa ere ematen du onuradunen interes eta aukeren gainean eta ekintzen bidez, bizitzan zehar ikasteko beharra sustatzen du. Zerbitzu honi dagokionez, Urola Erdia Urola Kostako Bitartekaritza Zerbitzura atxikita dago eta bere egoitza Zarautzen dago. Urola Kostako zerbitzuaren arduradunekin akordioak lortu nahi dira bere ikusgarritasuna sendotzeko, eta ahal den neurrian, Urola Erdian fisikoki kokatua egon dadin.

- **EZAGUTZA GUNEA (EG)** (2002) eskualdearen lehiakortasuna eta garapenarekin konprometitutako elkarlan sare publiko-pribatua da, ezagutzaren sorrera eta transferentzian oinarritutakoa. Bertan gaur egun 20 enpresek parte hartzen dute, eskualdeko prestakuntza ikastetxe guztiek, erakunde publikoek (Azpeitia eta Azkoitiako Udalak, Iraurgi Lantzen) eta Loiola Berrikuntzak.
- Ezagutza Gunearen **ezaugarri nagusiak**, tokiko mailatik eragile sozio ekonomikoen beharren arabera ekintzak sustatzea da, eskualdearen lehiakortasuna bultzatzeko, pertsonen gaitasunen garapenaren bitartez; eta eragileen artean sorturiko kapital soziala, elkarlan publiko pribatua eta eskualdeko perspektiba amankomuna bultzatzeko oinarria.
- EGren urteroko **kudeaketa plana** onartu eta gertuko jarraipena egiten du KUDEAKETA KONTSEILUAK, sarelo kideen ordezkariak urtean zehar 2-3 hilero biltzen direlarik (enpresa, ikastetxe eta erakundeen ordezkariak osatzen duten kontseilua).
- **Egitura:** Hiru gune ezberdinetan banatzen da EGren jardura, eragileen interes amankomuneko proiektuak kudeatzeko:
  - o **Enpresa gunea:** Eskualdeko enpresen lehiakortasuna sustatzea du helburu, berrikuntza prozesuen garapenerako pertsonen sentsibilizazioa eta kapazitazioaren bidez. Kideen proposamenei erantzunez egun **2 proiektu** kudeatzen dira enpresetan:
    - **Ikasi proiektua**, zeinaren helburua hausnarketarako eta elkarrekin ikasteko prozesuak garatzea den, sentsibilizazioa eta ezagutzaren bidez. Berrikuntzaren Kudeaketa Ereduei buruzko ezagutzak sortu eta transferitu nahi ditu, horretarako 6 lan-talde ezberdin sortu direlarik (gerenteena, giza baliabideetako arduradunena, ekoizpen arduradunena, Enkargatuena, enpresa txikiena eta berrikuntzako arduradunena). Dinamika hauetan guztira enpresetako 80 pertsonak parte-hartzen dute.
    - **Ikas-ekin proiektua**, zeinaren helburua, eskualdeko pertsonen (batez ere langile eta ikasleen) konpetentzia konkretuen formakuntza prozesu sakonak garatzea da, enpresetan emaitza konkretuak lortzeko, horretarako kualifikazio eraginkorrerako tresnak garatu eta aplikatuz (prestakuntza+Akzioa Metodologia). Proiektu konkretuen aplikazioaren bidez konpetentzia berritzaileen garapenean trebatzea du helburu. Kudeatu diren azken formakuntza adibideak enpresen beharrei erantzunez: produktibitatearen hobekuntza, Kudeaketa komertziala, Errendimendu Altuko Taldeak. Ez daude talde finkoak, proiektuen arabera antolatzen dira.
  - 7 enpresarekin hasi ziren lanean egun jada 20 enpresa inguru dira.
  - o **Prestakuntza gunea**, bere helburua ikastetxeen prestakuntza eskaintza eskualdearen garapen beharretara egokitzea da. Gune honetan ere bi atal ezberdin bereiz daitezke:
    - Gerolan Programa, eskualdeko egitura sozio-ekonomikoari buruzko hitzaldiak ikastetxe guztietan eta ikasleei zuzenduriko orientazio programak. Gaur egun metodologi berri batekin berdiseinatzen ari da, programa hau ikasleek eurek garatu dezaten proiektu pertsonalizatua.
    - Ikastetxeen Lan-taldea, eskualdeko ikastetxeen arteko elkarlana bideratzen duen mahaia. 2012 urtean talde honetan sortu diren beharrei erantzunez, hainbat dinamika garatu dira; eskualdeko ikastetxeetan etorkinen integrazioa, ekintzailatza baloreak gazteekin nola landu, etab.

- o **Garapen gunea.** Bailarako eragile publikoak eta LBF daude bertan bilduta eta bere helburua, ingurune berritzaileen sorrera bultzatuko duten politika eta estrategiak ezartzea da. 2007an bailarako lehiakortasun diagnostikoa burutu zen eta 2009an berrikuntza diagnostikoa. Diagnostiko hauetatik egin zen hausnarketa prozesuaren ondorioz sortu zen 2010 urtean Loiola Berrikuntza Fundazioa. 2011 urtean bi erakundeon (Ezagutza Gunea eta Loiola Berrikuntza Fundazioa) integrazio funtzionala gauzatu zen. 2012 urtean zehar hiru proiektu edo ekimen nagusi landu dira; Eskualdeko Lanbide Heziketa ereduari buruzko hausnarketa prozesua, Eskualdeko erakundeetako ordezkarien artean ikaskuntza prozesu partekatua eta Lurralde garapenean estrategia bateratu baten beharraren inguruko hausnarketa identifikatuz joan diren hutsuneei erantzuna emateko (!)
- **LOIOLA BERRIKUNTZA FUNDAZIOA (LB)**k lau helburu estrategikoren bueltan egituratzen du bere jarduna:
  - o **Berrikuntza eta barne ekintzailatzaren sustapena.** Berrikuntzaren eragile traktore izatea, bailarako entitateen I+G+b-ko (Ikerketa + Garapena + berrikuntza) eskariari erantzunez eta I+G+b-ko enpresen proiektuak sustatuz. Oinarri teknologikoa duten eta bailarako balio erantsia gehitzen duten enpresak ere sortu nahi dira (ekintzailatza eta barneekintzailatza teknologikoa). Horretarako, barne/ekintzailatasuna sustatuz, enpresen eta agente zientifiko-teknologikoen ezagutza bideratuz, Jardunaldi eta Workshop zientifiko-teknologikoak antolatuz, etab.
  - o **Pertsonak.** Honen bidez, enpresen beharrei erantzun nahi zaie bai Karrera Amaierako Proiektuak burutzen ari diren bailarako gazte titulatuak eta enpresen artean bitartekaritza lana burutuz eta bai bailarako enpresen beharretara bertako gazteek eskatutako internazionalizazioko bekak eskainiz. Bestalde eskualdeko doktore zientifiko-teknologikoekin eta enpresekin elkarlana ere bilatu nahi da.
  - o **Loiola Berrikuntzaren irudia eta egitura indartu,** bere kontsolidazioa lortzeko
  - o **Eskualdeko proiektu estrategikoak.** Berrikuntza, dibertsifikazioa, ekoefizientzia eta eraldaketa ekonomiko eta soziala sustatzea helburu duten ekintzak eta proiektuak dinamizatu eta bultzatzen dira arlo honetan. 2012 urtean EG-arekin batera Eskualdeko Lanbide Heziketa ereduari buruzko hausnarketa prozesua eta Eskualdeko erakundeetako ordezkarien artean ikaskuntza prozesu partekatua landu zituen. Urola Erdiko Enplegu Plana ere bertatik gauzatu da. Azken proiektu honen baitan lau ildo estrategiko zehaztu dira bailaran lantzeko (!):
    - Lan merkatuan integratzeko zailtasunik handienak dituzten taldeen enplegu aukerak hobetu, beraien kualifikazio maila hobetuz eta eskualdearentzat interes estrategiko handiena duten lanpostuetara bideratuz
    - Gazte eta langabetuen artean enpresa berrien sorkuntza bultzatu
    - Gizarteko talderik kaltetuenentzat prestakuntza eta enplegu aukerak gehitu
    - Eskualdearen lehiakortasun egoera hobetu, jarduera berritzaileak bultzatuz, enpresa lehiakortasuna erraztuz eta pertsonen prestakuntza hobetuz

## AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

**Lotutako lerro eta programak** (*Lotutako lerro eta programen kodeari eta izenburuari egindako erreferentziak*)

Ez dira identifikatu

**Indarrean baina garatzeke dauden ekintza garrantzitsuak**

Ez dira identifikatu

## LOTUTAKO PLANAK ETA ARAUDIAK

### Udal mailan

- Urola Erdia Eskualdeko Enplegu Plana
- Iraurgi Lantzen eskualdeko Garapen Agentziaren Urteko Kudeaketa Planak
- Loiola Berrikuntza Fundazioaren Urteko Kudeaketa Planak

### EAE mailan

- AGINDUA, 2010eko ekainaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituen.
- AGINDUA, 2009ko abenduaren 10ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, langile autonomoentzako ezohiko laguntzak iragartzen dituen.
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 25ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak iragartzen dituen.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Lan-Segurtasuna eta Osasunerako Plan Estrategikoa 2007-2010
- Enplegurako Euskal Estrategia 2011-2014
- 2012ko Enplegu plan operatiboa
- Euskal Autonomi Erkidegoko Enplegu Plana 2007-2010
- Eskualdeko Enplegu Plana (garatzen)

## EKINTZAK EGITEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

### Udalaren eskumenekoak

- Lan merkatuan integratzeko zailtasunik handienak dituzten taldeen (aurrez lan esperientziarik ez dutenak, prestakuntzarik gabeko jendea, 45 urtetik gorakoak, lan merkatuan sartu berri diren emakumezkoak, eraikuntza sektorekoak...) enplegu aukerak hobetu, beraien kualifikazio maila hobetuz eta eskualdearentzat interes estrategiko handiena duten lanpostuetara bideratuz (Iraurgi Lantzenekin elkarlanean)
- Talentu ihesa ekiditeko ekintzak sustatu (Loiola Berrikuntza Fundazioarekin elkarlanean)
- Kanpoan dauden goi-mailako eta doktorego formazioa duten eskualdeko eta herriko gazteak bueltan erakartzeko ekimen ezberdinak gauzatu (Loiola Berrikuntza Fundazioarekin elkarlanean)
- Ekintzailatza kultura sustatu (ikastetxeetan etab.) eta enpresa egitasmo berriei laguntza zerbitzua eskaini (Ezagutza Gunea, Iraurgi Lantzen eta Loiola Berrikuntza Fundazioarekin elkarlanean)
- Enkintzaileak edo enpresa berrien sortzaileak saritu, hobariak edota diru-laguntzak eskainiz
- Azpeitiar langabetuak kontratatzen dituzten enpresak saritu, hobariak edota diru-laguntzak eskainiz
- Emakumezkoen artean lan prekarietatea eta ezegonkortasuna murrizten saiatzeko ekintzak burutu (Iraurgi Lantzenekin elkarlanean)
- Eskualdeko sektore estrategikoetan (balio erantsia sortzen dutenak) eta emergenteetan (hirugarren adinari laguntza, energia berriztagarriak, teknologia berriak ...) enplegu berrien sorrera sustatu eta lagundu (Loiola Berrikuntza Fundazioarekin elkarlanean)
- Enplegu berdeen eta jasangarritasunean oinarritutakoen sorrera sustatu eta lagundu
- Eskualdeko Enplegu Planaren baitan 2013 urtean zehar bailaran diruz-lagunduko diren proiektuetan azpeitiarren parte-hartzea bultzatu:
  - **FormaTeU proiektua** berariazko prestakuntza 5 arlo ezberdinetan. Arlo bakoitzeko ikastaro bat burutuko da eta bertan 35 lagunek parte-hartzea aurreikusten da
  - **AteBe Proiektua**, balio erantsi altuko jardueretan autoenplegua/ekintzailatza bultzatzeko helburua du

### *Ikus Garapen ekonomikoaren inguruko fitxa*

### Udalaz gaindiko eskumena

- Eskualdeko eragile guztien artean egitura amankomun bat eratzeke prozesua abiarazi (buruturiko hausnarketan oinarrituz)

# ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA

## Aalborgeko konpromisoak:


- 7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA
- 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA

## EKITATEA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

### GIZARTE ARAZOAK




- **HIRUGARREN ADINA.** Azpeitiko biztanleen artean 65 urte baino gehiago dituztenak biztanleria osoaren %18 dira (zahartze indizea) eta Gipuzkoak bere osotasunean duena baino zertxobait baxuagoa da zifra hori (%19,8). Horretaz gain, Azpeitian 75 urte baino gehiago dituztenak 1.280 dira, %8,8 (gain-zahartze indizea), eta datu hau ere Gipuzkoak agertzen duena baino baxuagoa da (%10,3).
- **Dena den aipatzekoa da azken urteetan indize hauek joera gorakorra izan dutela,** orokorrean ez ezik baita Azpeitian bertan ere. Eta urteen poderioz talde honi bideraturiko baliabideak eskas geratu dira udalerrian. Gaur egun hau da hain zuzen ere Azpeitiko gizarte-zerbitzuen kezka nagusienetakoa (!)
- Esan beharra dago gainera, 75 urtetik gorako biztanleen %60 inguru emakumezkoak direla; talde honetan arazoa gizonezkoen kasuan baino handiagoa izan daitekeelarik.




Iturria: INE

- **BIZTANLERIAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK.** Azpeitiko biztanleriaren baliabide ekonomikoak Gipuzkoak agertzen dituenen oso antzekoak dira batez beste. 2009 urteko datuei begiratuta, Azpeitiko biztanleen errentaren batez bestekoa 20.680 eurokoa zen, Gipuzkoako biztanleena berriz, zertxobait apalagoa, 20.270 eurokoa hain zuzen ere. Gainera azken urteetan izan duen bilakaera Gipuzkoan izan duenarekin paraleloki joan da.



*Iturria: Eustat*


- Hala ere, kontuan hartzekoa da **krisialdia hasi zenetik, geroz eta gehiago direla Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske jotzen duten familiak. (!)**
- **Oinarrizko errenta jasotzen duten familien artean, hazkundera oso nabarmena izan da.** 2008-2012 urteen artean 149 familia gehiagok jasotzen dute oinarrizko errenta (111k 2008an eta 260k 2012an, bikoiztu baino gehiago).
- 2009 urtetik aurrera aipatu beharra dago gainera, aurkezturiko datuetan, alokairua ordaintzeko laguntzak jaso dituzten familiak ere barneratuta daudela. Era honetan, 2012an 396 dira guztira mota honetako laguntzak (Oinarrizko errenta -260- eta alokairurako laguntza -136-) jasotzen dituzten familiak.



*Iturria: Azpeitiko Udalak emandako informazioa*


- Aldi berean, azken urteetan Azpeitian izandako etorkinen hazkundera (oro har baliabide gutxiago izaten dutenak) eta 2008an sortu zen krisi ekonomikoak, gizarteko talderik ahulenetan laguntza ekonomikoen eskaria areagotzea ekarri zuten. Honek **Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) areagotzea ekarri du (!).**
- Araudian izandako aldaketa bat zela medio ordea, laguntza hauek jasotzeko baldintzak gogortu egin ziren, familia asko laguntza hauek jasotzeko eskubiderik gabe geratzeko arriskuan jarritz. Udalak, egoera honi aurre egiteko, laguntza osagarriak jarri zituen herritarren eskura. Udal laguntza hauei esker, azpeitiar familia askok izan du laguntza ekonomikoa egoera gogor honi aurre egiteko.

- **Arlo honetan Udalak egindako gastu ahaleginak hazkunde nabarmena izan du.** Hala nola, 2010 urtean 64.576,85 euroko aurrekontua zuen eta 2012an 101.422,33 euroraino igo da, hau da, 2008an baino %57 gehiago.
- Era honetan, 2008an 72 familiak jaso zuten Gizarte Larrialdietako Laguntza, 2012 urtean, 137rekin zifra hori ia bikoiztu egiten da.



*Iturria: Azpeitiko Udalak emandako informazioa*

- **IMMIGRAZIOA.** Atzerritarren etorrerari behatuz gero, **azken hamarkadan atzerritarren hazkundea etengabea izan dela** ikus daiteke; Azpeitian, 941 atzerritar bizi dira egun, biztanleria osoaren %6,5 osatzen dutenak, duela hamar urte baino 5 aldiz gehiago (hau da, 760 pertsona atzerritar gehiago).
- **Azken urteotan ere joera gorakorra mantendu egin da Azpeitian,** nahiz eta krisi ekonomikoaren eraginez atzerritarren etorrera apur bat geldotu egin den. Era honetan, aldi osoan zehar Azpeitiko biztanleria atzerritarren pisua Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik mantendu ostean egun berdindu egin da.



*Iturria: INE*


- Etorkin hauen jatorriari dagokionez, gehiengoa Latino Amerikatik (%32 inguru) eta Afrikatik (%30 inguru) dator, Europarra da %27 inguru (Europar Batasuneko %23,8 eta %3,5 Batasunetik kanpoko) eta Asiatik dator %11. Etorkinen gehiengoa gizonezkoa bada ere (%55,6), jatorriaren arabera ezberdintasun argiak daude; Latino Amerikatik datozenen eta Europar Batasunetik kanpokoen artean emakumezkoa da gehiengoa, zeinak oro har kualifikaziorik gabeko lanak, egonkortasunik gabeak, gaizki ordainduak,... (hirugarren adina eta umeen zaintza, garbiketa, etab.) burutzen dituzten, zenbaitetan gainera legezko kontraturik gabe.

- Talde honek normalean baliabide murriztagoak izan ohi ditu eta integrazio arazoak ere izan ditzake. Kriaren arazoak kanpotarrenganako xenofobia areagotzea ekarri du azpeitiarren artean (!)

#### GIZARTE ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK




- Azken hamarkadan Azpeitiko biztanleen beharrak asetzeko gizarte zerbitzuetako baliabideak areagotu egin dira.** 2000 urteaz geroztik 7 baliabide berri daude, eta igoera hori batez ere 2005 eta 2009 urteen artean gertatu da. Egun 16 inguru dira azpeitiarrek euren herrian eskuragarri dituzten gizarte zerbitzuetako baliabideak.



*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Gaiak*

- Hala nola, adinekoentzat eta pertsona ezinduentzat ondoko egoitza eta azpiegiturak daude:
  - Bi egoitza: bat hirugarren adinarentzat eta beste bat ezinduentzat
  - Hiru eguneko zentro: hirugarren adinarentzat, osasun mentalekoa eta pertsona ezinduentzat
  - Hiru jubilatutako etxe



*Iturria: Azpeitiko Udala. Gizarte Zerbitzuetako Saila*

- Horiez gain, beste hainbat talderentzat ere badira egoitzak Azpeitian, horien artean:
  - Gizarte Larrialdietako etxebizitza bat
  - Zailtasun sozialak dituzten familientzat etxebizitza
  - Zailtasun sozialak dituzten pertsonentzat etxebizitza
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako giza baliabideak Zerbitzu burua eta 4 teknikarik, eta 2 administrarik osatzen dituzte, hauekin batera azpikontrataturako 2 hezitzaile eta psikologo bat aritzen direlarik (bakoitzak lan jardunaldiaren 3/4ak). Gainera, Eguneko zentroa eta Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren (subkontratuta) kudeaketarako beste bi gizarte langile eta 32 etxez etxeko eta geriatriako laguntzaile ere aritzen dira. **Administrari baten beharra sumatzen da zerbitzua osatze aldera (!)**
- **Zehazki 3. adinari dagokionez, Azpeitiko biztanleriaren artean geroz eta adineko jende gehiago dagoen heinean, eskaria ere gora doa** eta gizarte zerbitzuek horri aurre egiteko eguneko zentroetako plazak nahiz egoitzetako plazak gehitu behar izan dituzte.
- Horrela, 2003az geroztik bikoiztu egin da Azpeitiko eguneko zentroetan eskaintzen den plaza kopurua. Eta 2010ean 14,24 plaza eskaintzen zituzten mila biztanleko, Gipuzkoako datua baino altuagoa hau (12 plaza mila biztanleko Gipuzkoan).
- **Egoitzetako plazei dagokienez**, azken urteetan hauek ere gora egin dute, %35,4ean hain zuzen ere, 2010ean 65 urtetik gorako mila biztanleko 29,27 plaza eskaintzera heldu arte. **Datu hau Gipuzkoak agertzen duena baino askoz ere txikiagoa da**, Gipuzkoan mila biztanleko 43,09 plaza eskaintzen baitira (!).

**ADINEKO JENDEARENTZAT EGUNEKO ZENTROETAN ETA EGOITZETAN PLAZAK (65 URTE EDO GEHIAGOKO ‰ BIZTANLEKO).**

|      | EGUNEKO ZENTROETAN<br>PLAZAK | EGOITZETAN PLAZAK |
|------|------------------------------|-------------------|
| 2003 | 7,20                         | 21,61             |
| 2004 | 7,02                         | 21,95             |
| 2005 | 6,93                         | 21,65             |
| 2006 | 12,79                        | 21,32             |
| 2007 | 12,87                        | 21,45             |
| 2008 | 12,49                        | 20,82             |
| 2009 | 14,61                        | 30,03             |
| 2010 | 14,24                        | 29,27             |

*Iturria: Udalmap*

- **Plaza kopuruak azken urteetan izan duen hazkundera ordea ez da nahikoa izan eta eguneko zentroetako eta erresidentzietako okupazio maila oso altua da** ondoko taulan ikusten denez, bi kasuetan ere %95eko okupazio maila gaindituz ia aldi osoan zehar. Gizarte zerbitzuetatik adierazi denez, **hainbat kasutan itxaron zerrendak ere egoten dira eta beharrezkoa izaten da zenbait azpeitiar inguruko beste herri batzuetako egoitzetara eramatea (!)**.

**EGUNEKO ZENTROETAN ETA ERRESIDENTZIETAN OKUPAZIO MAILA (ADINEKO PERTSONAK ETA EZINDUAK)**

|      | <b>EGUNEKO ZENTROAK (%)</b> | <b>ERRESIDENTZIAK (%)</b> |
|------|-----------------------------|---------------------------|
| 2003 | 97,74                       | 100                       |
| 2004 | 84,62                       | 100                       |
| 2005 | 92,31                       | 100                       |
| 2006 | 94,23                       | 100                       |
| 2007 | 92,98                       | 100                       |
| 2008 | 93,33                       | 100                       |
| 2009 | 94,12                       | 97,67                     |
| 2010 | 97,01                       | 100                       |


*Iturria: Udalmap*

- **Gizarte sailetik bertatik adierazi denez, Azpeitian hirugarren adineko biztanleriari zuzenduriko baliabide eta azpiegiturak ez dira egun dagoen egoerarako egokienak ez filosofia eta ez egitura aldetik.** Ez eguneko zentroak ez egoitzak ez dira nahikoak eskariari behar bezala erantzuteko, ez dago etxebizitza tutelaturik... Nahita ez heldu beharreko gaia da hirugarren adinari zuzenduriko eskaintza egokitzea (!)
- Hori dela eta adineko pertsonak euren etxeetan eta gizarte eta famili inguruan egoteko erraztasunak eskaintzen ditu Azpeitiko udalak programa eta ekimen ezberdinen bidez (ikus Gizarte politikei dagokien atala).
- **Ezintasunak dituzten pertsonen eta osasun mentalari dagokienez, baliabideen eskaintza hirugarren adinari dagokiona baino osatuagoa da Azpeitian:**
  - Bailara edo Gipuzkoa mailako Atzegiko egoitzak (etxebizitza babestuak) eta eguneko zentroak daude Azpeitian
  - Osamen, osasun mentalaren arloan bailarako eguneko zentroa
  - Aspace-ko errehabilitaziorako zentro bat
  - Txolarte eta Osasun Pastoral, aisialdiko jarduerak sustatzeko taldea
  - Barrera arkitektonikoei dagokienez oso aurreratua dago (lehenetariko herria izan zen Azpeitia)
  - Horiez gain, Azkoitian Gureak-en eguneko zentroa eta enplegu zentro berezia eta Legaiak enplegu zentro berezia daude.
  - ...

**UDALAK GIZARTE ZERBITZUETAN EGITEN DUEN GASTU EKONOMIKOA**




- 2012 urtean Udalak gizarte zerbitzuetara bideratu zuen aurrekontua 925.445 eurotakoa izan zen, 63,79 euro biztanle bakoitzeko. 2013rako %21,36 euroko igoera aurreikusten da, 1.123.120 eurotara helduz, hots, 77 euro inguru biztanleko.
- Udalmapek eskaintzen dituen datuen arabera, Udalak Gizarte Zerbitzuetan egiten duen gastu ekonomiko garbiak hazkunde handia izan du azken urteotan; 2005 urtean, Udalak biztanle bakoitzeko 34,38 euro gastatzen baitzituen gizarte zerbitzuetan (aurreko datuarekin guztiz konparagarria ez bada ere ilustrazio moduan baliagarri izan daitekeen datua da).
- Gainera zifra hau oso baxua zen Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatzen bada, honen kasuan biztanle bakoitzeko 57,49 euro gastatzen baitziren 2005ean.



*Iturria: Udalmap*

- Era honetan, **Azpeitian erakunde ezberdinetatik gizarte zerbitzuetara egiten den ekarpenak hazkunde oso nabarmena izan du azken urteotan**: 2008 urtean ez zen 500.000 eurotara heltzen ekarpen hau, 2012 urtean, 1,87 milioi euro ingurukoa da.



*Iturria: Azpeitiko Udala. Gizarte Zerbitzuetako Saila*

## GIZARTE POLITIKA ZEHATZAK



- Azpeitiko Gizarte Sailak ondoko eremuak landu ditu nagusiki, programa eta ekimen ezberdinak sustatuz:
  - Pertsona nagusiak:** Pertsona nagusientzat eskaintza berezia du Azpeitiko Udaleko Gizarte Ekintza sailak:
    - Etxeko laguntza zerbitzua eta Telealarma zerbitzua
    - Mendekotasun eta ezgaitasun balorazioak
    - Laguntza teknikoak (Mugapen fisikoak dituzten pertsonak zaindu eta hauen autonomia hobetzera bideratua)
    - Aldi baterako egonaldiak eta Harrera familiak
    - "Sendian" laguntza egitasmoa (Besteen laguntza behar duten adineko pertsonak bizi diren familiei prestakuntza ematen zaio, eta autolaguntza taldea ere bai)
    - Laguntza ekonomiko ezberdinen inguruko informazioa eta aholkularitza
  - Familia eta adin txikikoak:** Etxeko laguntza zerbitzua; Esku-hartze psiko-soziala (arrakasta handia izaten ari den programa); "Duelo" laguntza psikologikoa; Laguntza ekonomikoen inguruko informazioa eta laguntza: Seme-alabak izateagatik prestazio ekonomikoa eta Familia eta lana uztartzeko laguntzak (Eusko Jaurlaritza eta Gizarte Segurantzak emandakoak)

- o **Ezintasunak:** Etxeko laguntza zerbitzua; Mendekotasun eta ezgaitasun balorazioak; Aparkatzeko txartela; Laguntza tekniko eta etxebizitza egokitzea; Laguntza ekonomiko ezberdinen inguruko informazioa eta aholkularitza
- o **Drogamenpekotasuna:** Azpeitiko Drogamenpekotasuneko Plana (oraindik indarrean).
  - Drogamenpekotasuna dutenentzat eta euren familiartekoentzat arreta zerbitzua
  - Bizitzarako trebeztan hezteko eta drogamenpekotasunaren programak ikastetxeetan
  - Komunitate terapeutikora joateko diru-laguntzak
- o **Emakumeenganako indarkeria, laguntza soziala** (ikus parekidetasun arloa): Babeserako agindua eskatzea; Aholkularitza juridikoa; Aldi baterako ostatua; Laguntza psikologikoa; 24 orduko telefono bidezko arreta
- o **Gizarteratze soziolaborala:** Gizarteratze hitzarmenak zenbait ikastaro lan mundura bideratuta (geriatria laguntzailea, etxez etxeko laguntzailea, lan trebeziak, lana topatzeko teknikak...)
- o **Elkarteak eta Gobernu Kanpoko Erakundeentzat diru laguntzak**
- o **Etorkinak;** Aholkularitza juridikoa; Errotze txostena, osasun txartela, itzulpen telefonikoko zerbitzua... 2008 urtean Azpeitiko etorkinen inguruko diagnostia eta Immigratio Plana burutu ziren. Azken urteotan ordea aldaketa handiak izan dira eta zaharkituta geratu da. Etorkinen arazoari ez zaio ikuspuntu komunitario batetik heldu, orain artean gizarteratzeko arazoak dituzten norbanako eta familiei zuzendu zaie zerbitzua (!)

## OSASUNA ETA OSASUN ZERBITZUAK

### OSASUN EKIPAMENDU ETA BALIABIDEAK



- **Azpeitia osasun zerbitzuei dagokienez nahiko ondo hornitua dago.** Herriko baliabide propioez gain, eskualde mailako osasun zentroa ere Azpeitian bertan dago. Duela 5 urte inguru gainera, Urrestillan zentro berezi bat ere ezarri zen.
- Farmazien bilakaerak murrizketa joera apala hartua du 2006 urteaz geroztik, bai Azpeitian eta bai Gipuzkoan ere. Horrela Azpeitian 10.000 biztanleko 3,48 farmazia zeuden 2010 urtean, Gipuzkoako zifraren pareko.

#### FARMAZIEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO

|          | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 |
|----------|------|------|------|------|------|
| Azpeitia | 3,56 | 3,53 | 3,48 | 3,50 | 3,48 |
| Gipuzkoa | 4,04 | 4,01 | 3,98 | 3,97 | 3,96 |


Iturria: Udalmap

## ELKARBIZITZA

### HIRITARREN SEGURTASUNA



- **Delitu indizeak gora egin du azken urteotan (!).** Azpeitian, mila biztanleko 23,11 delitu burutu ziren 2011 urtean, 2003an baino 8,36 delitu gehiago mila biztanleko.
- Zifra hau Gipuzkoak orokorrean agertzen duena baino txikiagoa da hala ere, Azpeitian 2011an Gipuzkoan baino 9,2 delitu gutxiago gauzatu ziren mila biztanleko.




*Iturria: Udalmap*

- Bandalismo arazoei dagokienez, aipatzekoa da, bere gora beherak izan dituen arren, eta 2011an igoera arin bat izan bazuen ere, 2012ko datuak azken 5 urteetan izan diren onenak direla.

|                                                         | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 |
|---------------------------------------------------------|------|------|------|------|------|
| <b>Bandalismoarekin erlazionaturiko txosten kopurua</b> | 163  | 139  | 113  | 189  | 102  |

*Iturria: Azpeitiko Udala. Udaltzaingoa*

- Trafiko istripuei dagokionez, egoera nahiko egonkor mantendu da 2009ra arte urtero mila biztanleko 7-8 istripu ingururekin. Esanguratsua da 2010 urtean mila biztanleko 9, istripu gertatu zirela, azken urteetako punturik gorena, baina hurrengo urtean 5,61 istripuraino murriztu zen, hau da, orain arteko daturik baikorrena.
- Gipuzkoako datuekin alderatzen baditugu, Azpeitian jazotako istripuak, ia bikoiztu egiten dira (%10,07 Gipuzkoan 2011 urtean).



*Iturria: Udalmap*

- Trafiko istripuetan harrapatutako oinezkoen bilakaera ere ez da oso aldakorra izan, urtean batez beste 2 eta 5 oinezkoen artean harrapatzen dituzte ibilgailuek Azpeitian.

## GIZARTE KOHESIOA ETA HIRITARTASUNA



- Ez da gizarte kohesioarekin lotutako arazo esanguratsurik agertzen. Hala ere, gizarte kohesioan eragina izan dezaketen eta ekiditen saiatu beharko liratekeen alderdi batzuk aipatzen dira jarraian (!):
  - o Langabezia egoera, kasurik larrienetan zenbait familiaren gizarte-integrazioan eragin dezakeen faktorea (lan prekarietatea, etxebizitza utzi beharra -kaleratzeak- edo lortzeko zailtasunak...)
  - o Etorkinen inguruan sortzen ari den klima, hau ere krisiak eraginda neurri batean
  - o Tabernak eta Gazte lokalak direla medio sortzen diren arazoak (ikus Gazteriari dagokion atala)

## TELEKOMUNIKAZIOAK, ITK-EN IRISGARRITASUNA ETA ERABILERAREN SUSTAPENA



- Azpeitian Kz Gune bat dago. Zentro honek, teknologia berrien eta interneten erabileraren inguruko prestakuntza eskaintzen du urtean zeharreko saio ugariren bitartez eta IT txartela (Informazio Teknologien oinarritzko konpetentzi agiri sistema) ateratzeko azterketa zerbitzuak ere eskaintzen ditu.
- Zentzu honetan aipatu beharra dago, arlo askotatik egin dela Udalaren Web gunea berritu eta eguneratzeko beharraren aipua. Udalak bere herritarrei teknologia berrietara irisgarritasuna bermatzeko web orri dinamikoa, irisgarria, erraza eta erabilgarria eskaintzea behar beharrezkoa da, herritarrak informaturik egoteko, erakunde eta hiritarren arteko harreman zuzena errazteko eta administrazio tramitazioak egitea ahalbideratzeko (!)

## AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

**Lotutako lerro eta programak** (*Lotutako lerro eta programen kodeari eta izenburuari egindako erreferentziak*)

- Ez dira identifikatu

## Indarrean baina garatzeke dauden ekintza garrantzitsuak

- Ez dira identifikatu

## LOTUTAKO PLANAK ETA ARAUDIAK

### Udal mailan

- Udal Berdintasun Plana 2009-2014
- Drogamenpekotasun Plana
- Immigrazio Plana (2008an onartua)
- Gizarte Zerbitzuen urteroko Kudeaketa Plana
- 2012-2013 ikasturteko Jabetze Eskolaren Diseinua
- Genero indarkeria eta sexu erasoen biktimei arreta hobetzeko I Erakunde arteko protokoloa

### EAE mailan

- 3/2009 LEGEA, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoa.
- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
- 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa.
- Gizarte Zerbitzu Legea (proiektua)
- 10/2000 LEGEA, abenduaren 27koa. Gizarte Eskubideen Agiriarena.
- Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoak (2010-2014).
- Erakunde arteko II Gizarteratze Plana 2007-2009
- EAEko Drogamenpekotasunari buruzko bost urteko V Plana. 2004-2008
- Gizarte Informazioan Euskadi Plana 2010: Ia Euskadiko Agenda Digitala
- Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Plana 2006-2009
- EAEko Landa-Garapen Jasangarri Plana 2007-2013

## **EKINTZAK EGITEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK**

### **Udalaren eskumenekoak**

#### **GIZARTE ZERBITZUAK**

- Hirugarren adineko pertsonen inguruko zerbitzuak berregituratu, filosofia aldaketa:
  - Zerbitzu integratu bat eskaini
  - Egoitza eta eguneko zentroen eskaintza indartu, egoitza tutelatuetan barneratuz
  - Adineko pertsonak euren etxeetan eta gizarte eta famili inguruan mantentzeko zerbitzuak eskaintzen jarraitu eta indartu
  - Zahartze aktiboa bultzatu
- Gizarte zerbitzuetako giza baliabideak indartu (jardunaldi erdian administrari bat)
- Immigrazio Plana egungo egoerara egokitu
- Etorkinei kolektibo bezala arreta eta zerbitzua eskaintzeko erronkari erantzuna eman
- Drogamenpekotasuneko Plan berria burutu
- Boluntario lana bultzatu eta indartu (sentsibilizazioa) eta diruz-laguntzen jarraitu
- Gizarte zerbitzuak biztanleei hurbildu; bertatik eskaintzen diren zerbitzu eta programa ezberdin guztien inguruko informazioa eskainiz (web gunea gizarte zerbitzuen erakusleho moduan, informazio kanpainak...)
- Esku-hartze psiko-sozialeko programa indartu
- Gizarte Mahaia sortzeko aukera aztertu (gainerako arlo gehienetan bezala herritar eta eragile ezberdinen ekarpen eta proposamenak jasotzeko)
- Sailen arteko koordinazioa bultzatu, arlo politikoaren inplikazio eta lidergoarekin (orokorra)

#### **ELKARBIZITZA**

- Etorkinak gizarteratzen eta herrian integratzen lagunduko duten ekimen ezberdinak bultzatu (etorkin eta herritarren arteko topagune espazioak, interkulturalitatea landu...)
- Etxe kaleratzeen aurrean desjabetza protokoloa landu eta egoera horretan dauden familiei laguntzeko zerbitzua eskaini
- Tabernetako zarataren arauketa
- Gazte lokalen arauketa (ikus Gazteriari dagokion atala)
- Heziketa zibikoa bultzatu haur, nerabe eta gazteen artean (ikastetxeetan, Ludotekan, Gaztegunean...)
- Udal Web gune dinamikoa, irisgarria, erraza eta erabilgarria egin (Gazte informazio bulegotik egiten ari den lana aprobetxatuz, sail honek landu eta kudeatu dezake)
- Biztanleria heldua eta adinekoa teknologia berrien erabileran prestatu
- Adin txikikoak eta gurasoak interneteko sare sozialen erabileran prestatu eta hauekin lotutako arrisku edo arazoez ohartarazi

#### **Udalaz gairik gabeko eskumena**

- Eskualdeko Enplegu Planean jasotzen den hirugarren adinaren zaintzaren inguruko prestakuntza egitasmoak martxan jarri

# PAREKIDETASUNA


## Aalborgeko konpromisoak:

- 7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA
- 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA

## LAN MERKATUAN EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUN EGOERA




- **Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunari dagokionez, gauzak hobetzen doazen arren, oraindik asko dago egiteko.** Azpeitia oso herri tradizionala da eta zenbait arlotan oso estereotipatua dago gizonezko eta emakumezkoen papera, erresistentziak handiak dira (!)
- Jarduera tasaren azken datuak 2006koak badira ere, lan munduan gizonezkoek emakumezkoek baino presentzia handiagoa dutela argi ikusten da, nahiz eta emakumeak pixkanaka geroz eta gehiago sartzen ari diren lan-munduan ere.




*Eustat:Biztanleria aktiboa*

- Langabetu kopuruari dagokionez, bi joera nabarmen aipatu beharra dago:
  - Alde batetik krisi garaiaurreko joera, non beti ere emakumezkoek gizonezkoek baino pisu handiagoa izan zuten, eta joera hori nahiko egonkor mantendu zen 2008 arte.
  - 2008tik aurrera ordea, gizonezkoen langabeziak gora egin du eta gizonezko eta emakumezkoen arteko aldea murriztu egin da, ia bien pisua berdindu arte.




*Iturria: Lanbide*

- **Dena den, langabezia tasa kontuan hartuko bagenu, eta datu eguneraturik eskura ez dugun arren, emakumezkoen tasa oraindik ere gizonezkoena baino handiagoa izango da ziur aski.**



*Iturria: Udalmap*

- **Kontratazioari dagokionez, aipatzekoa da emakumeen artean errotazio indizea gizonezkoen artean baino handiagoa dela, hots, aldizkakotasuna handiagoa dela.** 2011 urtean gizonezkoek 1,84 kontratu sinatu zituzten emakumezkoek aldiz 2,69 (!).
- Enpresa mundua oso maskulinizatua dago industria edo eraikuntza bezalako arloetan, sektore hauetan sinatzen diren kontratuen gehiengo oso zabala gizonezkoek dagokie oraindik ere; zerbitzuetan aldiz emakumezkoen presentzia askoz handiagoa da.
- Orokorrean, gizonezkoek batez besteko diru-sarrera handiagoak izaten dituzte. Datuek adierazten duten bezala, 2001-2009 aldian diru-sarrerak hazi diren arren (bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen kasuan), bien arteko desberdintasuna mantendu egin da. 2001 Urtean, emakumezkoek 10.698 euro gutxiago jasotzen zuten gizonezkoek baino batez beste eta 2009an diferentzia hori areagotu egin zen, 14.125 euro gutxiago jasotzen zutelarik.



*Iturria: Eustat, errenta pertsonala*

- Horrez gainera, Gipuzkoako datuekin alderatzen badugu, aipatzekoa da gizonezko eta emakumezkoen arteko diferentzia Azpeitian handiagoa dela (2009an 11.238 euroko aldea Gipuzkoan).

#### UDALETXE MAILAN EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUN EGOERA



- Udal mailan emakumezkoen presentzia ziurtatua dagoen arren, oso estereotipatua dago, batez ere arlo politikoan eta teknikoan. (!)
- Sentsibilizazio lan handia dago oraindik egiteke berdintasun irizpideak udaletxe mailan arlo guztietara zabaldu, barneratu eta integratzeko (Hizkuntza eta irudi ez sexisten erabilera, baldintza pleguetan klausulak ezartzea, ...) (!)

#### BERDINTASUN POLITIKAK



- Azpeitiko Parekidetasun Sailaren helburu nagusia genero ikuspegia udaletxeko arlo guztietan txertatzea da, emakume eta gizonentzat aukera berdinetan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko.
- **Helburu horiek lortzeko asmoz, Azpeitiko Parekidetasun Plana 2009an onartu zen** (I Udal Berdintasun plana). 2010-2014 aldirako plana bazen ere, baliabideen urritasuna dela eta ez da aukerarik izan plana bere osotasunean gauzatzeko, bertan jasotako ekintza asko beraz oraindik martxan jartzeke daude (!)
- Horrezaz gain beste hainbat baliabide ere eskaintzen dira berdintasun arloan:
  - **Giza zerbitzuekin elkarlanean genero indarkeriaren aurkako Protokoloa egin da** (Genero indarkeria eta sexu erasoen biktimei arreta hobetzeko I Erakunde arteko protokoloa). Egun helburua emakumezkoen zerbitzu juridiko orokor bat eskaini ahal izateko bitartekoak jartzea da (!)
  - **Hezkidetzaren proiektua.** Azken 5 urteetan ikastetxeekin lan egiten da parekidetasunaren oinarriak txikitatik irakatsi eta transmititzeko helburuarekin. Herriko ikastetxe guztiez gain, Gaztelekuak, hezkuntza ez arautuko zentroek etab. Ere parte hartzen dute bertan.
  - **Jabetze Eskolak 2012-2013.** Jabetza eskola sarean ere sartuta daude eta bertatik ikastaro, mahai inguru... ugari antolatzen dute.
  - **Emakume Txokoa.** Herrian lokal bat egokitu da Emakume Txoko bezala erabiltzeko. Bertan ekimen eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira: sexualitatea, euskara ikastaroak emakume kanpotarrei, kultur arteko gelak, ikastaroak, hitzaldiak... Azken urtean erantzun maila handia izan da eta kualitatiboki oso ondo baloratzen dute erabiltzaileek. **Erreferente izan nahi du arlo honetan (!).**
- Parekidetasun arloa bideratzeko **Emakumeen Mahaia** eratu zen 2003 urtean, bertan herriko eragile eta herritar ezberdinen proposamenak jaso eta eztabaidatzeko. Parekidetasun Saila sortuz geroztik ordea (2008) indar handia hartu du mahai honek eta parte hartzea oso aktiboa da. Izatez izaera kontsultiboa badu ere, Praktikan erabakiak hartzeko ahalmena ematen zaio.

## AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

**Lotutako lerro eta programak** (*Lotutako lerro eta programen kodeari eta izenburuari egindako erreferentziak*)

- Ez dira identifikatu

**Indarrean baina garatzeke dauden ekintza garrantzitsuak**

- Ez dira identifikatu

## LOTUTAKO PLANAK ETA ARAUDIAK

### Udal mailan

- Udal Berdintasun Plana 2009-2014
- 2012-2013 ikasturteko Jabetze Eskolaren Diseinua
- Genero indarkeria eta sexu erasoen biktimei arreta hobetzeko I Erakunde arteko protokoloa

### EAE mailan

- EAE-ko Bosgarren Berdintasun Plana 2010-2012 (egun Seigarren Plana burutzen)

## EKINTZAK EGITEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

### Udalaren eskumenekoak

- Udaletxeko sail ezberdinen arteko sentsibilizazio lana berdintasunaren inguruan, zeharkako gai bezala uler dadin
- Hizkuntza eta irudi ez sexisten erabilera zabaldu lehenik udaletxe mailan eta ondoren gizartean
- Baldintza pleguetan kontrataziorako klausulak ezarri
- Udaletxe mailan burutzen diren azterketa eta ebaluaketa ezberdinetan eta sail ezberdinetan emakumezko eta gizonezkoen arteko datu bereizketa barneratzen joan (adierazle etab.-en bidez)
- Emakume txokoa berdintasun arloan erreferente bihurtu, parekidetasunaren aldeko ekimen, aldarri eta taldeen topalekua izan dadin:
  - Egun osoan zehar irekita mantentzeko bitartekoak ezarri
  - Zerbitzu juridiko orokor bat eskaintzeko bitartekoak ezarri bitartekoak ezarri
- Herriko emakumeek egin duten ekarpenari buruzko azterketa bat bultzatu
- Sailen arteko koordinazioa bultzatu, arlo politikoaren inplikazio eta lidergoarekin (orokorra)
-

### **Udalaz gaindiko eskumena**

- Ez dira identifikatu



## ETXEBIZITZA


Aalborgeko konpromisoak:

9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA

### ETXEBIZITZA PARKEAREN EZAUGARRIAK



- **Azpeitiko etxebizitza parkea 2011 urtean 6.433 etxebizitzaz osatzen zen<sup>1</sup>.** Urola Kostaldeko 11 herrialdeek osatzen duten biztanleria osoaren %20 eta etxebizitza parke osoaren %17 inguru biltzen du Azpeitiak eta, Zarautzen ondoren, etxebizitza gehien dagoen eskualdeko udalerrria da.
- **2005 urteko datuekin alderatzen badugu, zifra honek %7ko hazkundera suposatzen du.** Eskualdeko gainerako udalerririk handienetan izan den hazkunderaren aldean apala, baina Gipuzkoako batez bestekoa baino altuagoa da (%5,5).
- Azpeitian, **hazkunde hau**, lehen urteetan etxebizitza parkea nahiko egonkor mantendu ostean, **2009 urtetik aurrera hasten da batez ere**. 2009-2011 urteen artean Azpeitiko etxebizitza parkea 400 etxebizitza inguru gehiagoan hazi zen.
- Azpeitiko Hirigintza planeamenduaren arabera (Udalplan) 2012 urtean herrian 6.631 etxebizitza daude, 2009an hasitako hazkundearekin jarraituz. **Datu hauen arabera beraz, azken 4 urtetan hazkunde nabarmena izan da Azpeitiko etxebizitza parkean.**




*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia*

- **Etxebizitza nagusiak ez diren edota hutsik dauden etxebizitzetara dagokienez berriz, 2011 urtean 1.173 ziren guztira<sup>2</sup>, hau da, etxebizitza parke osoaren %18,2 inguru.** Zifra hau Gipuzkoako batez bestekoa baino apur bat altuagoa da (%16,4).
- Mota honetako etxebizitza kopuruak ere bere gora beherak izan ditu; 2005 urteaz geroztik hasitako beheranzko joera baten ostean, 2008 urtean kopururik txikiena izatera iritsi zen (960 etxebizitza huts, hau da, parke osoaren %16). Urte horretatik aurrera, krisialdi ekonomikoaren hasierarekin bat etorriz, berriz ere goranzko joera hartzen du etxebizitza hutsen kopuruak, egungo zifretara helduz (aztertu den aldi osoko, 2005-2011, daturik altuena). (!)

<sup>1</sup> Foru Aldundian eskuragarri dauden datuen arabera

<sup>2</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztzen dituen datuen arabera



*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia*

### ETXEBIZITZA PARKEAREN BIRGAITZEA



- Eskuragarri dauden datuen arabera, Azpeitiko etxebizitza parkea, Gipuzkoako parkea oro har hartuta baino egoera hobean dagoela esan daiteke:
  - 2001 urtean Azpeitian **etxebizitzaren %11,7 egoera kaxkarrean zeuden eraikinetan aurkitzen zen**, baina zifra hau Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik kokatzen da (%14,9).
  - Era berean, udalerriko **Konfort indizearen**<sup>3</sup> batez bestekoa 75,5ekoa zen 2006 urtean, kasu honetan ere, Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik kokatzen da (72,7).
  - Aurreko guztiarekin lotuz, 2010 urtean Azpeitian **50 urte baino gehiago zituzten etxebizitzaren batez bestekoa %11,7koa zen**, Gipuzkoako batez bestekoa baino ia ehuneko 10 puntu baxuagoa. Udalerriko etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna ere, 35,5 urterekin, Gipuzkoakoa baino 4 urte baxuagoa da.

#### HONDATUTA EDO EGOERA KAXKARREAN DAUDEN ETXEBIZITZAK (%), KONFORT INDIZEA, 50 URTE BAINO GEHIAGO DUTEN ETXEBIZITZAK ETA ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKOA (%)

|          | HONDATUTA EDO EGOERA KAXKARREAN DAUDEN ETXEBIZITZAK (%) 2001 | KONFORT EDO EROSOTASUN INDIZEA 2006 | 50 URTE BAINO GEHIAGOKO ETXEBIZITZAK 2010 (%) | ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO ANTZINATASUNA 2010 |
|----------|--------------------------------------------------------------|-------------------------------------|-----------------------------------------------|-----------------------------------------------|
| Azpeitia | 11,7                                                         | 75,5                                | 11,7                                          | 35,5                                          |
| Gipuzkoa | 14,9                                                         | 72,7                                | 21,0                                          | 39,8                                          |

*Iturria: Eustat. Biztanlera eta etxebizitzaren errolda*


- Dena den, zonalde guztietan egoera ez da berdina eta aipatzekoa da Alde Zaharra, nahiz eta azken aldian promozioen bat egin den, nahiko zaharkituta geratu dela. Herria handituz joan den heinean, kanpoaldeko beste zonalde batzuetan eta erdialdean promozio berriak egin dira eta zerbitzu asko eta asko zonalde hauetara eramán dituzte. **Alde Zaharra, elementu erakargarri berezirik gabe, gainbehera etorri da**, bizitasuna galdu du eta herritar askok ez du bertan bizi nahi (hainbat etxebizitza saldu gabe ere geratu dira) **(U)**.

<sup>3</sup> Erosotasun indizearen balorea, etxebizitzetan beharrezkotzat jotzen den ezaugarri multzo baten arabera, instalazio edo zerbitzu bakoitzari ezartzen zaion puntuazioen baturarekin lortzen da. Etxebizitzak indize baxua duela esaten da 50 puntura iristen ez denean, 50 eta 75 balore artean dagoenean erosotasun ertaina duela esaten da eta 75 puntutik gora erosoa dela esan daiteke.

## ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA



- Azpeitian behin behineko onarpena eman berri zaion Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean, **datozen zortzi-hamar urtetan 1.300 etxebizitza berri eraikitzeko aukera aurreikusten da.**
- **Etxebizitza sozialen aldeko apustua argia da,** aurreikusitako etxebizitzaren erdia baino gehiago babestuak (tasatuak edo BOE) izango lirateke.
- **Azken bosturtekoan ordea, Azpeitian etxebizitzak egiteko emandako baimen berrien kopuruak beherakada nabarmena izan du:** 2003-2007 bosturtekoan mila biztanleko 38,3 etxebizitza egiteko baimena eman bazen, 2007-2011 bosturtekoan %20,5eraino jaitsi da. Hala ere zifra hauek Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik kokatzen dira (%19,1).




*Iturria: Udalmap*

- Etxebizitza babestuez ari garelarik, 2011 urtera arte ez zen Babes Ofizialeko Etxebizitzarik izan eskuragarri Azpeitian, baina urte horretan 230 bat etxebizitza inguru amaitu ziren (mila biztanleko 15,86). Gipuzkoan 2007-2011 bosturtekoan mila biztanleko amaitu zen etxebizitza kopurua bikoiztuz (%7,6).

## ETXEBIZITZA BEHARRA ETA ESKARIA ETA HAUEN ARTEKO BALANTZEA



- Etxebizitzaren salerosketa eragiketek, udalerriko etxebizitzaren merkatuak azken urteetan izan duen bilakaeraren berri ematen digute. Azpeitian etxebizitzaren salerosketak 2005-2009 bosturtekoan beherakada nabarmena jasan zuen, 2005ean 145 eragiketa burutzetik 2009an 48 eragiketa soilik izatera pasatuz (hiru aldiz gutxiago). Urte haietan azpeitiar ugarik erosi zuten etxebizitza inguruko herrietan (Azkoitia...).
- Urte honetatik aurrera ordea, salerosketek goranzko joera hartzen dute, gauzatu ziren promozio berriei esker batez ere; **2010ean 137 eragiketa burutuz eta 2011ean, 296 eragiketarekin, gailurrera helduz** (2009an baino 248 eragiketa gehiago, hau da, sei aldiz gehiago).
- **2011-2012 urteen artean, salerosketa kopuruak behera egiten du,** 2012ko 58 eragiketekin, berriro ere 2008-2009ko zifretara bueltatuz.



*Iturria: INE etxebizitzaren salerosketen buruzko estatistika*


- **Azken hiru urteotan salerositako etxebizitzaren ezaugarriak dagokienez**, ondokoa esan daiteke:
  - o **Eragiketen %66 inguru etxebizitza berriei dagozkienak dira**, gehiengoa 2011 urtean zehar egindakoak (2011ko BOEn promozioa nagusiki).
  - o Bestalde, azken hiru urte hauetan **salerositako etxebizitzaren %58 inguru etxebizitza libreak dira**, nahiz eta 2011 urtean salerositako etxebizitzaren gehiengoa babestutakoak izan ziren (206 babestutako eta 90 libreak). 2010 eta 2012 urteetan apenas salerosi da etxebizitza babesturik.

#### AZKEN HIRU URTEETAKO ETXEBIZITZA SALEROSKETEN EZAUGARRI NAGUSIAK

|                             | 2010       | 2011       | 2012      | GUZTIRA    | %            |
|-----------------------------|------------|------------|-----------|------------|--------------|
| Etxebizitza berria          | 49         | 254        | 20        | 323        | 65,8         |
| Bigarren eskuko etxebizitza | 88         | 42         | 38        | 168        | 34,2         |
| Etxebizitza librea          | 137        | 90         | 57        | 284        | 57,8         |
| Babestutako etxebizitza     | 0          | 206        | 1         | 207        | 42,2         |
| <b>GUZTIRA</b>              | <b>137</b> | <b>296</b> | <b>58</b> | <b>491</b> | <b>100,0</b> |

*Iturria: INE etxebizitzaren salerosketen buruzko estatistika*

- **2012an, Azpeitian errolatuta dauden biztanleen artean, 386 lagun dira Etxebiden izen emanda daudenak** (hau da, etxebizitza babestuen eskaria mila biztanleko 26,6koa da). Esan daiteke zifra hau nahiko baxua dela, Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatzen badugu (%41,8).
- Bilakaerari dagokionez gainera azken urte hauetan, **Etxebiden egindako eskari kopurua beherantz doa, nahiz eta 2011-2012 urteen artean apur bat igo den** (2008an %50,3koa zen eskaria, aldi osoan izandako altuena, 2011rako %24,5era jaitsi zen eta 2012an berriro ere apur bat igotzen da %26,6raino).



*Iturria: Udalmap*

- Azpeitian erroldatutako biztanleek egiten dituzten 386 eskari horiez gain, badira Azpeitian beste 358 etxebizitza eskari, beste udalerrietako biztanleek egiten dituztenak. **Guztira beraz, Etxebiden 744 etxebizitza eskari daude Azpeitirako.**
- Etxebideri lotutako eskari honen ezaugarrien azterketak ondokoa adierazten digu:
  - o Azpeitian erroldatutakoen artean, eskatzaileen %70 inguruk BOE berria erosi nahiko luke eta %56 inguru alokairuaren aukerari heltzeko prest egongo lirateke (horien artean batzuek bi aukerak hautatu dituzte). Alokairua hautatzen dutenen artean, gehiengoak BOEn eta Biziguneren aldeko apustua egiten dute (%50 eta %40 hurrenez hurren).
  - o Beste udalerrietan erroldatutakoen artean, ere joerak oso antzekoak dira, aipatzekoa da ordea kasu honetan, alokairu sozialaren eskaera zertxobait altuagoa dela.

**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ESKARIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK 2012**

|                    | Azpeitian Erroldatuak | %            | Eskari osoa | %            |
|--------------------|-----------------------|--------------|-------------|--------------|
| <b>EROSKETA</b>    | <b>270</b>            | <b>69,9</b>  | <b>528</b>  | <b>71,0</b>  |
| BOE Berria         | 267                   | 69,2         | 521         | 70,0         |
| BOE Erabilia       | 107                   | 27,7         | 292         | 39,2         |
| BOE Tasatua        | 155                   | 40,2         | 304         | 40,9         |
| <b>ALOKAIRUA</b>   | <b>216</b>            | <b>56,0</b>  | <b>443</b>  | <b>59,5</b>  |
| Soziala            | 128                   | 33,2         | 309         | 41,5         |
| BOE                | 196                   | 50,8         | 396         | 53,2         |
| Bizigune           | 157                   | 40,7         | 309         | 41,5         |
| Udal Programak     | 4                     | 1,0          | 20          | 2,7          |
| Zuzkidura bizileku | 26                    | 6,7          | 69          | 9,3          |
| <b>GUZTIRA</b>     | <b>386</b>            | <b>100,0</b> | <b>744</b>  | <b>100,0</b> |

*Iturria: Azpeitia-Lantzen (Txostenaren igorpen data: 2012/06/07)*

- Azkenik aipatzekoa da eskatzaile hauen artean, batez besteko diru-sarrerak 12 mila eurotik beherakoak direla kasuen %26tan eta 12-22 mila euro artekoak kasuen %34tan. Kontuan hartu beharrekoa da beraz, honek zenbait etxebizitza motatarako sarbidea muga dezakeela (egin beharreko ordainketei aurre egiteko zailtasunak direla medio) (!).
- Datu hauei erreparatuz, suma daiteke jada, **alokairuaren aldeko apustua egiten dutenak**, nahiz eta egun krisi egoera dela eta kopuru honek gora egin duen, **oraindik ere**

**gutxiengoa direla.** Hori bera baieztatu digute Azpeitia Lantzenetik ere (!). Dena den, azken urteetan egin diren ahaleginak direla medio, gaur egun 50 bat etxebizitza daude alokairuan Bizigune programaren bidez.

- Etxebidetik egiten den jarraipena alde batera utzita, **oso zaila da udalerriko benetako etxebizitza eskaria eta honen ezaugarriak ezagutzea (!).**

#### ARLO INSTITUZIONALA: ETXEBIZITZA POLITIKA



- Azpeitian egun, bidean izan diren oztopoak direla medio (2007ko Arau Osagarrien baliogabetzea), 1992an onartutako Hirigintza Plan Orokorra dago indarrean oraindik, nahiz eta 2013ko otsailean bertan, datozen zortzi-hamar urterako plangintza zehazten duen Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriari behin behineko onarpena eman zaion.
- Plan Orokor honen ildo estrategiko nagusiak eraikuntzarako dagoeneko sailkatuta dauden lurrei etekina ateratzea (helburu horrekin lur gehiago sailkatu beharrik ez izateko) eta herriaren hazkunde urbanistikoa ahal den neurrian barnerantz bideratzea dira.
- Udalak etxebizitza politikaren arloan duen baliabide nagusia, Azpeitia Lantzen Etxebizitzaren Udal Sustapeneko erakundea da. Erakunde honen helburu nagusiak higiezinaren sustapena eta salerosketa dira, dena den, egun bere egiteko edo ardura nagusien artean daude...
  - Udalerriko Babes Ofizialeko 18 etxebizitzaren alokairua kudeatzea
  - Azpeitian Bizigune programa aurrera eramateko bitartekoak jartzea. 2004 urtean sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin Bizigune Programa aurrera eramateko hitzarmen. Azken urteotan, krisia dela medio saldu ezinean geratu diren hainbat etxebizitza programa honen bidez alokairuan jarri dira.
- Duela 6 bat urte etxebizitzaren egoera zela eta, udalerrian etxebizitza premiaren nondik norakoak ezagutzeko diagnosi bat egin zen. Egungo egoerak, azken urteetan izan den aldaketa handia dela medio, garai hartako ikerketa baliorik gabe uzten du. Epe laburrean promozio berririk egitea aurreikusten ez bada ere, etorkizunari begira udalak zein nolako etxebizitza eskaintza egin beharko lukeen jakiteko, azpeitiarren eskari eta behar berriei buruzko hausnarketa bat egitea beharrezkoa izango litzateke (!).
- Etxe-kaleratzeen inguruan sortu den egoera ikusita, Udala Etxe-kaleratzeen Aurkako Protokoloa lantzen ari da egun, etorkizunean egoera horretan aurki daitezkeen herriko familiei irtenbide duin bat eskaintzeko.
- Udaletxetik eta Azpeitia Lantzenetik ez da etxebizitza hutsak betetzeko eta lokal komertzialak etxebizitza bezala gaitzeko politika zehatzik landu (!).

## AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

**Lotutako lerro eta programak** (*Lotutako lerro eta programen kodeari eta izenburuari egindako erreferentziak*)

Ez dira identifikatu

**Indarrean baina garatzeke dauden ekintza garrantzitsuak**

Ez dira identifikatu

## LOTUTAKO PLANAK ETA ARAUDIAK

### Udal mailan

- Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (Behin behineko onarpena 2013ko otsailean)

### EAE mailan

- Etxebizitza Legearen aurreproiektua
- 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzorua eta hirigintza
- Bizitegiatarako etxebizitzetan Inspekzio Teknikoa erregulatzen duen Dekretua (kontsulta fasean)
- 39/2008, martxoak 4ko Dekretua, babes publikoa duten etxebizitzaren erregimen juridikoari buruzkoa eta etxebizitza eta lurzoruari dagokienez finantza neurriak
- 316/2002, abenduak 30eko dekretua "Etxebizitza Hutsa Programa" bultzatzen duena
- 2011ko azaroaren 23ko Agindua, etxebizitza lehenera ekartzeko finantza neurrien eraldaketari buruzkoa (ITE eta efizientzia energetikoa)
- 2010eko urriak 6ko Agindua, Etxebizitza, Obra Publikoa eta Garraioak kontseilariaren eskutik, etxebizitza erosteko finantza neurriak. (EHBO 203 zenb., 2010ko urriaren 21ekoa)
- 2010eko uztailaren 21eko Agindua, Etxebizitza, Ora Publiko eta Garraioak kontseilariaren eskutik, EAEko administrazio orokorreko lurzoru jabetza lortzeko baldintzak ezartzen direnak, hauetan BOE zehatz batzuk eskubidez eraikita daudenak. EHBO 146 zenb., 2010eko uztailaren 30ekoa)
- 2008ko irailaren 8ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Kontseilariaren eskutik, BOEa irisgarritasuna izateko ponderatutako urteko diru-sarreraren eguneratzeari buruz (EHBO 170zenb., 2008ko irailaren 8koa)
- 2006ko urriak 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Kontseilariaren aginduz genero indarkeria jasaten duten emakumeentzat etxebizitza esku hartze neurri positiboari buruz (EHBO 195zenb., 2006ko urriak 11koa)
- 2006ko abenduaren 29ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako kontseilariaren eskutik, etxebizitza birgaitzeko finantza neurriei buruzkoa (EHBO 18 zenb., 2007ko urtarrilaren 25ekoa)
- 
- AGINDUA, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, lehentasunez erregimen orokorreko zein erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeari

dagozkion lurzoruaren inguruko finantza neurriei buruzkoa

- 2003ko apirilaren 22ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako kontseilariaren eskutik, "Etxebizitza Hutsa Programa"ko jabetza prozedura eta zesioari buruzkoa (EHBO 96 zenb., 2003ko maiatzaren 19koa)
- 2002ko abenduak 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Kontseilariaren eskutik, etxebizitzaren beharrerako egoerak
- 2002ko abenduak 30eko Agindua, Babes ofizialeko etxebizitzarako laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa
- Etxebizitza Plan Gidatzailea eta hirigintza lehenera ekartzea 2010-2013
- Etxebizitzak birgaitzeko eta hirigintza lehenera ekartzeko EAEko Plan Estrategikoa 2010-2013

## **EKINTZAK EGITEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK**

### **Udalaren eskumenekoak**

- Plan Orokorrean aurreikusten diren etxebizitza berrien eraikuntza herritarren behar eta lehentasunen arabera burutzea ahalbidetuko duen ikerketa burutu
- Behar handiko egoeran dauden talde eta gazteak babestutako etxebizitzetara bideratzeari lehentasuna eman
- Alokairuko etxebizitzaren eskaria sustatzeko sentsibilizazio lana burutu
- Hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea erraztu, alokairuan etxebizitza jarri edota hartu nahi duten biztanleei Bizigune programaren bidez zerbitzua eskainiz
- Etxebizitzetan material ekologikoak eta energia aurrezpen aukerak erabiltzea bultzatu eraikinak birgaitzeko eta eraikitzeko obretan
- Etxebizitza arloan dauden laguntza, aukera eta abarri buruzko informazioa eta aholkularitza eskaini herritarrei

### **Udalaz gaindiko eskumena**

# HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

## Aalborgeko konpromisoak:

- 5. HIRIAREN PLANGINTZA ETA DISEINUA
- 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA

## HEZKUNTZA

### HEZKUNTZA ESKAINTZA



- Azpeitiko hezkuntza eskaintza nahiko zabala da eta ondoko zentro publiko (4) zein pribatuek (3) osatzen dute<sup>1</sup>:

#### UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN HEZKUNTZA ZENTROAK TITULARITASUNAREN ARABERA

| ZENTROAK                                         | Titularitatea |
|--------------------------------------------------|---------------|
| CEIP AZPEITIKO IKASTOLA-KARMELO ETXEGARAI HLHI   | Publikoa      |
| CPEIPS IRAURGI HLBHIP                            | Pribatua      |
| EMPR JUAN DE ANTXIETA MEPR                       | Pribatua      |
| CPEIPS AZPEITIKO IKASTOLA-IKASBERRI KOOP. HLBHIP | Pribatua      |
| IES UROLA IKASTOLA AZKOITIA-AZPEITIA BHI         | Publikoa      |
| EIC AZPEITIKO HAURRESKOLA-UZTARO PHE             | Publikoa      |
| EIC AZPEITIKO HAURRESKOLA-URRESTILLA PHE         | Publikoa      |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila*

- Zentro horiek gainera, unibertsitatez kanpoko hezkuntza maila ezberdinak estaltzen dituzte:

#### AZPEITIKO HEZKUNTZA ESKAINTZA


|                                  | Hezkuntza eskaintza |
|----------------------------------|---------------------|
| Haur hezkuntza                   | 5 zentro            |
| Lehen hezkuntza                  | 3 zentro            |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 3 zentro            |
| Batxilergoa                      | 3 zentro            |
| Erdi Mailako Heziketa Zikloa     | 4 zentro            |
| Goi Mailako Heziketa Zikloa      | Zentro 1            |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila*

- Azken ikasturtean (2010-2011) guztira 2.862 ikasle zeuden zentro hauetan matrikulatuta, duela hamar urteko datuekin alderatzen baditugu %13,2ko hazkundera erregistratzen da.


<sup>1</sup> Horiez gain, aipatzekoak dira Musika eskola eta Helduentzako Hezkuntza eskaintza

- Orain artean hezkuntza pribatua gailendu bada ere, **2010-2011 ikasturtean lehen aldiz zentro publikoetan matrikulatutako ikasleek zentro pribatueta matrikulatuak gainditu dituzte**. Era honetan, zentro pribatueta matrikulaturiko ikasle kopurua nahiko egonkor mantendu den bitartean, zentro publikoetakoak %30,2ko hazkundea izan du azken hamar urtetan.




*Iturria: Eustat. Eskola jardueraren estatistika*

- Lehen hezkuntzak eta batez ere haur hezkuntzak nabarmen egin dute gora azken hamar urteotan, (asko igo da ikasle kopurua, %15 lehen hezkuntzan eta %40 haur hezkuntzan, azken kasu honetan zentroen eskaintza zabaldu delako ere bai). **Lanbide heziketak aldiz beherakada nabarmena jasan du** (ia %65 azken 10 urtetan). Aipatzekoa da zentzu honetan, Eskualdeko Enplegu Plana burutzeko egin den diagnosian ere identifikatu dela **egun herrian eta eskualdean lanbide Heziketarako dauden azpiegiturak ahulak direla eta ez datozela bat bertako produkzio sare edo enpresen eskari eta errealtatearekin. (!)**



*Iturria: Eustat. Eskola jardueraren estatistika*

- Hezkuntza ereduari erreparatzen badiegu berriz, ikasleen %93 inguru D ereduan matrikulaturik dago egun. Gainerako %7ak B ereduan burutzen ditu ikasketak.



*Iturria: Eustat. Eskola jardueraren estatistika*

## HEZKUNTZA ESKARIA



- Azpeitian eskolaratzeko adinean dauden biztanleak 2.644 dira (0tik 16 urte arte). Horiei 17 eta 18 urte bitarteko herriko beste 262 gazte gehitzen bazaizkie, unibertsitate hezkuntzaz kanpoko ikasle potentzialak 2.906 izango lirateke guztira.

### ESKOLARA JOATEKO ADINEAN DAUDEN BIZTANLEAK (UNIBERTSITATE IKASKETAK IZAN EZIK)

|                                                 | 2011         | 2012         | Δ%          |
|-------------------------------------------------|--------------|--------------|-------------|
| Haur Hezkuntza Lehen zikloa (0-2 urte)          | 541          | 542          | +0,2        |
| Haur Hezkuntza Bigarren zikloa (3-5 urte)       | 448          | 483          | +7,8        |
| Lehen hezkuntza (6-11 urte)                     | 903          | 929          | +2,9        |
| Derrigorrezko bigarren hezkuntza (12-16 urte)   | 686          | 690          | +0,6        |
| Derrigorrezko hezkuntza ondorengoa (17-18 urte) | 268          | 262          | -2,2        |
| <b>Guztira</b>                                  | <b>2.846</b> | <b>2.906</b> | <b>+2,1</b> |

*Iturria: INE. Biztanleriaren udal errolda*

- Aurreko ikasturteko eskari potentzialarekin alderatzen badugu, Haur hezkuntzako bigarren zikloko ikasle potentzialen artean izan da hazkunderik handiena (%7,8 gehiago, 35 guztira) eta datorren ikasturterako ere, ziklo honetan, goranzko joera honek jarraitu dezakeela aurreikusten da.

## ESKaintza-ESKARIA BALANTZEA



- Eskaintza eta eskariaren arteko balantzeak erakusten duenez, haur hezkuntzan egun, **0 eta 5 urte bitarteko biztanleriaren eskari potentziala Azpeitian dagoen haur hezkuntzako eskaintzak ez luke bere osotasunean estaliko**. Kontuan hartu behar da ordea, 0 eta 2 urte bitarteko haur asko (hau da haur hezkuntzako lehen zikloan) ez direla eskolaratzen, ez plazarik ez dagoelako, gurasoek horrela erabaki dutelako baizik.

- Lehen hezkuntza, Derrigorrezko bigarren hezkuntza eta goragoko mailetan badirudi eskaintza nahikoa izan daitekeela eskariari erantzuteko. Horrenbestez, Azpeitiko ikastetxeak hainbat mailatan eskualdeko erreferente nagusi dira (batxilergoa eta lanbide heziketan esaterako).

#### HEZKUNTZA ESKAINTZA ETA ESKARI POTENTZIALAREN ARTEKO BALANTZEA

|                                 | Hezkuntza eskaintza 2011 | Eskari potentziala 2012 | Eskaintza-eskari diferentzia |
|---------------------------------|--------------------------|-------------------------|------------------------------|
| Haur Hezkuntza (0-5 urte)       | 779                      | 542                     | (-246)                       |
|                                 |                          | 483                     |                              |
| Lehen Hezkuntza (3-11 urte)     | 941                      | 929                     | 12                           |
| D.B.H. (12-16 urte)             | 691                      | 690                     | 1                            |
| Batxilergoa / L.H. (17-18 urte) | 451                      | 262                     | 189                          |
| Guztira                         | 2.862                    | 2.906                   | -(44)                        |


Iturriak: INE. Biztanleriaren udal errolda eta Eustat. Eskola jardueraren estatistika

- Eskualdeko Enplegu Plana dela eta egin berri den diagnosikoak agerian utzi duenez, ordea, **Lanbide Heziketako azpiegiturak ahulak dira, eskaintza mugatua da eta ez dira egungo enpresa sarearen errealitate eta beharretara behar bezala egokitzen (!)**

#### BIZTANLERIAREN HEZKUNTZA MAILA



- Biztanleriaren hezkuntza maila Azpeitian Gipuzkoan eta EAEn, oro har, dutena baino nabarmen baxuagoa da (!). Biztanleriaren ia erdiak (%47,5) ez du derrigorrezko bigarren hezkuntza gainditu (Gipuzkoa eta EAEn portzentajea %40 ingurukoa da). Lanbide heziketako ikasketak (ia ehuneko 3 puntu gutxiago) eta unibertsitate ikasketak (ia ehuneko 4 puntu gutxiago) amaitu dituztenak ere Gipuzkoa eta EAeko batez bestekoen azpitik kokatzen dira.



Iturria: Eustat. Biztanleria eta etxebizitzaren errolda. 2010


- Hau arazo bat izan daiteke, batez ere gazteen artean, asko izan baitziren krisiaren aurretik, urterik onenetan, derrigorrezko ikasketak amaitu bezain pronto edota zenbait kasutan amaitu ere egin gabe lanean hasi zirenak. Egungo krisi egoeran, hau arazo larria da orain lanik gabe geratzen ari diren gazte horien artean (!).

## EUSKARA

### EUSKALDUNTZE MAILA



- Azpeitia oso herri euskalduna izan da betidanik.** Biztanleriaren euskara-gaitasuna Gipuzkoan eta Urola Kostaldea bere osotasunean hartuta baino nabarmen altuagoa da. Eustat erakundeak emandako datuen arabera gainera, Euskal Herrian 10.000 biztanletik gorako herrien artean, batez beste, euskaldun gehien dituen herria da Azpeitia.
- Azpeitiarren %85 inguru euskaldunak dira** (bi urtetik gorako biztanleak kontutan hartuta). Urola Kostaldean portzentaje hau ez da %77tik pasatzen eta Gipuzkoan berriz %53an kokatzen da. Biztanleria erdaldunak ez du %5,8a baino osatzen Azpeitian.



*Iturria: Eustat. Biztanleria eta bizitzaren errolda. 2006*

- Alabaina, askogatik ez bada ere, biztanleriaren 2001eko euskara-gaitasunarekin alderatuz, badirudi apur bat gutxitu egin dela hau. Honen arrazoi nagusia, azken urteetako kanpotarren geroz eta presentzia handiagoa izan daiteke.

#### BIZTANLERIAREN BILAKAERA EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA, 2001-2006

|               | 2001   | 2006   | % Δ 2001-2006 |
|---------------|--------|--------|---------------|
| Euskaldunak   | 11.689 | 11.376 | -%2,7         |
| Ia-Eskuldunak | 928    | 1228   | +%32,3        |
| Erdaldunak    | 703    | 783    | +%11,4        |

*Iturria: Eustat. Biztanleria eta bizitzaren errolda.*

- Euskararen erabilerari dagokionez, **bai etxe erabileraren zein kale erabileraren kasuan ere, emaitzak oso positiboak dira.**
  - Euskararen kale erabilera % 86koa da Azpeitian (2009ko datua).
  - Etxeko hizkuntza erabilerari dagokionean, **2001etik 2006ra gutxitu egin da euskara hutsean egiten duten azpeitiarren portzentajea**, aitzitik, bi hizkuntzetan egiten dutenen proportzioa handitu egin da nabarmen.
  - Nolanahi ere, bi talde hauek batuz (euskara hutsean egiten dutenak eta bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak), **etxean euskara erabiltzen duten azpeitiarren proportzioa %80 ingurukoa da**, 2001ean baino apur bat baxuagoa (%84,1).

ETXEAN ERABILITAKO HIZKUNTZAREN BILAKAERA 2001-2006

|            | 2001   | %     | 2006  | %     | % Δ 2001-2006 |
|------------|--------|-------|-------|-------|---------------|
| Euskara    | 10.380 | 75,7% | 8.973 | 65,0% | -13,6%        |
| Gaztelania | 2.095  | 15,3% | 2.630 | 19,0% | +25,5%        |
| Biak       | 1.154  | 8,4%  | 2.149 | 15,6% | +86,2%        |
| Beste bat  | 79     | 0,6%  | 62    | 0,4%  | -21,5%        |

*Iturria: Eustat. Biztanleria eta bizitzaren errolda.*

- Kasu honetan ere datuok Gipuzkoako batez bestekoa baino askoz hobeak dira.**
- Aurrez ere aipatu da eskolan ere euskararen aldeko apustua argia dela, ikasleen %93a D ereduan matrikulatzen da.
- Azpeitian ere badira ordea hainbat gizarte esparru non oraindik ere euskararen erabilera mugatuagoa den, hala nola arlo sozio-ekonomikoa eta lan mundua (!)

## EKIPAMENDUAK ETA BALIABIDEAK



- Azpeitian Euskara irakatsi eta sustatzeko dauden azpiegitura nagusiak ondokoak dira:
  - Azpeitiko Udal Patronatua
  - Azpeitiko Udal Euskaltegia, Euskal Patronatuaren baitan dagoena
  - Azpeitiko Baite Euskara Elkarte
- Udal Euskaltegian 2009-2010 ikasturtean 7 irakasle ziren eta 104 ikasle izan zituzten guztira. Datu hauek 2005-2006 ikasturteko Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze datuekin alderatzen baditugu, maila berdintsuan mantentzen direla esan daiteke (116 ikasle guztira).
- Azpeitian euskara hutsean aritzen diren tokiko hedabide ezberdinak daude, horien artean zabalkunde handiena dutenak; “Azpeitian zer?” eta “Uzatarria” hilabetekariak, “Urola-Kostako Hitza” eta “Uzatarria.com” agerkari digitala dira. Hala ere azpeitiarrek egunero-egunero irakurtzen duten prentsa nagusiki gaztelania hutsezkoa da. Euskarazko hedabideen kontsumoari eutsi nahi bazaio udalak tokiko hedabideoi ematen dizkien diru laguntzak behar beharrezkoak izango lirateke (!).
- Bestalde, Erabili.com Azpeitiako Udal Patronatuaren web orria ere baliabide garrantzitsua da, edonoren eskura jartzen baititu euskararen normalizazioaren inguruko baliabide, programa, ekimen, arau, eredu... ezberdinak. Euskararen aurrerabidearen erreferentzia bilakatu da webgune hau (2010ean 94.736 erabiltzaile izan zituen eta 254.538 bisita)



- Azpeitian euskara arloaren kudeaketa **Euskara Patronatua** eta **Euskara Mahaiaren** esku dago nagusiki.
- **Azpeitiko Euskara Mahaiaren** xede nagusia hizkuntza normalizazioaren eragile eta dinamizatzaile nagusia izatea da. Esparru askotako taldeak biltzen dira bertan: herriko euskara elkarteak, alderdi eta enpresetako ordezkariak, herritarrak... Guztiak norabide berean aritzea du helburu emaitza eraginkorrakoak lortzeko. Bertan erabakitakoak Udaleko Euskara Batzordeak eta Udalbatzak berretsi behar dituzte.
- **Euskara Patronatua** 1998an sortu zen euskara gizarte-esparru guztietara zabaltzeko. Era honetan, Euskara Patronatuak ildo ezberdinetan bideratzen du bere lana:
  - **Udal Euskaltegiaren** bidez euskalduntze-alfabetatzea. Egun 30 ikastarotik gora eskaintzen dira.
  - **Elegune bulego teknikoaren** bidez arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzeko enpresei eskainitako zerbitzua. Era honetako zerbitzu aitzindaria eta pilotoa da hau. 2010 urtean 42 enpresarekin egin zuen lan bulego tekniko honek (24 industria eta zerbitzu arlokoak eta 18 osasun arlo pribatukoak).
  - **EtorkiZUn egitasmoaren** bidez, ikastetxeekin elkarlanean, haur eta gazte etorkinekin integrazioa lantzea. Programa honi esker, etorkinen seme-alabek bete-beteko hizkuntza integrazioa lortzeko aukera dute (batik bat 10 urtetik beherakoek). 2010-2011 ikastaroan 105 haurrek hartu zuten parte egitasmo honetan, aurreko ikasturtean baino %8 gehiago. Haur etorkinen gurasoek egitasmo honen inguruan egiten duten balorazioa oso positiboa da.
  - **Euskararen Barne Erabilera Plana**, Udaletxeko arduradun, langile eta politikariei zuzendua
  - **Ekintza Plana** (garai batean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia zena), udalerriko biztanleei zuzendua, euskara Azpeitian edonork, edonon eta edozertarako erabiltzea ahalbidetzea helburu duena (arlo pertsonal, sozial eta ofizialean).
- Aipaturiko azken bi Plan orokor hauez gain, zeinak 4 urteko iraupena izan ohi duten, programa edota baliabide bakoitzak (euskaltegiak, Elegunek, etab.) bere urteko kudeaketa plana izaten du.
- Euskararen Barne Erabilera Plana eta Ekintza Plana hain zuzen ere agortu berriak dira eta une honetan 4 urteko Plan berriak lantzen ari dira bi arlo hauetan (!).
- Baliabide orokor horiez gain, badira abian jarri diren **beste zenbait programa eta ekimen** ere, besteak beste; Merkataritza arloan euskararen erabilera sustatzeko planak (2009an 280 establezimenduk zuten era honetako plan bat, hots, %61 inguruk), Bai Euskarari Ziurtagiriaren Sustapena, hau ere batik bat merkataritza arloan (2010ean 49 ziurtagiri zeuden Azpeitian), Erregistro zibilean haurrak euskaraz inskribatzeko aukera (2010ean haurren %64 euskaraz inskribatu ziren), errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera, euskara ikasleentzat diru-laguntzak...
- Bere ibilbidean, hainbat aliantza ere finkatu ditu erakunde ezberdinekin, besteak beste; UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko) kide da eta Gipuzkoako Foru Aldundirekin hitzarmen bat sinatua du hizkuntza normalizaziora bideratutako ekimenak elkarrekin eramateko.

- Hauek guztiak kontuan hartuta, eta lortu diren emaitza onak ikusita, Azpeitiko Euskara Patronatua, euskararen normalizaziorako hainbat eta hainbat arlotan Bide-erakusle eta Bidegile bihurtu dela esatea baino ez da geratzen (horren adibide garbia da “Azpeitiko Udalean eta Udalerrian Euskararen Erabileraren Sustapena eta Normalizazioa Bermatzea Helburu duen Udal-ordenantza”).
- Krisi ekonomikoak eraginda izan diren finantza eta aurrekontu murrizketak ordea ekimen hauetako batzuk bertan behera gelditu dira merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko plangintza programa esaterako (!)

#### EUSKARA UDAL -JARDUERAN



- **Euskararen ezaguera eta erabilera udalerrian ez ezik udal jardunean ere oso zabalduta dago.**
- Egun udaletxeko langile guztiak elebidunak dira eta hizkuntza jarraibideak finkatuta daude; udal jardunean ere beraz, lan hizkuntza zein komunikazio-hizkuntza bezala euskara nagusitzen da.
- Beste administrazioekin dituen harremanetan ere, ahal den neurrian, euskararen erabilera lehenesten da. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin esaterako hitzarmena sinatua dauka Azpeitiako udalak bere harremanetan hizkuntza bakarra euskara izan dadin.
- Kanpora begira egiten diren komunikazioetan ere, euskara lehenesten da, herritarren batek berariazko eskakizunik egiten ez duen bitartean.

#### EUSKARA ETA KULTURA



- Zenbait arlotan euskararen erabilera erabat normalizatuta dago Azpeitian eta herritarrek egiten duten hautua euskararen aldekoa da, besteak beste aisialdia, kirola eta kultur arloan egiten den jardunean.
- Azpeitia bezalako udalerri batean era honetako edozein programazio egiteko garaian (aisialdia, kirola, kultura...) hizkuntza irizpidea kontuan hartzen da, euskarari lehentasuna emanez.
- Bertako usadioak mantendu eta indartzeari dagokionez, aipatzekoa da **Hitanoa suspertzeko egiten ari den saiakera**. Azken urteotan etengabe joan da Azpeitian ere hitanoa galtzen etxeko transmisioak huts egin duelako. Hori dela eta Azpeitian familiarteko eta lagunarteko hikako mintzabidea indartzeko elkarlan estuan ari da Udal Patronatua Mintzola eta ikastetxeekin (Ekimen hau lehen aldiz ari da garatzen Mintzola Fundazioa Azpeitian eta Zumaian).

### KULTURA EKIPAMENDUAK ETA BERAIEIEN ERABILERA



- **Azken urteetan Azpeitiko kultura eta aisialdi ekipamenduen eskaintza nabarmen indartu da** eta zenbait arlotan gainerako udalerrientzako erreferente bihurtzen da (inguruko herririk txikienentzat batik bat). Gaur egun azpiegitura nagusiak ondokoak dira:
  - **Udal Liburutegia**, herriko gazte eta helduei zuzendua. Liburutegi lanez gain, urtean zehar programazio berezia antolatzen da (ipuin kontaketak, literatur txokoa...)
  - **Jesuiten Liburutegia**, erabilera publikoko liburutegia hau ere, 16 urtetik gorako biztanleriari zuzendua eta oso harrera ona izaten ari dena. Udalak bere ordutegia luzatzeko hitzarmena dauka sinatuta erakunde honekin
  - **Betharram aretoa**, urtean zehar hainbat ikastaro, hitzaldi eta bilera burutzen dira bertan (sail ezberdinek antolatuak izan daitezke).
  - **Betharram erakusketa gela**. Duela gutxi berritua izan da eta urte osoan zehar erakusketak (pintura, eskultura, kartelak, komikiak, tailerrak...) eta solasaldiak izaten dira bertan.
  - **Betharram areto gela**, hitzaldiak aurkezpenak, ikastaroak egiten dira eta 100 bat lagunentzako edukiera du.
  - **Soreasu Antzokia**. Oraindik amaitu gabe badago ere (!), Soreasuko Kulturgunea bi eraikin izango ditu: bata auditorioa, dagoeneko martxan dagoena eta bestea, lokal ezberdinak hartuko dituen (ekipamendu honen helburuetako bat, hain zuzen ere, herriko elkarte ezberdinak integratuko dituen espazio bat lortzea baita). Auditorioak 550 bat lagunentzako edukiera du, bertan urte osoan zehar zine emanaldiak izaten dira: hamabostean behin zine forum-a, hilean behin euskarazko filmak ikastetxeentzat eta zine komertziala ere izaten da ikusgai. Horrezaz gain, urteko plangintzaren barne, musika, antzerki, eta dantza emanaldiak eta ikastetxeetako hainbat jaialdi ere izaten dira besteak beste.
  - **Sanagustin Kulturgunea** (300 lagun eserita eta 600 lagun zutik egoteko edukiera), Azpeitiko Kultur Mahaiak kudeatzen du, horretarako kooperatiba elkarte bat eratuz. Baliabide pribatu bezala funtzionatzen du eta bere egitarau propioa du. Herrian izaten diren ekitaldi ugari antolatzen da bertatik, bere jardueraren lehen urtean 169 ekitaldi antolatu ziren (batez beste, 2,1 egunetik behin ekitaldi bat). Programazio anitza eta orekatua da; disziplina ezberdinek, adin talde guztiek, herriko zein kanpoko-taldeek... guztiek dute lekua San Agustinen.
- Horiez gain Trenaren Museoa eta Ingurugiro Etxea bezalako beste baliabide batzuk ere baditu Azpeitiak.
- Herriko kultur talde ezberdinentzat gaitutako lokalak ere badaude herriko zenbait eraikinetan:
  - Urrestillan eta Zubizar etxean musika talde ezberdinentzat lokalak
  - Itsasi dantza taldearen lokala
  - Soreasuko kultur gunea amaitu bitartean eta herriko talde asko elkartzeko lokal gabezia zegoela ikusita, Udalak irtenbide bat eman nahirik Telefonikako eraikinaren 2. pisua egokitu du talde hauentzat.

- Azkenik, organo kontzertuak, abesbatzak etab. herriko eliza ezberdinetan antolatzen dira hauek ere kultur ekitaldi ezberdinen eskenatoki bihurtuz.

## KULTURA JARDUERAK ETA PARTE HARTZEA



- **Azpeitiko kultur eskaintza ekintza desberdin eta orekatuaz osatzen da. Urteroko programazio egonkorraz gain**, non besteak beste; Aste Musikalak, Azpeitia Dantzan, Euskal Antzerki Topaketak (euskara hutsean egiten den zaharrena), Trikitixa jaialdia... eta nola ez, hainbat jai egun (Santotomasak, San Sebastianak, Kalderero eta Inauteriak, Sanignazioak, etab.) eta auzoetako festetako programazioa kontuan hartu behar diren, **urte osoan zehar aurrez aipaturiko ekimenduetan ere** (Soreasu eta Sanagustinen nagusiki) **hainbat ekimen antolatzen dira**.
- Azpeitia betidanik izan da herri festazalea eta **bertan ospatzen diren jai ugarien egitaraua zabala eta anitza da**. Aipatzeko da zentzu honetan bai festa nagusietan, bai auzo ezberdinetako jaietan, **programazioari tradizio aldetik garrantzi handia** ematen zaiola (bertso emanaldiak, trikitixa saioak, sokamuturra...).
- Azken urteotan, krisialdia dela medio kultur arlora bideraturiko baliabideetan ere beherakada izan da. Dena den, **ahal den neurrian kultur programazio eta jardunari lehengoan eusten saiatu da udala**, nahiz eta zenbaitetan beharrezkoa izan den zenbait ekimen bertan behera uztea, formatu txiki edo ertainak lantzea, kanpoko talde gutxiago ekarri eta bertako taldeetara jotzea...
- Oro har, parte hartze maila esanguratsua bada ere, Sanagustin kultur gunean etorkizuneko erronka bezala planteatzen da **zenbait jardueratan gazte gehiago erakarri eta hauek inplikatzeko (!)**.
- Soreasuren erronka nagusia, zinema eta arte eszenikoetan gaur egun dagoen programazio zabal, dinamiko eta iraunkorra Urola bailara guztiarentzat zabaltzea da.

## HERRITARREN KULTUR DINAMIKA



- Azpeitian 25 bat kultur talde eta elkarte daude eta guztiek hartzen dute parte Azpeitiko Kultur Mahaian, kultur dinamika herritarrean ez ezik, udalerriko kultur programazioan eta antolakuntzan ere aktiboki parte hartzen dutelarik.
- Azpeitiko Kultur Mahaia hain zuzen ere, herriko kultur mugimendua eta egitaraua antolatzeko eta kultur azpiegituren funtzionamenduaz eztabaidatzeko sortu zen. Herriko kultur talde guztiak daude Mahaian, eta udal taldeak, teknikariak eta norbanako batzuk ere bai (Kultur Mahaia 400 bazkide ditu -horietatik 22, kultur taldeak dira; gainerakoak norbanakoak-). Urtean, gutxienez, hiru batzar egiten ditu, erabaki nagusiak hartzeko eta urteko planak erabakitzeko.
- Mahaia Talde Eragilea ere badu eta hau hamabostean behin biltzen da. Honen helburua hain zuzen ere udalarekin elkarlanean, herriko kultur eskaintza hobetzea eta eskaintza horretan herriko kultur taldeak protagonista izatea da.
- Kultur ekitaldi eta ziklo ezberdinak antolatu eta kudeatzeko, lan-taldeak osatzen dira (bertsoak, antzerkia, dantza, musika, zinema, abesbatzak, organoa, ...)
- Taldeok arautzeko, "Kultur Mahaiko Funtzionamendua" eta "Kultur Mahaiko Talde Eragilearen Barne Araudia" zehaztu dira.

### KIROL-EKIPAMENDUAK ETA BERE ERABILERA



- **Kirol arloan azken urteotan Udalak esfortzu nabaria egin du** eta azpiegitura eta jarduera ugari jarri ditu herritarren eskura. Era honetran, kirol **ekipamenduen eskaintza askotarikoa da**:
  - **Kiroldegia** (Saskibaloia, futbol eta eskubaloiko pista nagusia; Squash-a; Spinning gela; Gimnasilekua; Muskulazio gela; Ping Pong-a; Rokodromoa; Bulder-a; Sauna lehorra; Lurrinezko sauna...)
  - **Igerileku estalia** (Igerileku handia eta Igerileku txikia, Sauna, Muskulazio gela, Bizikleta gela, Aerobik eta gimnasiako gela...)
  - **Estali gabeko igerilekua**
  - **Kirol-gunea** (paddle eta tenis pistak, futbol zelaiak...)
  - **Beste hainbat futbol zelai, Pilotaleku eta abar.**
  - ...
- Aipatzekoa da dena den, kirol ekipamendu eskaintza bateratu bat egiteko zailtasunak egon daitezkeela, espazialki bata bestearengandik aparte baitaude baliabideok. Ekipamendu hauek gainera, duela urte mordoak eraikitakoak dira eta zenbait instalazioen kasuan egokitzapenak egin badira ere kirol baliabide eta instalazioak zaharkituta geratu dira (!)
- Zerbitzu osagarriei dagokienez, **kirol medikuntza zerbitzua**, kirolari orori orientazioa, beharrezko azterketak eta agiriak eskaintzen zaizkio bertan.

### KUDEAKETA EREDUA



- Azpeitian Kirol arloaren kudeaketarako baliabide edo organo nagusiak udaletxeko Kirol Saila eta Azpeitiko Kirol Patronatua dira. Badira Eskola Kirol Kontseilua edota Kirol Mahaia bezalako organo kontsultiboak ere.
- **Kirol Saila** da udalerrian garatzen diren hiru lan-ildo nagusietako jarduna antolatu eta kudeatzeaz arduratzen dena, udalerriko ikastetxeekin (eskola-kirola), elkarteekin (errendimendu-kirola) eta kirol Patronatuarekin (aisialdiko kirola besteak beste) elkarlanean.
- **Kirol Patronatua** da herriko kirol baliabide nagusien kudeaketa eta mantenuaz arduratzen dena eta aisialdiko kirola bideratzen duena. Elkarlan estuan dihardu Kirol Sailarekin.
- **Azpeitiko Kirol Mahaian** kirol arloko eragile ezberdinek parte hartzen dute eta azpeitiar kirolzale eta kirol elkarte guztiei irekia dago. Bertan herriko kirol esparruarekin zerikusi zuzena duten kontuak aztertzen dira eta, besteak beste, herriko kirol jardueren urteroko egutegia koordinatzea du xede, herriko kirol eskaintza oztopatu edota bikoiztu dezaketen jarduerak saihestuz.
- **Eskola kirol kontseilua**, Azpeitia eta Azkoitiko herriek elkarlanean dihardute arlo honetan. Azpeitiko ikastetxe guztiekin dago hitzarmena sinatuta, egun eskola kirolaren arloan dauden hutsuneak ikusita, Kirol Plana egin dezaten aholkularitza zerbitzu bat jarri du Kirol Sailak martxan (!).
- Egitura eta organo hauek ordea ez dute plangintza zehatz baten arabera lan egiten, **ez dago Kirol Saileko Planik** eta intuizio eta eskaeren arabera jartzen dira nagusiki ekimenak (!).

- Egun kirol arloan burutzen den lan-jarduna eta ekimen ezberdinak behar bezala aurrera eramateko giza baliabideak indartzeko aukera aztertu beharko litzateke (!).
- Kirol jardunaren kudeaketa eta antolamenduan ikuspegi aldaketa baten beharra sumatzen da (motibazioan, tratuan, arretan...), kirol arloko atal guztietan (teknikariak, monitoreak, entrenatzaileak...) sentsibilizazio eta prestakuntza beharra (!).
- Kirol arloko hiru lan-ildo nagusietan (eskola-kirola, errendimendu-kirola eta aisialdiko kirola) diru-laguntzak banatzeko oinarri arautzaileak finkatuta dauden arren (duela 13 urtekoak dira), eguneratu eta egun dagoen kirol eta ekonomia errealitatera egokitu beharra dago (!)
- **Gainerako udal sailekin koordinatzeko ahaleginak egin badira ere, ez da lortu koordinazio mahai egonkor bat eratzea**, sail estanko bezala funtzionatzen dute sarritan, eta zenbait kasutan ekimenak antolatzeke garaian bikoizketak, deskoordinazioa, kostu osagarriak etab. izaten dira (!)

## KIROL-JARDUERAK ETA PARTE HARTZEA



- Hiru lan-ildo nagusitan banatzen da kirol jarduna: eskola-kirola, errendimendu-kirola eta aisialdiko kirola.
- Egiten den eskaintzak haur (eskola kirola) eta helduen (aisialdiko kiroleko programa berezien bidez) taldeak kontuan hartzen baditu ere, **kirol programazioari dagokionez gazteen artean hutsune bat nabaritzen da**; errendimendu kirolaz aparte kolektibo honi bereziki zuzenduriko kirol eskaintza nahikoa mugatua baita udalerrian. Diagnosi bat egin dago 12-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimen aukerak aztertuz (!).
- Kirol jardueren programazioa ere oso aberatsa da herrian eta zenbait proba eta lehiaketa garrantzitsu ere ospatzen dira bertan, besteak beste aipagarriak dira; Azkoitia-Azpeitia nazioarteko maratoi erdia, Azpeitiko San Silbestre Lasterketa, Azpeitia Txirrindulari Saria, Izarraitzko Mendi Lasterketa, eta beste hainbat eta hainbat.
- **Azpeitiarrak oso kirolzaleak dira eta kirol jardunean, oro har, parte hartze maila oso altua izaten da**. Zentzu honetan eta kirolean emakumeen parte hartzea sustatu eta errazteko zenbait ekimen ere jarri dira martxan.
- Azken urteotako bilakaerari dagokionez, krisiak krisi, antolaturiko jardueretan, oro har, parte hartzea mantendu egin da. Hala ere, bazkide kopuruak apur bat behera egin du, besteak beste, lehen aipatutako instalakuntzen egoera dela medio zenbait bazkide Azkoitira joaten hasi baitira. (!)

## AZPEITIKO KIROL EKIPAMENDUETAKO BAZKIDEEN BILAKAERA

|      | Abonatuak | %Δ    |
|------|-----------|-------|
| 2007 | 6.088     | --    |
| 2008 | 5.958     | -%2,1 |
| 2009 | 6.025     | %1,1  |
| 2010 | 6.124     | %1,6  |
| 2011 | 5.977     | -%2,4 |
| 2012 | 5.740     | -%4,0 |

*Iturria: Azpeitiko Udako Kirol Patronatua*



## HERRITARREN KIROL- DINAMIKA

- Azpeitian 14 kirol-klub aurkitzen dira, alor desberdinetan aritzen direnak Atletismoa, Karatea, Saski Baloia, Judoa, Igeriketa, Mendizaleak, Pilota, Sokatira, Txirrindularitza, Futbola, etab. (Azkoitiko eta Azpeitiko Xeye Atletismo Kirol Elkarte; Azpeitiko Amue Elbarrien Kirol Elkarte; Azpeitiko Karate Elkarte; C. Escuderia Lagun-Artea; C. Iraurgi Saski Baloia; C. Judo Kimura; C. Natación Izarraitz; C.D. Lagun Onak; Enara Mendizale Taldea; Ikasberri Kirol Elkarte; Ilunpe Pilota Elkarte; Lagun Onak Txirrindulari; Nuarbe Sokatira Elkarte; S. de Montaña Lagun-Onak)
- **Azpeitiko Kirol Mahaia Udalaren** kirol politikan **herriarrek parte hartzeko** sortu zen. Bertan, Azpeitiko kirolari, kirol elkarte eta eskola kirol kontseiluko kideak biltzen dira, Azpeitiko udaleko ordezkariekin batera, eta parte hartu nahi **duen kirolzale eta kirol elkarte orori irekita dago**.
- Kirol jardunean parte hartzea zabala bada ere, jardun honen kudeaketa eta antolakuntzan herritarrak ez dira hain dinamikoak (!).

## GAZTERIA

### GAZTERIA SAILEKO ZERBITZU ETA BALIABIDEAK



- Gazteria sailak herriko gazte, nerabe eta haurren beharrak entzun eta asetzea du helburu, euren aisialdirako, prestakuntzarako edo bestelako beharretarako behar dituzten informazio eta baliabideak eskainiz. Horretarako, hainbat baliabide eta azpiegitura jarri ditu euren zerbitzura:
  - o **Gazte Informazio Bulegoa**
    - 0-29 urte bitarteko gazteak (momentu puntualetan gurasoek edo beste hainbat herritarrek ere erabiltzen dute zerbitzua).
    - Zerbitzu hau informatzaile batek kudeatzen du.
    - Bertan, gazteen intereseko gaien inguruko informazioa eskainiko da. Hauen kezkak, iradokizunak, eskaerak etab. jaso eta bideratuko dira.
  - o **Ludoteka**
    - 6-12 urte bitarteko haurrei zuzenduriko zerbitzua da.
    - Herrian bi ludoteka daude eta zerbitzu bakoitzean bi hezitzaile.
    - Jostailuaren eta jolasaren bidez umearen nortasuna garatzea helburu duen espazio askea da.
  - o **Gaztelekua**
    - 13-18 urte bitarteko gazteei zuzenduriko zerbitzua izan arren, erabiltzaile potentzialak 15 urte bitarteko gazteak dira (16-18 urte bitartekoak koadrilen arteko gazte lokaletan parte hartzen dutela esan dezakegu). Gazte lokalen erabilera, indarra hartzen joan da azken urteetan, Gaztelekuan islada izan duelarik (!)
    - Bi hezitzaile daude zerbitzuan.
    - Gazteen aisialdia suspertzen da, ondorengo lau egiturazko programek osatutako arreta zerbitzua garatuz; informazioa, aisialdia eta heziketa ez arautua, sustapena eta emantzipazioa. Horretarako zenbait zerbitzu, programa eta ekintza garatzen dira, gazteen inizatiba, beharrak eta nahiak kontuan hartuz. Beraz, gaztelekua ez da helburua, ezinbesteko bitartekoa baizik.

#### o Urrestillan

- Urrestillan bi baliabide daude haur eta gazteei zuzendurik:
  - 0-6 urte bitarteko haurrei
  - 7-14 urte bitarteko haur eta gazteei, ala ere 15-18 urte bitarteko gazteek ordenagailu zerbitzurako aukera izango dute eta liburutegi txokora berriz, edozein auzotarrek izango du bertaratzeko aukera.
- Gazteria Saitetik kudeatzen da eta gurasoekin elkarlanean teknikariak egiten du baliabide hauen jarraipena.
- Haur eta gazteei, aisialdirako egokitutako toki bat izatea, aisialdiaz gozatzeko aukera izanik eta bestetik, beren adineko auzotarrekin harremanak lantzea eta sendotzea, bide batez auzoari indarra emateko asmoz.

### GAZTERIA ARLOKO JARDUERAK



#### • LUDOTEKA:

- o Egunerokotasuna: beraien aisialdia modu hezitzailean igaro dezaten, hilerok haurrek proposaturiko ekintzez osatutako programazio bat zehaztuko da. Haurrak bere aisialdia erabaki, antolatu eta protagonismoa izan dezaten, hilerok behin, haurrekin ludotekan bilera egingo da, bertan hilabete bakoitzean ludotekan aurrera eramango den programazioa zehaztuko delarik. Programazio hauetan, jolasa da aisialdi hezitzailea aurrera eramateko tresna nagusia: jolas zuzenduak, tailerrak...
- o Eskaintza berezia: urtean zehar garai ezberdinetan antolatzen diren programazioak, beraien eskola jaietan aisialdi alternatibo bat eskainiz: Gabonetan, Aste Santuan eta udan.
- o Gurasoentzat eskaintza:
  - Guraso txokoa
  - Solasaldia

#### • GAZTELEKUA:

- o Egunerokotasuna: helburu nagusietako bat erabiltzaileen elkarrekintza sustatzea denez, gaztelekuak duen izaera irekiarekin lortzen dena, ez litzateke berdina izango egunero ekintzak programatuz gero. Irekitasun horrek ahalbidetzen duen harremanaren ondorioa da larunbat arratsaldetan egiten diren ekintzak aurrera eramatea: tailerrak, txapelketak, zinea, irteerak, ikastaroak... Guztiak beraien behar eta nahiei erantzun bat emateko.
- o Gaztelekuaren beste helburu bat gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea denez, hilerok behin komunikazio txokoa deitzen zaion solasaldi bat egiten da hezitzaile eta erabiltzaileen artean. Solasaldi horien bitartez lortu nahi dena da, aipatutako helburuaz gain, proposamen ezberdinak jasotzea eta gazteak dituzten kezkei irtenbidea ematen laguntzea. Hala ere, solasaldi horretan parte hartzen ez duenak badu aukera bere proposamen, nahi eta kezkek azaltzeko, gaztelekuan dagoen postontzia erabiliz, twentia, e-maila...

- o Parekidetasun sailarekin elkarlanean, hileko azken ostiraletan, sexologia zerbitzua izaten da Gaztelekuan. Hau herritarrei zein bertako erabiltzaileei zuzenduta dago. Bertan gazteekin gai zehatzak lantzen dira modu ezberdinak erabiliz: bideoak, talde dinamikak, galde-erantzunak..., beti ere profesionalaren eta hezitzaileen artean adosturik.
- o Eskaintza berezia: urtean zehar garai ezberdinetan antolatzen diren programazioak, beraien eskola jaietan aisialdi alternatibo bat eskainiz: Gabonetan, Aste Santuan eta udan.
- o Gurasoentzat eskaintza:
  - Solasaldia
- **URRESTILLA:**
  - o Baliabideak adinei egokitutako materialaz hornituta egon arren, beraien beharrak eta nahiak ezagutu asmoz hilean hiru egunetan hezitzaile bat joaten da beraiekin hainbat ekintza aurrera eramateko: eskulana, sukaldaritza, jolas tradizionalak
- **GAZTERI SAIL** bezala beste hainbat jarduera ere egiten dira:
  - o Ikastaroak: 18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko ikastaroak dira.
  - o Solasaldiak: 18 urtetik gorakoentzat antolatzen dira.
  - o Txiki biran: haurrei zuzendutako ikuskizun edo tailerrak izaten dira. Hilean behin egiten dira herriko zenbait txokotan: herriko plazan, Sanjuandegin eta Urrestilla auzoetan. Egun baliabideen murrizketa dela eta bi hiru hilean behin baino ez da antolatzen.
  - o Antzerki tailerra: 5-14 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzenduriko tailerra da. Ikasturte osoko iraupena du eta adinaren arabera bi talde ari dira lanean.
  - o Eragile ezberdinekin ekintza bateratuak.
  - o ...

## AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

**Lotutako lerro eta programak** (*Lotutako lerro eta programen kodeari eta izenburuari egindako erreferentziak*)

Ez dira identifikatu

**Indarrean baina garatzeke dauden ekintza garrantzitsuak**

Ez dira identifikatu

## LOTUTAKO PLANAK ETA ARAUDIAK

### Udal mailan

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2015 (lantzen)
- Udal Barneko Euskara Plana 2013-2015 (lantzen)
- Euskaltegiko urteko plangintza
- Eleguneren urteko ekintza plana

### EAE mailan

- Kirolaren Euskal Plana
- Kulturaren Euskal Plana
- Euskara normalizatzeko Planak

## EKINTZAK EGITEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

### Udalaren eskumenekoak

#### HEZKUNTZA

- Azpeitian hezkuntza arloko eskaintza eta enpresek egiten duten eskariaren arteko azterketa burutu, biak ahalik eta hoberen uztartzera bideraturiko plan edota ildo zuzentzaileak ezartzeko (Iraurgi Lantzen-ekin elkarlanean)
- Lanbide Heziketako eskaria, bailaran irtenbiderik gehien duten arlo edota espezialitateetara bideratzeko ahalegina egin (Iraurgi Lantzen-ekin elkarlanean)
- Helduen hezkuntza sustatzen jarraitu, besteak beste, beraien hezkuntza maila areagotzeko eta lan merkatuan egun dagoen egoera zailari aurre egiteko lan ildo bezala.
- Herriko ikastetxeen arteko harremanak suspertu (Iraurgi Lantzen-ekin elkarlanean)
- Hezkuntza zerbitzuen gida proiektua gauzatu
- Haur eta gaztetxoek beka sistema abiarazi

#### EUSKARA

- Euskararen Barne Erabilera Plan eta Ekintza Plan berriak amaitu eta martxan jarri
- Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko bitartekoak jarri, Elegune programa indartuz
- Herritarrek 4. Profilerak heltzeko baliabideak jarri eta sustapen lana egitea (herritarren artean euskararen ezagutza maila hain altua izanik, erronka bezala planteatzen da epe motz-ertainerako)

- Tokiko euskarazko hedabideei ematen udalak ematen dizkien laguntzak mantendu

## **KULTURA**

- Azpeitia kultur arloan bailarako erreferente gisa garatu
- Soreasuko obrak amaitu (epe ertain-luzera)
- Soreasuko eraikinari erabilera egokiak emateko azterketa burutu (epe ertain-luzera)
- Kultur Programazio bateratua landu (Kultura saila, Sanagustin eta gainerako elkarte eta sailek elkarlanean)
- Orain arte landu den programazioari, eta ekimen arrakastatsuenei, eusten saiatu
- Festa programazioan tradizio kutsuari eutsi
- Herritarren inplikazioa eta parte hartzea areagotzen saiatu, batez ere gazteena, herritarrek euren ekarpenak egiteko mekanismoak arinduz (web bidez) eta sustatuz (zozketak...), eta euren eskaerei erantzunez

## **KIROLA**

- Udal mailako Kirol Plan Orokorra gauzatu eta formalizatu
- Ikastetxe guztiek euren Kirol Plana izan dezaten aholkularitza zerbitzua eskaintzen jarraitu
- Kirol eragile guztien prestakuntza plana garatu
- Oinarri arautzaileak eguneratu (eskola-kirola, errendimendu-kirola eta aisialdiko kirolean diru-laguntzak banatzeko oinarri arautzaileak)
- 12-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako kirol eskaintza diseinatu (buruturiko diagnostik abiatuz)
- Kirol Mahaian eragile ezberdinen inplikazio maila areagotu
- Instalakuntza eta ekipamendu ezberdinak, ahal den neurrian, eguneratuz eta egokituz joan
- Sailen arteko koordinazioa bultzatu, arlo politikoaren inplikazio eta lidergoarekin (orokorra)

## **GAZTERIA**

- Sailean eta zerbitzuetan egiten den eskaintza mantendu eta ahal den heinean zabaltu.
- Gazte eta herritarren artean zerbitzu guztien zabalkundearekin jarraitu.
- Gazte lokalen arauketa. Lokal ugari daude herrian eta hauek arauturik ez daudenez arazoak sortzen dira gazte lokal hauek dauden gunek askotan (zarata, ordutegiak, kale okupazioa, bizilagunen kexak...)
- Gazte Mahaia sortzeko aukera aztertu (gainerako arlo gehienetan bezala herritar eta eragile ezberdinen ekarpen eta proposamenak jasotzeko)
- Gazteria Sailean egiten den guztiaren berri herritarrei eta herritarrek ez direnei eskaini asmoz, web gune berri bat eratu, hiru zerbitzuetan eta sailean egiten denaren informazio guztia eskura jarritz (Guzti hau Gazte Informazio Bulegoko arduradunak kudeatu dezakelarik).
- Udal Web gune dinamikoa, irisgarria, erraza eta erabilgarria egin. Web gune honetan gazteria sailari dagokion atala barneratuz
- Sailen arteko koordinazioa bultzatu, arlo politikoaren inplikazio eta lidergoarekin (orokorra)

## **Udalaz gaindiko eskumena**

- Lanbide Heziketako egungo eskaintza aztertu eta hau egokitzeko neurriak bultzatu



## MILA ESKER PARTE HARTU DUTEN GUZTIOI

*Ainhoa Beristain, Aintzane Agirre, Aitor Aranguren, Aitor Gorrotxategi, Aitzol Iparragirre, Alberto Izagirre, Aloña Larrañaga, Amaia Irazusta, Ana Aizpuru, Anjel Mari Oiarzabal, Araceli Ardanaz, Aritz Epelde, Begoña Beobide, Begoña Sarasua, Edurne Aranbarri, Edurne Zubia, Eneko Etxeberria, Felix Bidasoro, Garbiñe Bereziartua, Haizkurgi Ucin, Ibon Odriozola, Idoia Agirre, Ildefonso Lizarralde, Imanol Amenabar, Ina Sagarzazu, Iñaki Bastida, Iñaki Portilla, Iñaki Zabaleta, Iñigo Amiano, Itziar Abarisketa, Itziar Lasa, Izaskun Ceciaga, Jaione Valverde, Javier Etxeberria, Jesús Aguirre, Jesus Mujika, Jon Garagarza, Jose Angel Aristi, José Azkue, José M<sup>a</sup> Aizpuru Orbegozo, José María Galarraga, Joseba Ibarzabal, Kontxita Martija, Leire Etxaniz, M<sup>a</sup> Jesus Agirre , M<sup>a</sup> José Azkue, M<sup>a</sup> José Iturria, Maixol Odriozola, Manuel Unanue, Mikel Aranbarri, Miren Alcedo, Miren Larrea, Naiara Zubikarai, Nekane Arrieta, Nekane Larrañaga, Nerea Azkue, Nerea Lopetegi, Orkatz Goenaga, Patxi Gurrutxaga, Patxi Saez, Pilar Arrieta, Xabier Mujika eta Yurre Peñagarikano.*

